

Zu hemen zaude. goiena

EMAKUME UHOLDEA KALEAN

Martxoaren 8ko greba-egun jendetsua Debagoiengan / 3



Arrasateko plaza emakumez gainezka, emakumeen eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzean.

IMANOL SORIANO

Carrasco gogoan

Arrasateko Udalaren adierazpen instituzionala, ETak hildako herritarra gogoratzeko / 3

Pol-Pol Mendizale Taldearen 75 urteak liburu batean batu ditu Miguel Angel Elkoroberezibarrek / 30



SINADURAK

	ENEIDA ITURBE / 6		IGOR OIARBIDE / 32
	SABIN ARANBURU / 13		JOSUNE ODRIZOLA / 36
	AGURINE BARRUSO / 48		



'UDALEKUAK' GEHIGARRIA / 21

Imanol Agirretxe futbol jokalariai elkarriketa

'Biki bizi': bikien gaineko erreportaje berezia

bertako
Igogailuak | ascensores
Igogailuen mantentze-lanak

24 orduko
asistentzia abisu guztientzat

Iraupen-konpromisorik
gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua
100 €-tik aurrera

Euskarazko
zerbitzua

LARRIALDI TELEFONOA DOAN
GARAIA Goiru 1A - Arrasate • 943 90 34 50
www.bertako.eus • info@bertako.eus



Arrasateko Herriko Plaza lepo bete zuten emakumeek. IMANOL SORIANO

Emakumeek planto egin dute

Lanuztea egin eta kalera irten dira Debagoiengan emakumeak Martxoaren 8an, aldarrikapenekin bat egitera. Komertzioetan, ikastetxeetan eta enpresetan, besteak beste, geldiuena edo greba egin dute, "gizarte parekideago" baten alde

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, bailarako kaleak eta plazak bete zituzten ehunka eta ehunka emakumeek. *Emakumeek planto!* lelopean mugimendu feministak deitutako grebak babes zabala izan zuen, eta goizeko zein arratsaldeko ekitaldietan parte-hartzea handia izan zen. Bailarako herrietako leiho eta balkoietan, gainera, amantalak zintzilik jarri zituzten aldarrikapenekin bat egiteko.

Pasa den aste bukaeran Arrasatek Elorregiraino egin zuten martxarekin ekin zioten aldarrikapenez betetako asteari bailaran, eta aldarrikapen horiek elkarretaratzeen bidez herrietako kaleetara zabaltu zituzten atzo. Horrela, Arrasateko plaza, esaterako, lepo bete zuten planto egin zuten ehunka emakumeek.

Udaletxean amantalak eskegi zituzten, "emakumeek planto" oihukatzen zuten bitartean.

Bergaran ere, eguerdian oso elkarretaratze jendetsua egin zuten, Udalak eta Martxanterekek deituta. "Ez genuen horrelako jarraipenik espero. Mugimendu handia egon da eta toki askotan emandako erantzuna oso pozgarria eta indartsua izan da", esan zuen Martxanterekek taldeko Elena Egin Labordak. Arratsaldean, gainera, lapikoak eskuan, manifestazioa egin zuten herriko kaleetan zehar.

Oñatin, Foruen plaza bete egin zen; bertan, borobil bat osatu zuten hainbat herritarrekin. Olakuako urmaelaren alboan ere egin zuten elkarretaratzea. Arratsaldean, bestalde, *Alanis* filma eskaini zuten, Martxoaren 8aren bueltan antolatutako dituzten ekintzen artean.

Aretxabaletan, jende asko bildu zen plazan. Izan ere, ikastetxeetako ikasle eta irakasle asko batu ziren. Dantzan eta kantuan egin ondoren, adierazpen bat irakurri zuten.

Eskoriatzan, 11:00etan plazan elkartu ziren, eta, globoekin, aldarrikapena morez koloreztatu zuten. Intxaurtxuetako zubiraino egin zuten manifestazioa, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak salatzeke.

Elgetan, Mendizaleen Plazan egin zituzten elkarretaratzeak, goizez eta arratsaldez. Arratsaldean, gainera, Elgetako emakume taldea aurkeztu zuten. Aramaion, bestalde, aldarrikapen kalejira egin zuten.

Lanuzteak, esparru askotan

"Emakumerik gabeko herrialdea gelditu egingo litzatekeela aldarrikatzeko" lanuzteak egin di-

tuzte Debagoiengan sektore, enpresa eta zerbitzu ezberdinetako hainbat eta hainbat emakumeek. Sindikatu guztiek bat egin zuten lanuzteekin, eta greba egitera animatu zituzten emakumeak enpresetan, ikastetxeetan eta zerbitzu publikoetan. Horrela, lanuztea egin zuten batzuek, goiz osoko geldiuena edota egun osoko greba beste batzuek. Eusko Jaurlaritzak, izan ere, zerbitzu minimoak ezarri zituen, lanuzteei begira, ospitaleetan, eskoletan, garraioan eta nagusien egoitzetan.

Bailarako ikastetxe gehienek bat egin zuten deialdiarekin. Lanuzteak egin zituzten, esaterako, Aranzadi, Arizmendi eta Txantxiku ikastoletan, Elkar Hezin eta Mariaren Lagundian, eta baita Debagoieneko hainbat herri eskolatan ere; besteak beste, Bergarako San Martin Agirren, Oñatiko Urgainen, Aretxabaletako Kurtzebarrin eta Aramaioko San Martinen. "Emakume irakasleok ere planto egin dugu. Irakaskuntzan gehiengo handia emakumeak gara; beraz, sektore honek zeresan handia duela uste dugu", azaldu zuen Arizmendi Ikastolako Malen Ugarte irakasleak.

Bailarako merkatari elkarteek ere bat egin zuten greba deialdiarekin, eta hainbat denda itxi egin zituzten ordu zehatz batzuetan. Gainera, Oñatiko Txanda elkarteetako globo moreak jarri zituzten komertzioetan eta Arrasateko Ibai-Artekoek salto-

kiak oihal moreekin eta amantalekin apaindu zituzten. "Lanuztea egin dugu, sistema honen berdintasunik eza eta indarkeria matxista salatzeke. Baita emakumeon eskubideak aldarrikatzeko ere", zioen Eider Bolinagak, Arrasateko Garraxi dendako langileak.

Aldarrikapenekin bat

Debagoieneko hainbat eta hainbat eragilek ere egin dute bat aldarrikapenekin; besteak beste, udalek, ikastetxeek, musika eskolek eta elkarteek. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazpen instituzionala onartu zuen, "egunegun egun eta bizitza osoan zehar jasaten dituzten desberdintasunak agerian jartzeko". Aldundiak bat egin zuen "egun honen inguruan sortzen den aldarrikapenekin, munduko emakumeekin batera aski dela esateko".

Goiena Komunikazio Taldeko langileek ere bat egin zuten atzoko deitutako lanuztearekin. Hain justu ere, 11:00etatik 15:00ak bitartean egin zuten lanuztea. Zerbitzu minimoak aritu ziren lanean. Hori horrela, *Hemen Debagoiena* saioa, adibidez, ohikoa baino laburragoa izan zen.

LEIHOETAN AMANTAL UGARI ZINTZILIKATU ZITUZTEN ALDARRIKAPENEKIN BAT EGITEKO

Udalbatzak eten egin du isiltasuna

Hamar urte igarota, Isaias Carrascoren hilketari lotutako adierazpen instituzioa onartu dute Arrasateko udalbatzako alderdiek, EH Bilduk salbu. Bestetik, omenaldia egin zioten zapatuan zinegotzi sozialista izandakoari, Navas de Tolosa kalean

I.O./X.G. ARRASATE

Hamar urte igaro dira ETak Isaias Carrasco hil zuenetik: 2008ko martxoaren 7an gertatu zen ezbeharrak, Navas de Tolosa kalean. Eta hainbat ekintza izan dira, azken egunetan, zinegotzi sozialista izandakoa omentzeko. Tartean, adierazpen instituzionala onartu zuten udalbatzako

alderdi gehienek –EH Bilduk ez zuen bat egin testuarekin–.

Hain zuzen, hamar urteko "isiltasuna" apurtu guran adostu zuten adierazpena: "Udalak ez du gura ETak burututako erailketa bidegabearen hamargarren urteurrena isiltasunean igaro". Eta, horrez gain, "herrian indarkeriaren bidegabekeria

jasan duten pertsona guztien sufrimendua aitortuko duen memoria eraikitzeko" konpromisoa berretsi zuten.

Modu berean, "bizikidetzak bakesu eta inklusibo" baten aldeko lanean segituko duela iragarri zuten udalbatzak: "Elkarbizitzan eta elkarrekin begiratu gura diogu Arrasateko etorkizunari". Horri lotuta, asteon jakin da herriko alderdi guztiek parte hartuko duten omenaldia egin guran dabilela Udal Gobernuak; uda ostean egitea da asmoa. Eta hori adosten dihardute orain.

Bilkura bukatuta, "isiltasuna apurtzeko" zegoen beharra azpimarratu zuen Maria Ubarretxena alkatea: "Udalak, instituzio gisa, ez du sekula ezer esan Isaias Carrascoren erailketa bidegabearen harira. Aurten, hamargarren urteurrena izaki, beharrezkoa zen isiltasun hori apurtzea".

Adierazpenaren ostean, bestetik, testuarekin bat egin ez izanaren arrazoiak azaldu zituen EH Bilduko Eneko Barberenak. Haren esanetan, "biktima guztien aitortzaren eta errekonozimenduaren alde" dihardu lanean koalizioak. Eta, horrenbestez, urratsak egitearen alde legoke: "Mina ikusten dugu; eta bada-kigu ezinbestekoa dela gai honetan urratsak egitea. Baina ahalik eta sendoenak eta lasaie-nak izan behar dute horiek".

Omenaldi ekitaldia

Bestetik, Navas de Tolosa kalean omendu zuten Carrasco aurreko zapatuan. Ordezkaritza politiko zabala izan zen bertan: EH Bilduko, PSE-EEko, EAJko, Baleikeko eta Irabaziko kideak. Hain zuzen, EH Bilduko bozeramaile Maddalen Iriarte eta koalizioaren zuzendaritzako kide Ainhoa Beola izan ziren; koalizioak Ca-

rrascoren omenaldian parte hartu duen lehen aldia izan da. Arrasateko EH Bilduko zinegotzirik ez zen ekitaldian izan.

Lore eskaintzaren ostean, Eneko Anduezak eta Idoia Mendiak hartu zuten hitza. "Arrasateko herritar askok seinalatu du familia urte luzez, kalean zein eskolan. Zergatik? Bere ideiak defendatzearen eraila izandako baten familiakoak izategatik", azaldu zuen Anduezak.

Eta Carrascoren emaztea eta alabak eskertu zituen Mendiak, astean zehar emandako testigantzegatik: "Ez dago diskurtso politikorik, zuek kontatutako egia hori hain ondo kontatzea deza-keenik. Zuen mezua heldu egin da, eta beharrezkoa zen".

Carrascoren hainbat alderdikide ere hitz egin dute asteen. "Taldekide bat erail zuten, modu koldarrean. Nigana etorri izan balira...; nik bizkartzainak nituen, baina Isaiasek ez", esan du Rafaela Romero zinegotzi ohiak. Eta, modu berean, Paco Garciak gogoan du egun hura: "Etxe ondoan hil zen. Alaba Sandra eta Marian emaztea ondoan zituela".

EH Bilduren irakurketa

Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiak ere gaiaren inguruko irakurketa egin zuen, eguaztenean, Oñatin eskaintako berbaldian. Berretsi egin zuen "biktima guztiak" aitortuak izan daitezkeen lanean dihardute-la: "Beharrezkoa dugu egia guztiak aintzat hartzea, alde batekoak zein besteak. Ez du zentzurik egia bat bestearen gainean jartzea. Horrela dihardugunean, urrun gaude elkarbizitzatik".


ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGIN DU UDALBATZAK

ALDERDI GUZTIEK ESKU HARTU ZUTEN OMENALDIAN

ELKARBIZITZAREN ALDEKO JARRERA BERRETSI DUTE



Navas de Tolosa kalean egindako omenaldi ekitaldia. XABI GOROSTIDI



Alkatea, Carrascoren lotutako adierazpen instituzionala irakurtzen. XABI GOROSTIDI



OHIKO BATZAR NAGUSIA

EGUNA: 2018ko martxoaren 11n, igandean

ORDUA: Lehen deialdia 11:45ean eta bigarren deialdia 12:00etan

TOKIA: Kulturateko areto nagusian

GAI ZERRENDA

1. Batzar nagusiko akta onartuko duten bi bazkide hautatzea
2. 2016ko ekitaldiko kontu birformatuen onarpena
3. 2017ko kudeaketaren txostena
4. 2017ko ekitaldiko kontuen azalpena, eta, hala balegokio, onartzea
5. San Felipeko bulegoa irekitzeko proposamena
6. Aurtengo sarreraren eta gastuen aurrekontua
7. Zuzendaritza Batzordeko kideen berrieta
8. Estatutuetako aldaketak
9. Galde-erreguak

Arrasaten, 2018ko otsailaren 23an

Epeleko planta FCCK eta Serbitzuk ustiatuko dute

Euri urak batzeko andela eraikitzeke lanak amaituta, "aurki" egingo du publiko erabakia Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, eta konpost-planta "bi hilabete barru" erabat funtzionamenduan egotea aurreikusitako dute

Eneko Azkarate DEBAGOIENA

FCC eta Serbitzu Elkartea enpresek ustiatuko dute Epeleko konpost-planta. Kontratua 4,9 milioi eurotan lizitatu zen eta bi enpresek aurkeztu dute "eskaintza teknikorik onena". Hasieran lizitatutako prezioaren azpitik adjudikatu zaie zerbitzua bi enpresei; hain justu ere, %12 merkeago: 4,3 milioi eurotan. Kontratua lau urterako da eta urtean 4,3 milioi jasoko dute. Konpost-plantaren ustiatketaz gain, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren (GHK) jabetzako makineriaren ustiapen, mantentze eta kontserbazioa eta konpostaren salmenta ere esleituko zaie bi enpresei.

"Bi hilabete barru erabat operatibo egotea da helburua, hasierako frogaldien ostean. Zain gaude, besteak beste, eskualdeko konpost guztia bertara eramateko" esan du Lander Arregik, Mankomunitateko Ingurumen zerbitzuburuak. Une honetan,



Epeleko konpost-planta, egunean ateratako argazkian. ENEKO AZKARATE

Debagoienez sortzen den organikoaren %60 doa Epeleko konpostatze plantara.

Urtean 10.000 tona

Gipuzkoako era horretako planta bakarra izango da Epelekoa.

Helburua izango du lurraldeko materia organikoa konpost bihurtzea eta, ondoren, ongarri hori saltzea. Aurreikuspena da urtean 10.000 tona materia organiko sortzea. Gaur egun, lurraldetik kanpo, Artaxona eta Kaparro-

sora bidaltzen denaren herena. "Oso kalitate oneko ongarria izango da; erronka, orain, izango da prezio onean saldu ahal izatea. Euskal nekazariak erakutsi dute interesa, baita Errioxan ere..." dio Arregik.

Zerbitzua adjudikatu aurretik, hainbat konponketa-lan egin behar izan dituzte. Izan ere, duela hiru urte bukatu zituzten lanak, baina hasieratik antzeman zituzten "akats larriak" funtzionamenduan. Eta, ondorioz, Epeleko plantak ez da inoiz erabat operatibo egon.

Euri urak batzeko depositu berria egiteko hamabi astez lanean aritu da Murias enpresa. 360.000 euroko aurrekontua izan dituzte lanok. 450 metro kubikoko depositua eraiki dute, hasieran egindakoaren bikoitza. Orain, bi depositu daude Epeleko konpost-plantan, esandako moduan, urtean 10.000 tona materia organiko sortzeko aukera emango dutenak.

"Axolagabekeria"

Epeleko konpost-planta frogaldian izan da azken hilabeteetan, nahiz eta ez egon %100eko jardunean. GHKren arabera, 2017an -urtarriletik urrira bitartean- 4.141 tona bio-hondakin batu ziren eta horietatik 1.843 tona konpost sortu. Txosten horrek dio, gainera, sortutako 1.843 tona konpost horietatik 953,46 tona saltzea lortu zela; hau da, sortutako konpost kopuruaren erdia.

GHK-ko arduradunak "pozik" dira, lanak hasi zirenetik hiru urte pasatu direla. Prozesua gorabeheratsua izan da, aurreko agintaldian EH Bilduk martxan jarritako proiektuan "akatsak" antzeman zituzten eta. Hori horrela, txosten teknikoa eta txosten juridikoa eskatu zituen kontsortzioko administrazio kontseiluak, "akats" horiek zeintzuk ziren zehazteko. Txostenak ondorioztatu zuen, besteak beste, euri uren deposituak ez zuela behar besteko edukierarik. "Beste arazo batzuk ere antzeman ziren, baina hori zen arazo nagusia", diote hondakinen kontsortzioko iturriek.

Jose Antonio Asensio Ingurumen Diputatu eta GHK-ko presidenteak esan du Epeleko konpost-planta EH Bilduk inauguratu zuela, "obra zibil guztiaren %39 eta instalazioen %31 bukatzeke" zegoela eta "beharrezko frogaldia egiteke". Horregatik, "axolagabekeria" jokatzeko leporatu dio Asensio EH Bilduri. Lan berriek sorrarazi duten "milioi erdiko gailuzko" arduradun diren "enpresa eraikitzaileei" erreklamatu diela esan du Asensio.

ZERBITZUA 4,3 MILIOI EUROAN EMAN DA ETA URTEAN 10.000 TONA KONPOST SORTZEA DA ASMOA

Indar metaketaz eta politikaren garrantziaz jardun du Otegi

EH Bilduk gonbidatuta izan da Oñatin eta martxoaren 19an Arrasaten izango da koalizioako koordinatzailea

Eneko Azkarate OÑATI

Martxoaren lehen bete dira urte bi Arnaldo Otegi kartzelatik atera zela. Azken asteotan herririk herri dabil, EH Bilduren posizioa herritarrekin partekatzen. Eguaztenean Oñatin izan da eta martxoaren 19an Arrasaten egongo da, hango EH Bilduk gonbidatuta. *Autonomiatik subirautzara* izenburupean ariko da, 19:00etan, Kulturaten.

Oñatiko berbaldian, EH Bilduren bilakaeraz aritu zen Otegi. Alde sozial eta naziona-

letik begiratu zion orainari eta etorkizunari. Erabakitzeke eskubidea, ezkerreko subiranismoa, bakegintza, memoria, gatazka, Katalunia... izan zituen aztergai. "Ahalegina egin genuen indarrak metatzeko, ze EH Bildun badaude oso kultura ezberdineko herritarrak. Une honetan, gauza asko daukagu egiteko: urrats berriak ibilbide nazionalen, baita eredu sozialari dagokionez ere, eta proiektu nazionala ardatz bezala berreskuratu beharra", esan zuen.



Arnaldo Otegi, EH Bilduko koordinatzaile nagusia, Oñatin, eguaztenean. BERNAT ALBERDI

Politika berreskuratu

Gizartea lozorroan bezala, motel, ikusten duen edo ez galdetuta, zera esan zuen: "Borroka fase luze baten ostean, atsedean fase baten egongo bagina bezala ikus-

ten dut gizartea. Despolitizatu. Eta hori luxu bat da. Proiektu nazional askatzaile baten aldeko apustutik etorri behar da berriro politikari indarra ematea".

Kataluniako prozesuaren eta burujabetzaren gainean, Espainia "proiektu bezala erakargarria ez" dela eta Katalunian egin duten moduan, hemen ere indar aberzaleek ideia hori "saldu behar" dutela adierazi zuen, gogora ekarri Katalunian duela 20 urte independentziaren aldekoak %8 zirela eta gaur egun %48.

Beste solasaldi bi

Oñatin beste bi solasaldi antolatuko ditu EH Bilduk. Martxoaren 14an, pentsioen gainekoa, Larriz Ugarte legebiltzarkidearekin eta Helena Franco Ogasun eta Finantza diputatu ohiarekin. Eta martxoaren 27an eredu energetikoaren gainekoa, Mikel Otero eta Dani Maeztu EH Bilduren legebiltzarkideekin. Biak, 19:00etan, Santa Ana antzokian.

Eskerrik asko, Eneko; ongi etorri, Larraitz

ENEKO BARBERENA MONDRAGON

EH BILDUKO ZINEGOTZIA

ARRASATE

Enekotik Enekora, lerro hauek idaztea da egin ahal dudun gutxienekoa.

Ez dira garai onak konpromiso politikorako, inkesta guztietan gutxien baloratutako arloa da politikarena, eta horrek are balioetsuagoa egiten du zure konpromisoa. Gobernatzeko taldea ginena oposizioan aurkitu ginen eta horrek ez du zure lana ilundu. Hezkuntzan, gazterian, kirolean eta berdintasunean proposamenak, keak, iradokizunak eta ekimenak aurkeztu dituzu. Eragile eta norbanakoekin egon zara, betiere, dedikazio osoz. Orain, aldiz, zaintza lanetara buru-belarri sartzea erabaki duzun honetan, fase berria bizitzan. Ez ahaztu, bizitza da handiena. Milesker eginiko lanagatik.

Larraitzi, berriz, ongi etorria eta eskertza. Ziur gaude legealdia amaitzeko urtebete falta den honetan ederto etorriko zaigula zure esperientzia eta ezagutza.

Plazera da horrelako pertsoez inguraturik lan egitea.

Arizmendiko Ikasle Abertzaleen (IA) irakurketa orokorra azken gertakarien inguruan

GORKA ETXABE

ARRASATEKO IKASLE ABERTZALEEN (IA)

IZENEAN

ARRASATE

Dakizuenez, otsailaren 22an manifa nazionala izan zen Arrasaten, greba eskubidea dela eta.

Aurtengo ikasturtean, IAko kideok aldaketarik ikusi ez dugunez, arduradun batzuekin hitz egitea erabaki genuen, gure proposamenak esan genizkien eta eurek greba araudia aldatzeko konpromisoa hartu zuten. Hortaz, manifa nazionala bertan behera uztea erabaki

genuen, konpromiso zehatz batzuk hartu ostean.

Bestalde, martxoaren 21ean ere greba daukagu, Hezkuntza Sistemaren gertatzen ari diren atzerapausoen kontra, eta lotsagarria da oraindik aldaketak egin gabe egotea.

Gure eskariak hauek dira: -%25eko desbinkulazio langa kentzea.

-DBHko 4. mailakoek greba eskubidea izatea.

-Ikasle Abertzaleek ikastetxe barruan lan politikoa egiteko aukera izatea.

-Azterketak greba egunarekin bat eginez gero, azterketa hori atzeratzea.

-Paro eskubidea onartzea. Manifaren harira presioak ere jasan genituen ikasleok. Ikasleei esan zieten egun hartan manifara joanez gero, gurasoei deituko zietela, edo falta bat jarriko zitzaieela ordu hartan gelan ez egotearren.

Gainera, bezperan bilera bat egin zuten, gurasoek seme-alabei manifara joaten ez uzteko, oso arriskutsua izan ahal zelako. Eta irakasleek bazekiten, bitartekari eta militanteok esanda, istilurik egongo ez zela.

Baina, Iñaki Etxezarretak esango zuen bezala, euren zirkuarekin jarraitu zuten.

Adibidez, Olarteko umetxoan gurasoei esan zieten lehenago jaso behar zutela haurra, manifako istiluengatik.

Ikasleak elkarren kontra jartzen saiatu dira, izkina bakoitzean gauza ezberdin bat esanez, eta ordezkarien ahotan beraiek esan ez dutena ipintzen, Donostiako baten agindupean geundela, adibidez; eta hainbat ordezkari jakin gabe, denen izenean testu bat zabaldu zuten. Gainera, Arizmendi euskararen atzean ezkutatzaren eztabaidan ez sartzeko, IA euskararen kontra balego bezala!

Gure eskariak minimoak dira, araudiaren aldaketa azkar batekin konpontzekoak, ez "parte-

hartze prozesu" tutelatu eta amaiezin batean itotzekoak.

Beraz, ikasleok batuta eta lanean jarraituko dugu.

Martxoaren 8az harago, Maria Ubarretxenaren eskutitz irekia

MARIA UBARRETXENA

ARRASATEKO ALKATEA

ARRASATE

Gaur, Martxoaren 8a da. Lehen aldiz greba dago deitua mundu mailan emakumeen eskubideak aldarrikatzeko. Orain dela hilabete irakurri nuen zinema zuzendaria den emakume batek esaten zuena: mende honetako iraultza sozial eta eraldatzailea emakumeena izango da, bestela ez da etorriko.

Gizarteak rol eta pautak jakin batzuk ezartzen dizkigu eta askotan, horien baitan jokatzeko dugu, konturatu gabe, eta parametro horietan sartzen ez diren emakumeek sarritan gizartearen presioa jasan behar izaten dute. Mikromatxismoen bitartez emakumeoi "hori ez da zure lekua" esaten zaigu. Emakume askok jasan izan ditugu mikromatxismoak, bai gizonezkoen aldetik, baita emakumeon aldetik ere, tamalez.

Nik mikromatxismoak jasan izan ditut politikari izan aurretik eta ondoren. Bi seme ditut, 9 eta 4 urte dituzte orain. Kontua galdu dut zenbat aldiz galdetu ote didaten "nola moldatzen zara horrelako lan bat aurrera ateratzeko bi seme txikirekin?". Erantzuna beti da berdina: nire senarrak murrizketa dauka umeen zaintza egin ahal izateko eta amamaren laguntza itzela daukat; bestela, ez litzateke posible izango". Ama txar bat izango bazina bezala sentiarazten zaituzte, subkontzientean badugulako nolabaiteko ideia bat errotuta pentsarazten diguna etxeko zaintza emakumeari dagokiola. Eta ziur galdera horri ematen diodan erantzunak ere baduela kutsu matxista bat, nire

burua justifikatzen egongo banintz bezala erantzuten baitut: "Etxean badut planifikazio bat lan hau egin ahal izateko". Gustatuko litzaidake jakitea zenbat alkatek, zuzendarik edo erantzukizuna duten postuetan dauden gizonezkoek sentitu ote duten hori.

Arrasateko Udaltzatzen gure taldeak bi emakume ditu lehen erroan: alkatea eta bozeramailea. Ez da ohikoa hala izatea eta horren adibide da beste taldeetako bozeramaileak gizonezkoak direla.

Kritikatu nahi den politikaria emakumezkoa denean, askotan, bere diskurtso politikoen edo ekintzen kontra jo ordez, bere itxura kritikatzeko da, edo eremu pribatuen geratu behar dela iradokitzen zaio. Beste hainbat profesiotan gertatu bezala, mila bider gehiago demostratu behar dugu emakumeok, lan gehiago egin behar dugu gure ahotsa entzuna izan dadin, eta politika munduan ohikoa da emakumea esparru politikoa jardutera ausartzeagatik baloratzea, defendatzen dituen ideientatik baino gehiago. Eta noski, gogorarazten zaio bere soldata maila ezin dela izan gizonezkoen parekoa.

Emakume politikariak deskalkifikatzeko erabiltzen den modu hori indarkeria sinbolikoa dela esan zidan aditu batek. Orduetik hona, arreta gehiago jartzen dut berau identifikatzeko saiatzen. Askotan, zaila da txiste, grazia eta horrelakoetan ezkutatzeko den indarkeria sinbolikoa antzematea: emakumeak gutxiesteko funtzioa dute eta helburua dominazio sistema mantentzea da.

Mikromatxismoak eta ezberdintasun egoerak gaitu behar ditugu. Iraultza sozial eta eraldatzailea gurea izan behar da, emakumeona, ezberdin pentsatu arren, ideia ezberdinak izan arren, errealitateak modu

ezberdinean ulertu arren... denak garelako emakume.

Gaur, nire etxeko balkoian amantala zintzilik egongo da, ekintzetan parte hartuko dut, grebara batuko naiz eta nire eskubideak eta emakume guztionak aldarrikatzeko ditut, gaur eta egunero. Eta zuri ere gauza bera egiteko eskatzen dizut, gizon ala emakume, guztion esku baitago gizarte aldatu eta gizarte parekideagoa eraikitzea.

Gora rocka!

HONORIO IZQUIERDO

ARRASATE

Sarritan egiten dugu berba filmen soinu-bandez, baina posible da herriei ere soinu-banda jartzea?

Ni neu 35 urtez bizi izan naiz Arrasaten.

Argi eta garbi esan dezaket lehenengo eraginak, musikari dagokionez, rocketik jaso nituela –horren barruan beste azpigenero batzuk ere badaude, jakina: punka, heavya, grungea, eta abar: <https://es.wikipedia.org/wiki/Rock->.

Horixe bera izan da nire herriaren soinu-banda.

Izan ere, lagunek, tabernek, kontzertuek... denek zeukaten estilo musikal bera Mondragoen.

Bada, horrekin guztiarekin, a ze ezustekoa hartu nuen aurreko Gabonetan herriko tabernetan!

Zerbait aldatu egin da gure herrian.

Rapa, reggaetona... ezin nuen sinetsi ere egin.

Zalantzarik ez dago mundua aurrera doala eta globalizazioa leku guztietara iristen dela, baina galdera hauek datozkit burura:

-Behartuta gaude iristen zaigun guztia onartzera?

-Gure esentzia alde batera utziko dugu eta denon modukoak izango gara?

Gure herriaren nortasunari eutsi behar diogu.

Zer garen jakin behar dugu, eta hori babestu.

Izan ere, badakigu zer garen?

Gora rocka!



ZABALIK

ENEIDA ITURBE

Izena eta izana

Kalean, parkean, dendetan... "guapo" eta "rubio" esan ohi diote nire alabari. Ez noizean behin, ez. Ia egunero. Normalean, ez diet kontrakorik esaten, ez baitaukat bere genero identitatea indartzeko interesik. Hala ere, berbetan jarraitu eta neska dela konturatzen badira, gehienek barkamena eskatzen dute eta "ez dauka-eta belarrikakorik" botatzen didate. Zenbaitek azalpenak eskatzen dizkirate; nolatan ez dizkiogu, ba, zulotxoak egin?

Azkenaldian, alabak berak erantzuten die neska dela. Bi urte eta erdirekin badaki hori. Baita neskek ile luzea izan behar dutela eta pitxiak erabili. Nola liteke? Guk ez diogu halakorik esan. Baina bestela jaso dituen inputek hala erakutsi diote. Estereotipoek eta genero-erolek hor diraute. Neskak beren burua apaintzera eramaten dituztenak, ia ezinezkoak diren edertasun kanonak inposatuz. Eta mutilak ausartak izatera,

DENOK ERREPIKATZEN DUGU GUSTUKO EZ DUGUN JARRERAREN BAT, SARRI ZEHARO KONTZIENTE IZAN GABE

ahultasunik ez erakustera eta sentimenduak eustera.

Umeei beste aukera eta eredu batzuk transmititzen saiatu arren, denok errepikatzen dugu

gustuko ez dugun jarreraren bat, sarri zeharo kontziente izan gabe.

Duela gutxi, *buruko karga* kontzeptuarekin topo egin nuen eta erabat argigarria iruditu zitzaidan. Artikuluaren izenburua benetan iradokitzailea zen: *Mujer, hábermelo pedido y te habría ayudado*. Horra hor nik sentitzen eta bizitzen nuena eta izendatzen ez nekiena! Eta, nik bezala, emakumeon gehiengoak.

Ai, gauzei izena jartzearen eta aditzera ematearen garrantzia! Beste hitz eta kontzeptu asko bezala: heteropatriarkatua, mikromatxismoa, indarkeria obstetrikoa, *mansplaining*-a, eta abar.

Betidanik hor egon diren baina inoiz izenik jarri ez diegun gertaerak, jarrerak eta egoerak aintzat hartzea, erakustea eta hausnartzea ezinbestekoa da gizartearen eraldatzeko. Eta horretan dihardu mugimendu feministak.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Emakume guztiak zaintza-greba eginez gero, zenbat pertsona zaindu beharko lituzke gizon bakoitzak?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

[HTTPS://LABUR.EUS/DGGBM](https://labur.eus/DGGBM)
'ARGIA'-N ARGITARATUA

Hainbat gizon M8an zaintza kolektiboak antolatzen ari diren honetan, ariketa proposatu dit Estitxu lankideak:

16-69 urte arteko gizon bakoitzak 14 urtetik beherako eta 70etik gorako zenbat pertsona hartu beharko lituzke bere gain, denek zaintza bermatzeko? Hego Euskal Herriko datu demografikoetara jo dut.

Eta datuek harritu egin naute: Hego Euskal Herrian dauden 14 urtetik beherako haur eta gazteak (386.981) eta 70etik gorako adinekoak (460.892) batuta (guztira 847.872 lagun, soilik adinaren irizpidea kontuan hartuz agian zaintza behar dutenak), horiek guztiak gutxiago dira 16 eta 69 urte artean dituzten gizon kopurua baino (973.879). Alegia, gizon bakoitzak haur edo zahar bakar bat zainduta, soberan leudeke bermatuta zaintza zamak.

Kontuan izanik beste aldagai batzuk daudela jokoan (lanera joan, otorduak prestatu...), txandaka gizon batek pertsona bat baino gehiago bere ardurapean hartzea, hau da

zaintza kolektiboak antolatzea, aukera bideragarria da, datuak eskuan: 6 orduko txandarekin, gizon bakoitzak gehienez lau pertsona lituzke bere arretapean, adibidez.

Martxoaren 8tik haratago, burura hiru gogoeta datozkit: bat, zaintza partekatua ikuspegitik datu positiboak dira, ardura gizon eta emakumeen artean benetan partekatzeak errazagoa baitirudi zama zenbaterainokoa litzatekeen ikusita. [...]

Eta panorama zabalduz, zaintza (partekatu) kolektiboa aukera aproposa da, lehen aipaturiko beste aldagaiak ere (lana, etxea, aisia...) uztartu ahal izateko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Eiorza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Emakume musulmanek zapalketa bikoitza bizi dute"

ITZIAR BASTARRIKA IKUS-ENTZUNEZKOEN SORTZAILEA

Eneko Azkarate ARRASATE Oñatiko Ilunpetan Argazki taldeko kideak *Bideak gurutzatzen* izeneko dokumentala egin du, Iratxe Esnaolarekin batera, Debagoieneko emakume musulmanen gainean. **Ze islatu nahi izan duzue *Bideak gurutzatzen* ikus-entzunezkoan?**

Enkarguz jaso genuen lan honetarako proposamena. Eskualdeko emakume musulmanak dira protagonistak eta haien egoeraz, bizipenaz, iritziez... dihardu. Iratxe Esnaolaren eta nire neure esku hartzeaz harago, haiek nahi izan dutena kontatu dugu. Gidoia parte hartze prozesu baten osatu da. Emakume musulmanek zapalketa bikoitza jasaten dute. Gure artean bizi dira, gure parte dira, baina ez ditugu ezagutzen. Oso errealitate ezberdinak bizi ditu bakoitzak, guk denak zaku berean sartu arren. Hori da lehen arrazismoa.



Itziar Bastarrika, Arrasateko Emakume Txokoaren aurrealdean. ENEKO AZKARATE

INME Arrasateko emakume musulmanek eskatuta egin duzue lana. Zergatik egin nahi zuten ikus-entzunezkoa?

16 urte eta gehiago daroate hemen, baina gaur egun, oraindik ere, errealitatea da

euren lagunak direla euren jatorri berekoak. Edota beste kolektibo batzuetako etorkinak. Dokumentalean agertzen diren zortzi emakumeetatik gehienak arrasatearrak dira, baina

beste hainbat emakume musulmanek ere hartu dute parte, eskualdeko beste herri batzuetakoek, baita beste jatorri batzuetako emakumeek ere; latindarrek, esaterako. **Modu askean kontatu dituzte bizipenak?**

Bai, bai; gure esku hartzea oso txikia izan da. Eta emakumeek ez dute kontatu nahi izan ez dutenik. Kontatzeko zuten hori azaleratzea izan da asmoa. Ditutzen mugak gainditzeko modu bat izan da ikus-entzunezkoa.

Zeri buruz dihardute kamera aurrean?

Euren errealitateaz eta egunerokoaz: zerk bultzatu dituen euren herrialde ixtera; zerekin egiten duten topo hemene; hemengo bizitza zelakoa den, ze behar eta amets dituzten...

Estetikoki, nolakoa da ikus-entzunezkoa?

Testigantzetan oinarritutako lana da. Bi zatitan banatu dugu eta bi zati horien artean musika sartu dugu. Ez dauka bestelako apaindurarik. 40 minutukoa da, baina arin ikusten da. Hizkuntza nagusia gaztelania da, baina bada euskaraz diharduenik, eta euskarazko azpititulua ere baditu. Prozesu baten parte bat da dokumentala.

HAU BE BADOGU!

Martxoaren 8a, nagusi sare sozialetan



#Martxoak8 eta #M8Planto #EmakumeokPlanto traolak izan dira aste honetako erabilienak sare sozialetan:

@AneIrazabal: "Bihar greba egingo dut. Nigatik, zugatik, guztiongatik. #M8Planto #EmakumeokPlanto".

@jaltolagirre: "Borroka feministaren egun handi honetan, gizonezkooi gure lagun emakumeen ondoan egotea dagokigu, protagonismorik gabe baina ondoan, dagozkigun ardurak gure gain hartzen #Martxoak8".

Martxoaren 3a gogoan izan dute

#Martxoak3 eta #M3moria traolak erabili dituzte 1976an indar polizialek Gasteizen hil zituztenen oroimenez.

@ArabakoAlea: "Milaka lagun elkartu dira Gasteizen, 1976ko martxoaren 3ko biktimentzat justizia eskatzeko. Aurten, emakumeen borroka izan da protagonista. @Martxoak3 #martxoak3 #M3moria".

@Martxoak3: "Mila esker Gasteiz, #Martxoak3 bizirik mantentzeagatik. Duintasuna eta #M3moria ez dira eten".

Trumpek hanka sartu du, berriz ere

Ez da Ameriketako Estatu Batuetako presidentek Twitterren hanka sartzen duen lehenengo aldia. Sare sozialak gustuko ditu Donald Trumpek, eta, orainoan, Oscar sariak aurkeztu dituen Jimmy Kimmel aurkezlearekin ika-mika izan du. Kimmerek txantxak egin zituen sari banaketan, eta Trumpek zuzenean erantzun zion kazetariari. Hori dela eta, hainbat kritika jaso ditu presidentek, eta *trending topic* izan da.

ITURRI ONETIK

Ointxe, Garbajosa eta Fernandez

Urrezko ezteiak ospatzen dihardu Ointxe Arrasate saskibaloia elkarrekin. Talde nagusia indartzeko, fitxaketa izarrak egin dituzte; *merchandising*-a ere badabilta erabiltzen, kamiseta eta katilu bereziak, eta abar. Denboraldi amaieran, jai bereziarekin ospatu nahi dute klubeko kide izan diren eta diren familia handiarekin. Ospe handikoak ere batu nahi dituzte jaira: klubeko jokalaririk izandako Jorge Garbajosa –egungo Espainiako Saskibaloia Federazioko presidentea– eta Jorge Fernandez aurkezlea.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-03-07

Isaias Carrasco hil zuen ETAK, eta mina ekarri zuen

Eguaztenean bete dira hamar urte ETAK Isaias Carrasco militante sozialista arrasatearra etxe ondoan erail zuela. Hilketaren kontra protesta jendetsuak egin ziren eta handik bi egunera egin ziren Espainiako hauteskundeetan PSE-EE izan zen alderdi botatuena Debagoienean, eta Espainian; Arrasateko Udal Gobernua hautsi egin zen, Ezker Batua-Zutik-eko hiru zinegotziek utzi ostean, EAE-ANVk atentatua gaitzetsi ez zuelako...



Xabi Gorostidi ARRASATE

Martxoko osoko bilkura berezia izan zen, arrazoi askorengatik, baina, batez ere, Arrasateko Pentsiodunen Plataformako kideek egin zuten erakustaldia-rengatik. Hainbat kontu landu ziren arren, protagonismo osoa eurek bereganatu zuten. Orokorrean erdi hutsik egoten den osoko bilkura aretoa bete egin zuten, bai pertsonekin eta baita aldarrikapenekin ere.

Eurek proposatutako mozioa zegoen eguneko gai-zerrendan, eta bertan aipatzen zituzten argumentuak politikariei aurrez aurre azaltzeko asmoz bete zuten bilkura aretoa, 100 lagun baino gehiagorekin.

Haserre egoteko arrazoiak

Mozioan, euren egoera eta haserrea nondik datorren azaltzen zuten pentsiodunen plataformakoek. Salatu zuten 2008an hasitako krisialdia urteetan lortutako eskubideak "aurretik eramateko" baliatu izan dela.

"Finantza entitateen erreska-teak, euren kasino eta burbulararekin eragin zuten krisi ekonomikoaren ondorioz, gure garaiko bortitzena, gure eskubideak aurretik eraman zituen etxegabetze, lan erreforma eta zerbitzu publikoen murrizketa zerrenda luze batekin -hezkuntza, osasun zerbitzuak, gizarte segurantz...-; hiritarren sorbaldetan kargatuz eta publiko eginez mundu pribatuko galera eta sarraskiak. Prekarietatea norma bezala hedatu da gizartearen gehiengoarentzat, eta pentsiodun eta jubilatuen gainera zuzendu da orain eskubideekiko erasoa".

Espainiako Gobernuaren pentsioen erreforma erasotzat jotzen dute, batez ere, pentsio pribatuak sustatu nahi dituztelako, eta horrek "erretiro adina atzeratzea eta prestakuntzen murrizketa bultzatzen" duelako. "Pentsioen itsulapikoaren hustuketa -%90, 2011tik hona- pentsio plan pribatuen aldeko apustuarekin eskutik joan da, langabezia jarraitua, soldaten jaitziera, enplegu berriaren prekarietatea eta lan-erbestearrekin batera, gizarte kotizazioetan soilik mantendutako sistema publikoa kondentatuz".

Ondoren datozenen alde

Salatzen dutenez, pentsioen gaiak ez die eurei bakarrik eragiten,



Karmelet Iparragirre, mikrofonoa eskuetan duela; atzean, adi-adi, babesa ematera joan ziren plataformako kideak. XABI GOROSTIDI

Pentsiodunen eskariei, babesa

Hiru eskariko mozioa sartu zuten, eta aho batez onartua izan zen: %0,25eko igoera kentzea, 1.080 euroko pentsio minimoak jartzea eta KPIren baitan igotzea, eta pentsioen eskumena Gasteizek hartu arte, 1.080 eurorako tartea Jaurlaritzak osatzea.

atzetik datozen belaunaldi guztiei baizik. "Duintasunez bizitzeko gutxieneko bizi baldintzak ahalbideratuko dituen pentsioak lortu nahi ditugu; merezi dugulako, eta gure seme-alabek eta ilobek ere merezi dutelako".

Pentsiodunen interbentzioak

Lehenik eta behin, Karmelet Iparragirrek hitz egin zuen, eta bizi duten "prekarietatea erabatekoa" dela jakinarazi:

"Nazkatuta gaude pentsioen %0,25eko igoerarekin. Gure

erosteko gaitasunak nabarmen egin du behera. Gehienok 700 euro baino gutxiago jasotzen ditugu, eta, kasu askotan, emakumeak eta alargunak gara. Pentsioek izoztuta jarraitzen dute gastuek gora egiten duten

bitartean. Azken hamar urteetan elektrizitateak %45 egin du gora eta azken urtean, berriz, %10. Badirudi eskatzen ari garena limosna dela, baina ez da hala. Gure eskubideak dira, hainbat urtez lan egiten eta kotizatu ostean lortu ditugunak".

Sagrario Lopezek hartu zion testigua jarraian. Espainian pentsioen erreserben %90 xahutu izana "mundu mailako eskandalu" bihurtu dela adierazi zuen, eta Frantziaren, Alemaniaren eta herrialde eskandinaviarren finantziario ereduak jarri zituen jarraitu beharreko eredu gisa.

Azkenik, Gipuzkoako erretiratuaren Agijupens elkarteko Jose Rivierek otsailaren 22an Donostian egindako pentsiodunen kontzentrazioarekin lotutako dokumentua irakurri zuen, eta, gero, alkateari entregatu zion. Euren eskariak kontuan hartzen ez baditu hurrengo hauteskundeetan igarri egingo duela ohar-tarazi zion alkateari.

Politikarien erreazioak

Maria Ubarretxenak berrestu egin zuen pentsiodunen alde egingo duela, eta Rivierek emandako eskutitza Madrilera helaraziko dutela adierazi zuen.

Irabaziko Juan Luis Merinok zoriondu egin zituen, euren borroka-rengatik, eta sei urte barru pentsiodun bat gehiago izango dela esan zuen.

Eneko Barberenak adierazi zuen borrokatu gabe ez dela eskubiderik lortuko eta EH Bilduren babesa izango dutela. Oscar Garcia sozialistak eskerrak eman zizkien, halako arazo larri baten aurrean "arrasatearrei begiak zabaltzeagatik". Azkenik, Baleikeko Igor Urizarrek esker-rak eman zizkien osoko bilkurrara joateagatik, euren eskubideak borrokatzeagatik eta baita etorkizuneko belaunaldien alde borrokatzeagatik.

Hiru eskari, aho batez onartuta

Mozioa botatzerakoan, 21 zinegotziek aldeko botoa eman zuten. Hala, pentsiodunen hiru eskari hauek propio egin zituen udalbatzak: lehena, %0,25eko igoera amaitzea; bigarrena, 1.080 euroko pentsio minimoak ezartzea eta urtero KPIaren arabera igotzea; eta hirugarrena, pentsioen eskumena Gasteizko parlamentuak hartu arte, 1.080 euro arteko tartea Eusko Jaurlaritzak osatzea.



KARMELE IPARRAGIRRE
PENTSIODUNA

"Azken 10 urteetan elektrizitateak %45 egin du gora eta azken urtean, berriz, %10. Baina gure pentsioak izoztuta daude 2011 ezker".



JOSE RIVIERE
PENTSIODUNA

"Gaur mahai gainean jarri ditugun eskariak ez badituzue seriotasunez hartzen, hurrengo hauteskundeetan igarri egingo dituzue horren ondorioak".



SAGRARIO LOPEZ
PENTSIODUNA

"Alemanian zergen %30 bideratzen da pentsioetara; Suitzan, Norvegian eta Suedian, %20; eta Frantzian zerga berezi bat onartu berri dute".

Eneko Fernandez agurra

EH Bilduko Eneko Fernandezek zinegotzi karguari uko egitea onartu zuten. Ubarretxena alkateak eskerrak eman zizkion "Udalaren alde egindako lanagatik eta eskainitako denboragatik", eta, segidan, Fernandezek hartu zuen hitza kargua uzteko arrazoiak azaltzeko.

"Gustatuko litzaidake proiektu eraldatzaile gehiagotan energiak gastatu izana eta gutxiago oinarritzko kudeaketa kontuak borrokatzen eta salatzen.

Irmoki sinesten dut mundu eta herri hobe bat nahi badugu, alderdikarien eta ezinikusien gaintetik, ausardiaz eta guztion artean, proiektu eraldatzaileak martxan jarri behar ditugula eta beraien oinarria herrian bertan dugula. Hausnartzen jarri naiz eta une honetan etxean bertan inon baino gehiago behar nautela antzeman dut. Izan ere, legegaldi honetan jaioko den bigarren semea izango dut datozen asteetan. Energia eta pazientzia guztia etxean emateko garaia dudala konturatu naiz, etorkizunean ere helduko zaizkidalako herriaren alde lanean jarraitzeko aukerak. Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet esperientzia hau horren aberasgarria izatea eragin duten zinegotzi eta teknikari guztiei, batez ere, berdintasun arloan ahaldundu nautenei eta politikaren gaintetik pertsona bikainak direla erakutsi didaten taldekideei".

Eneko Fernandez hutsunea Larraitz Trojaolak beteko du, EH Bilduko zerrendetako zortzigarren hautagaiak, hain zuzen.



Eneko Fernandez. X.G.

Pentsiodunak, politika egiten



XABI GOROSTIDI KAZETARIA

Herria gobernatzeko botoa eman dieten politikarien aurrean jarri ziren herriko pentsiodunak, hiru eskari zehatz egiteko. Ziur asko, Arrasateko udalbatzak ez du horiek egia bihurtzeko boteririk; ez betearazlea, ez legegilea.

Hala ere, politikariei lezio xume bat eman zitelera uste dut. Euren aurpegieta argi ikusi nuen alderdi guztietako boto emaleak zeudela pentsiodunen artean. Baina ideologia kontuak baztertu, eta ados dauden ideia horietan jarri dute fokua, elkar ulertzeko gaitasuna erakutsiz. Hain justu, politikariengan sarri faltan igartzen dudana gaitasun hori.

Hainbat ekintza, Martxoaren 8aren harira

Bihar, zapatua, Emakume Artisau eta Baserritarren Azoka egongo da Seber Altube plazan, 10:00etatik 14:00etara, emakume nekazarien lana ezagutzaraztea helburu duena. Guztira, 60 postu egongo dira.

Martxoaren 14an, 19:00etan, Zinegoak Hedapena 2018 film laburren emanaldia izango da Kulturateko arteko n agusian. Sei film labur eskainiko dira; emakumeek zuzendutakoak.

Martxoaren 16an, 19:00etan, *Hots hiru ahots bakarrean* poesia musikatu saioa izango da Kulturateko areto nagusian, Itxaro Bordaren eta Itsaso Gutierrezen eskutik.

Eskola publikoaren gaineko hitzaldia martitzenean

Euskal Eskola Publikoaren egoera eta etorkizuna familia ikuspuntutik izeneko hitzaldia egongo da martitzenean Kulturaten, 18:30ean, Arrasate Institutuko Guraso Elkarteak antolatuta. Gaur egun hizkuntzak bizi duen egoera eta aurrera begirako hausnarketa izango dira saioaren ardatzak, hezkuntza arloko zenbait aditurekin.

OHARRAK

Batzar orokorra

Garagartzako Ortu Ekologikoak Elkarteak batzar orokorra egingo du hilaren 21ean Kulturateko Loramendi aretoan. Bi deialdi izango dira: 17:30ean eta 18:00etan.

GEDren aurkezpena

Gure Esku Dago-k 2019ari begira dauden erronken aurkezpena egingo du astelehenean –hilak 12–, 19:00etan, Kulturaten. Ekainaren 10eko giza katearen eta Herri Itunaren berri ere emango dute.

105 urte

Felisa Axpe arrasatearrak 105 urte bete ditu.

'Familian jolasean' ekimenaren azken saioa domekan

Etzi, domeka, izango da azkenengo *Familia jolasean*, 17:00etan, Okendoko ludotekan. 0-8 urte arteko haurrak dituzten familiei zuzendutako saioa izango da.

Bestalde, ludoteka ibiltaria San Andres auzora pasako da. Bihar, zapatua, Arimazubi plazan elkartzeko dira, 10:30ean. 3-12 urte bitarteko haur guztiak daude gonbidatuta.

Arrasate Musikalen finantziazioa

EH Bilduk gaia mahai gainean jarri zuen 2017ko azaroan, baita udalbatzako bozeramaileen batzordeak ere 2013an. Martitzeneko bilkuran, aldiz, Udaleko alderdi guztiek babestu dute adierazpen instituzional bezala. Hain zuzen ere, hauexek finantzatzeko dute Arrasate Musikal: gurasoek (%40 inguru), Arrasateko Udalak (%33 inguru) eta Eusko Jaurilaritzak (%20

inguru). Teorian, Jaurilaritzari aurrekontuaren %33 jartzea dagokio, musika eskola publikoetan egiten duen bezala. Baina 2016ko Eudelen udal legeak dionez, musika eskola publikoetan bakarrik dagokio kopuru hori jartzea. Udalbatzako alderdi guztiek uste dute Arrasate Musikal erakundea musika eskola publikoen maila berean jarri behar dela, 40

urteko ibilbidea duelako, Udalak parte hartze zuzena duelako eta haren finantziazioaren bi herenak publikoak direlako.

Eneko Barberenak adierazi zuen azken hamaika urteetako datuak aztertu dituztela. "2016an, esate baterako, gurasoek jarritako dirua %44koa izan da. Azkeneko urte hauetan Eusko Jaurilaritzak jarri ez duena kolpe jarritz gero, 100.000 euro pasa jartzea tokatuko litzaioke".

Martxoaren 8a: zortzi konpromiso

Udalbatzako ordezkari guztiek Martxoaren 8arekin lotutako testu bateratua adostu zuten. *Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez lan egiten, ez kontsumitzen, ezta parte hartzen?* galderari erantzunez hainbat azalpen eta arrazoi jasotzen zituen dokumentu adostuak, eta ondorengo zortzi konpromisoak hartu zituen Udalak bere gain:

Lehen: grebarekin bat egitea; bigarrena: emakumeei greba deialdiarekin bat egiteko eta herritarrei horren bueltako ekintzetan parte hartzeko deia; hirugarrena: Udal bezala, beharrezko baliabide material eta pertsonalak eskaintzea; laugarrena: bandera feminista udal eraikin baten jartzea; bosgarrena: zaintzan eta etxeko lanetan gizonezkoen inplikazioa

sustatzeko eta erabaki-guneetan emakumeekin partekatuzeko sensibilizazio programak sustatzea; seigarrena: bere eskumenen alorrean zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatzea; zazpigarrena: Arrasateko Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatzeko konpromisoa; eta zortzigarrena eta azkena: balioen transmisioa azpimarratzea, berdintasunezko gizarte lortzeko.



XABI GOROSTIDI

Euskaraz egiteak badu saria

Udalarekin ere euskaraz kanpainak baditu jada irabazleak. Hiru herritarrek *Puntua* aldizkariaren harpidetza irabazi dute Arrasateko Udalarekin euskaraz komunikatzeagatik. Irudian, Eva Romero saritua eta Euskara batzordeburu Juan Ramon Mendieta ageri dira saria emateko unean. Whatsapp bidez abisuak euskaraz emateagatik jaso du saria Romerok.



EH Bilduko Eneko Barberena, Eneko Azkarate aurkezlea eta Baleikeko Igor Urizar, *Harira* saioan, martitzenean. XABI GOROSTIDI

Agintaldiari errepassoa, 'Harira' telebista saioan

Oposizioan diren alderdiek esku hartu dute asteon 'Harira' saioan. Udal Gobernuaren jarduna eta agintaldian martxan jarritako zenbait egitasmo izan dituzte aztergai. Gobernuko alderdiek, bestetik, ez dute saioan parte hartu gura izan

Iker Oñate ARRASATE

Goiena telebistako *Harira* saioan parte hartu dute asteon oposizioan dauden alderdiek. Eta, besteak beste, agintaldiak orain arte eman duena izan dute berbagai. Hain zuzen ere, Eneko Barberena -EH Bildu- eta Igor Urizar -Baleike- izan dira platoon; eta Juan Luis Merinoren -Irabazi- irakurketa ezagutzeko aukerarik

ere izan dute ikus-entzuleek. Udal Gobernuko alderdiek -EAJ eta PSE-, berriz, uko egin diote saioan esku hartzeari.

Hala, agintaldiaren balorazio orokorra eskainiz eman diote hasiera saioari. Udal Gobernuak "irudi ona eskaintzeko duen obsesioa" aipatu dute oposizioko alderdiek. "Euren irudian oinarritzen da Udal Gobernuaren

lana; beste alor batzuei baino garrantzi handiagoa ematen diote horri", azaldu du Barberenak. Berdinari egin dio kritika Urizarrek: "Politika propagandistikoan segitzen dute murgildurik. Herriari baino gehiago begiratzen diete komunikabideei. Esan dezakegu etikaren eta politikaren aurretik jarri dutela estetika".

186.440 euroko diru laguntza Kulturola egitasmoarendako

Planaren exekuziorako 5,88 milioi euroko inbertsioa aurreikusi du Arrasateko Udalak

I.O. ARRASATE

Kulturola egitasmoaren baitan aurreikusitako lanetarako 186.440 euroko diru laguntza jasoko du Arrasateko Udalak; Eusko Jaurlaritzak eman dio laguntza. Hain zuzen ere, 5,88 milioi euroko

inbertsioa dago aurreikusia plana exekutatzeko. Eta Arrasateko Udalak jakinarazi du gaurgaurkoz 3.359.472 euro dituela "aurreztuta" horretarako.

Zehatz esanda, Eusko Jaurlaritzak euskal kulturaren eta

ondarearen garrantzia azpimarratzeko -eta hedatzeko- eskainitako diru laguntza eskatu zuen Arrasateko Udalak urrian, "Kulturola eraikina berriz erabilia izan dadin proiektua idazteko, egin beharreko obren zuzendaritza lanerako eta egitasmoa exekutatzeko". Eta, esan moduan, onartu egin dute eskaera.

Gauzak horrela, aldian aldika jasoko du dirua Arrasateko Udalak, hiru epetan: 62.146.67 euroko diru laguntza izango du 2019ra bitartean-urteko kopurua da

hori-. "Pozteko moduko laguntza da. Bultzada garrantzitsua emango dio ekimenari", azaldu dute Udaleko ordezkariak.

Bestetik, gogorazi dute Arrasateko Udalak agintaldian duen proiektu "garrantzitsuenetakoa" dela Kulturola egitasmoa: "Herri zein bailara mailan garrantzi handikoa izango den kultur eremua sortzea da proiektuaren helburu nagusia. Herriarrei eta kultura taldeei euren alorrean aukera berriak eskaintzea da asmo nagusia".



ENEKO BARBERENA
EH BILDU

"Segurtasuna eta babes zibila landuko litzuzkeen batzorde bat sor dadin eskatu dugu. Ezezkoa eman du alkateak. Lanketa beharra du gaiak".



IGOR URIZAR
BALEIKE

"Biolentziaren prebentzio neurriez berba egin behar genuke; eta Udaltzaingo ereduaz hausnartu, su armak erabiltzea ez baita soluzioa".

Gero, agintaldian esangura handia duten egitasmoez berba eginez eman diote segida saioari. Besteak beste, aurrekontu parte hartzaileak, Kulturola egitasmoa eta aparkalekuen auzia izan dituzte berbagai

Aurrekontu parte hartzaileak

Oro har, oposizioak "positiboki" baloratzen du aurrekontu parte hartzaileen ekinbidea. Hori bai, "hutsuneak" nabari ditu egiteko moduan. "Udal Gobernuak 250.000 euro besterik ez du bideratu aurrekontu parte hartzaileetara. Horrekin ezin da behar moduko prozesurik diseinatu", azaldu du Urizarrek.

Barberenak, berriz, oposizioak aurkezten dituen emendakinekiko Udal Gobernuak duen jarrerara salatu du: "Aurrekontuei lotutako 50 emendakin aurkeztu ditu EH Bilduk. Eta bat bera ere ez du onartu Udal Gobernuak".

Eta bide beretik jardun du Merinok. "Ez dituzte batzordeetan egiten ditugun proposamenak onartzen. Hori bai, eurenak balira bezala aurkezten dituzte gerora", esan du.

Kultura esparruen beharra

Bestetik, Kulturola egitasmoaz ere jardun du oposizioak. "Espazio beharra dute kultura sortzaileak. Beraz, positiboki baloratzen dugu eurentzat leku bat eraikitzeko ekinbidea", azaldu du Urizarrek. Hori bai, zerbitzua koordinatzeko pertsona baten beharra azpimarratu du Barberenak: "Elkarren arteko harremanetan eta sormenean laguntzeko pertsona bat eskatu dute eragileek. Udalak ez du halakorik eskaintzeko asmorik".

Aparkalekuen gabezia

Eta aparkalekuen auzia ere izan da berbagai. Tartean, "irtenbide errealek" aztertzea eskatu du oposizioak. "Benetan jar daitezela hitzeman zuten horretan", diote. Horri lotuta, TAO sistema eta Laubideko zein Biteriko parkingak dakartzate gogora.

PARTE HARTZE PROZESUAN "HUTSUNEAK" NABARI DITU OPOSIZIOAK

Zabalik dago karapaixo ikastaroa egiteko izen-ematea

Zabalik dago karapaixo ikastarorako izen-ematea. Eta hilaren 16ra bitartean egongo da horretarako aukera. Raket Perez de Arenazak, Meatzerrekako base-eritarrak, gidatuko du Seber Altubeko saioa; martxoaren 17an egingo dute, 11:00etan hasita. 943 79 64 63 zenbakira deituz edo turismo@debagoiena.eu helbidera idatziz eman daiteke izena.

"Sarri gertatu izan da liburuetan iragarritakoa"

JUAN IGNACIO MONTIANO IDAZLEA

Juan Ignacio Montiano idazle arrasatearrak eguaztenean aurkeztu zuen lan berria Kulturaten: ¿Sueñan los humanos con androides cariñosos?'

Iker Oñate ARRASATE

Bere bidean segitzen Juan Ignacio Montiano idazle arrasatearrak. ¿Sueñan los humanos con androides cariñosos? bataiatu du lan berria. Eta genero nahasketaren fruitu du liburua, betiko helburuari segika, betiere: irakurlea entretenituz, hausnarketa bultzatzea. Hain zuzen ere, eguaztenean aurkeztu zuen lan berria Arrasaten, Kulturaten. Ostean bisitatuko ditu Euskal Herriko hiriburuak eta bestelakoak –Madrilen aurkeztea espero du, adibidez–. Aukera aprobetxatuz, liburuz jardun du Montianok.

¿Sueñan los humanos con androides cariñosos? bataiatu du lan berria.

Hala da. Mundua adimen artifizialaren bueltan antolatua dagoelarik, garrantzitsua da gaiaren inguruan hausnartzea, planteamendu etikoak eta filosofikoak azalaraztea. Bada, bide horretan doa liburua. Hori, ohi dudana moduan, literatur generoen uztarketatik abiatuta. Beste modu batera esanda: besteak beste, umorea, fikzioa eta polizia eleberrien kutsua aurkituko ditu liburua irakurtzen duenak. **Gehiago esaterik?**

Askorik ez. Etorkizuneko Bilbo hirian gertatzen da istorioa. Hain zuzen, loteria irabazten du ekonomikoki hondoan dagoen Pablo Artolak; jauregitxo bat eta lagun egiteko androide bi erosiko ditu diru horrekin. Dena ondo doakio, bere emazte ohia hiltzen duten arte: bera da susmagarri nagusia. Baina ez bakararra. Gerora, nahastu egingo da kontua, lagun egiteko bi androideak susmagarrien zerrandan sartuko dituzte eta. Robotikaren logika apurtuko luke horrek, uste baita robotek ezin diotela minik egin gizakia-ri. Galdera bat sortzen da, beraz: nor da benetako hiltzailea? Liburuan dago erantzuna.



Juan Ignacio Montiano, lan berria eskuetan duela. IKER OÑATE

"GARRANTZITSUA DA ADIMEN ARTIFIZIALAZ HAUSNARTZEKO BITARTEKOAK ESKAINTZEA"

Adimen artifizialarekin jolastu duzu, orduan.

Uste dut geuregandik askorik bereiziko ez diren androideak izango ditugula etorkizunean. Geure buruari galdetu behar genioke androideek sentimenduak edota afekzioak dituzten egunean ze alde egongo den euren eta geure artean. Asko dago hausnartzeke. Liburuek jada badihardute horren inguruan. Eta ez dugu ahaztu behar liburuetan iragarrita zeuden gauza asko gertatu direla errealitatean.

Sortzaile guztiek izan ohi dute helburu bat...

Irakurlearen hausnarketa bultzatzea dut helburu, betiere, umorea erdigunean izanda. Finen, irakurlea entreteni dadin bitarteko dira nire liburuek; edo horretan saiatzen naiz, behintzat. Behin esan zidan editorial

batek ez zuela nire lana argitaratuko, entretenimendurako zelako. Orduan pentsatu nuen: zertarako dira liburuek? Nire ustez, irakurlea entretenitzeko. **Nabari da esperientzia?**

Duda barik. Ikusten duzu esaldi batek baino gehiago, liburu osoak harrapatu behar duela irakurlea; horretarako bitartekoak jartzen dituzu, beraz.

Eta bada aurrekoen aztarnarik lan berrian?

Bai. Nire omenalditxo egin gura izaten diet iraganeko lanei. Esaterako, Luis Garcia Otwenen oinordeko bat ageri da argitaratu berri dudana lanean. *El cadaver de porqueriza* liburuko polizia zen Garcia Otwen –nire lehen liburua izan zen hura, 1995ean argitaratutakoa–. Idazlearen unibertsoaren barnean egiten diren jolasak dira horiek. **Argitaratu ostean aurkezpen birari ekin behar, ezta?**

Hala da. Oraindik, guztiz zehaztu barik dugu bira. Esan dezaket Euskal Herriko hainbat hiriburuan izango naizela. Eta Madrilen ere izango da aurkezpenik –bertakoa da editoriala–. Bitartean, aurkezpen hitzorduetan eskura daiteke liburua.

Txistulari bandak kontzertua eskainiko du zapatuan

Arrasate musikaleko txistulari bandak iragarria du hurrengo emanaldia: herriko parrokiako aterpean jardungo du bihar, zapatua, 12:00etan hasita. Horrez gain, hiru ekintza gehiago antolatu dituzte Arrasate musikalekoek osterako. Hain zuzen, martxoaren 23an emango diote bukaera hilabeteari, hiruhileko amaierako kontzertuarekin.

Maidar Alzelai ipuin kontalariaren saioak, 5 urtetik gorakoentzat

Maidar Alzelai ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu datozen asteetan. Kulturaten izango da horietan lehena, martxoaren 14an, 18:00etan hasita. Eta Santa Marinako auzo bibliotekan finkatu dute hurrengo hitzordua; saio horrek ere 18:00etan du hasiera ordua. Esan beharrekoa da 5 urtetik gorakoentzat saioak direla.

Zinegoak egitasmoak utzitakoa ikusgai dago Kulturaten

Hedapen programan murgildurik da Zinegoak –Bilboko LGTBI zinema jaialdia–. Eta, tartean, Arrasaten izango da bertako zenbait ikus-entzunezko ikusteko aukera. Hain zuzen ere, martxoaren 14rako finkatu dute hitzordua; 19:00etan hasiko da saioa. Kulturateko areto nagusian eskainiko dituzte ikus-entzunezkoak, doan.

Etxean jokatu du Kanpazar Arrasate taldeak, bihar

Etxean du hurrengo hitzordua Arrasateko errugbi taldeak. Ez dute nolanhako partidua: Garibai Goierrri Ordizia taldea izango dute aurrean. Bigarren postuan dira horiek; zazpigarrenean, arrasatearrak –hamar talde daude–. Hain zuzen, zapatuan dute partidua, Mojategin, 17:30ean hasita. Aurreikuspenak hautsi guran dira Arrasatekoak.

Atzeko postuetatik ihes egin gura du Mondratek

Mondrate areto futbol taldeak partidua garrantzitsua du asteburuan, irabazi beharrekoa, atzeko postuetatik ihes egin gura badu, behintzat. Bihar du partidua, Gora Bilbao Redblue taldearen kontra, 20:30ean hasita; Bilboko Abusu kiroldegian jokatu dute. Gaur-gaurkoz, bederatzigarren postuan da Mondrate –hamabi talde daude–.

Jonathan Perez Espainiako txapelketa da M-35 kategorian

Jonathan Perez pertika jauzilari arrasatearrak bere egin zuen Espainiako txapelketa –35 urtez azpikoen kategorian–. Aurreko asteburuan zuen kirol proba Salamancan, eta 4,73 metroko markarekin lortu zuen garaipena; aurreko urtekoa 11 zentimetro hobetu zuen, horrenbestez. Bukatuta, inguruak eskertu gura izan zituen Perezek.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketen teknika eta oihiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13



KANTARI
OÑATIKO NESKA-
MUTIKOAK KANTUAN
ETA DANTZAN. 9:30
ETA 16:30.
ASTEBURUA



OSOKO BILKURA
ARRASATEN,
MARTITZENEAN
EGINDAKO OSOKO
BILKURA OSORIK,
ZAPATUAN (19:00) ETA
DOMEKAN (22:15)
ASTEBURUA



HARIRA
BERGARAKO UDALEKO
ORDEZKARIEKIN
EZTABAIDA SAIOA.
21:00 ETA 23:30.
MARTITZENA



HURRETIK
AITOR MONTES
MEDIKUAREKIN
SOLASEAN. 21:00
ETA 23:00
EGUAZTENA



ELIKATU
NAIARA URIARTEK
ERREZETA
OSASUNGARRIAK
ZELAN EGIN
ERAKUTSIKO DIGU.
21:00
EGUBAKOITZA



**HEMEN
DEBAGOIENA**
DEBAGOIENEN
GERTAERAK ETA
PERTSONAK
PROTAGONISTA
DITUEN SAIOA.
18:00/20:00/22:00.
EGUNERO



HARMAILATIK
DEBAGOIENEN KIROLA
ETA KIROLARIAK
PROTAGONISTA. 21:30
ETA 23:30.
ASTELEHENA



GALDEGAZTE
IMANOL AGIRRETXE,
FUTBOL JOKALARIARI
ELKARRIZKETA
OÑATIKO INSTITUTUKO
IKASLEEK. 21:30.
EGUAZTENA



**ERREPORTAJE
BEREZIAK**
"HURA ZEN URKULU"
ERREPORTAJEA. UR
AZPIAN GERATU ZIREN
ISTORIOAK GOGORATZEN.
21:30 ETA 23:30.
EGUENA



AMAIA DJ
GAZTEEK HAIK
ESKATUTAKO
BIDEOKLIPEZ
OSATUTAKO SAIOA.
21:30 ETA 23:30
EGUBAKOITZA



goiena

Zu hemen zaude.



Eguaztenean egin zuten lehen bilera, osoko bilkuren aretoan. ENEKO AZURMENDI

Euskaraldiaren trenak hartu du Aramaio ere

Eguaztenean egin dute Aramaion Euskaraldia ekimena martxan jartzeko lehen bilera, udaletxeko osoko bilkuren aretoan; lehenik eta behin, talde dinamizatzaile bat sortzea adostu dute bertaratutakoek, eta apirilaren 11rako zehaztu dute hurrengo bilera

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Aramaio ere bat egingo du Euskaraldiarekin. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den Euskal Herri mailako ekimena da Euskaraldia, hamaika egunez euskaraz jardutea helburu duena. Euskara Batzordeak hala erabakita, herritarrei ekimenaren nondik norakoak azaldu dizkiete Lierni Altuna alkateak eta Rosa Mondragonek, Euskara teknikariak, eta Aramaion ekimenarekin nola bat egin adosten hasteko lehen urratsak egin dituzte lehen bilera horretan. Hamar bat lagun elkartu dira. "Lehenengo bilera izateko, kopuru polita da", adierazi du Altunak.

Euskararen jakintzari eta erabilerari dagokionez, zehaztu du %84 inguruko jakintza dagoela Aramaion, eta %63ko erabilera. "Hor tarte handi samarra dago. Euskara hizkuntza kolonizatu bat da eta etengabeko kontzientziazioa eskatzen du. Alde horretatik, Euskal Herri mailako

ekimen hau, instituzio ezberdinek inplikaturik egonik, interesgarria iruditzen zaigu", dio.

Aste honetakoa lehen urratsa izan da, baina ekimena gauzatu den arte, lan handia dago egiteko oraindik. "Honek eskatzen duena da herri mailako eragile ezberdinen parte-hartzea eta aliantzak sortzea ahalik eta talde eta norbanako gehienekin".

Talde dinamizatzailea

Ekimenarekin bat egin ostean, nola gauzatu erabakitzea izan da hurrengo urratsa. Horretarako, talde dinamizatzaile finko bat sortzea adostu dute. "Behin taldea sortu eta indartzen dugunean, kronograma bat egin

EKIMENAREKIN BAT EGIN OSTEAN, NOLA GAUZATU ERABAKITZEA DA HURRENGO URRATSA

beharko dugu", dio Altunak. Orain hasita, udaberriaren ekimena herrira egokitzea izango da lehentasuna, eta udazkenarako lanak bideratzea.

Apirilaren 11n egingo dute hurrengo bilera, eta ordurako ideia berriak eramatea eta herritar ezberdinen inplikazioa sustatzea adostu dute. Altunak herritar guztiei dei egin die ekimenean parte hartzeko. "Hau herri mugimenduaren bitartez eraman beharko dugu aurrera".

Hainbat proposamen

Euskaraldia gauzatzeko hainbat proposamen ere atera dira mahai gainera. Esaterako, herritar ezberdinak batuko dituen ekitaldi bat. "Ekintza ezberdinak egitea izango litzateke asmoa, rolak aldatuta eta jendea gauza berriak egitera animatuz. Guztia euskaraz, noski", azaldu du Mondragonek. Bestalde antzerki-karaoke bat egiteko proposamena ere egin du herritar batek, "antzezlan ezberdinekin".

Lan eskaintzak daude Gorbeialdeko Kuadrillan

Hiru lan eskaintza desberdin daude: Bitoriano herriko Izarra tabernak zerbitzaria behar du (Juanra, 680 400 864); Murgiako Purisima Concepcion egoitzak lau zaintzaile eta garbitzaile bat behar ditu (administración@residenciapurisima.com); Apodakako ARME auto tailerrak mekanikaria behar du (Miguel Angel Forcada, 945 46 00 13).

Herritarren ekarpena gura du Udalak San Martin jaietarako

Aurten ere herritarren ekarpenak jaso nahi ditu Udalak San Martin jaiek antolatzen. Horretarako, iazko egitaraua oinarritzat hartuta, Udalak inkesta bat betetzera animatu gura ditu herritarrek Aramaio.eus webgunean dago inkestaren lotura.

Hilaren 21a baino lehen bete beharko da, eta helbide elektronikoa jartzea eskatu du Udalak.

Finaleko bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko

Martxoaren 17an jokatu da Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren finala, eta bazkarirako txartelak salgai daude. Horretarako, 675 70 79 71 telefonora deitu edo araba.sustapena@bertsozale.eus helbidera idatzi beharko da, martxoaren 14a baino lehen. Bazkideek eta 6-16 urte bitartekoek 12 euro ordainduko dute; gainontzekoek, 15.

Asturiasera irteera egingo dute erretiratuek ekainean

Sei eguneko bidaiaria antolatu du Jubilatuen Elkarteak, ekainaren 10etik 15era.

Oviedo, Lazones, Lastres, Covadonga, Cangas de Onís, Ribadesella, Katedralen Hondartza, Ribadeo, Luanca, Cudillero, Villaviciosa, Cuenca del Nalon, Cabo de Peñas, Luanca, Candas eta Gijon bisitatuko dituzte bidaiaria horretan.



NIRE USTEZ

SABIN ARANBURU

Martxoaren 3a

Denok dakigu zer gertatu zen 1976ko martxoaren 3an. Bi hilabete luzez greban aritu ziren langileen mugimendua eten zen egun gisa identifikatzen dezakegu, hildako bost langile eta ehunka zauritu utzi zituen.

Geroztik, urtero egiten den manifestazio bakarrera mugatzen da gertakari hauek oroitzeko tartea, memoria historiko lausotu baten praktikan.

Aurreko mendean zehar langile mugimenduen borrokak oinarritzeko identifikazioa zuen: dominazio klasista oinarritzen duen kapitalaren sistema hau iraultzea. Gaur, berriz, soilik egungo estatusa erreformatzearen –pixka bat aldatzea– aldeko lanketa burutzen da ezker mugimendutik, eta martxoaren 3aren oroimena eraginik gabeko ekitaldi publiko batera murrizten da.

Martxoaren 3a langileen borroka elikatzen duen oroimen eguna izan behar da. Baina nahitaez urteko beste egun guztietan ere klase borrokan murgilduriko errealitatean eragiteko kondizioak landu behar dira, hau baita erailak omentzeko formarik zintzoena: beraien borrokan oinarritzeko identifikazioa berrartzea.

395 euroko prezioa du bidaiak pertsona bakoitzeko, eta martxoaren 22a baino lehen egin beharko da ordainketa.

Epeka ordaintzeko aukera ere egongo da: 100 euro martxoaren 22a baino lehen; 150 euro apirilaren 19a baino lehen; eta 145 euro maiatzaren 10a baino lehen. Bestalde, 125 euroko gehigarri indibiduala hartzeko aukera ere egongo da, eta hori apirilaren 19a baino lehen ordaindu beharko da. Gehienez, 55 pertsonarendako lekua dago.

Urak estali zituen istorioak bistaratzeko

Loramendik eta Goienak elkarlanean egindako 'Hura zen Urkulu' dokumentala aurkeztuko dute eguaztenean, martxoaren 14n, Arkupen; Goroeta auzo inguruko bizimoduaren berri jaso dute, hango bizilagunen testigantzetan oinarrituta

Mirari Altube ARETXABALETA

Goroeta auzoko hamar baserri eta Aozaratzako bost geratu ziren ur azpian Urkulu urtegia eraiki zenean, orain dela 40 urte inguru, baita inguru hartako soro eta zelai asko ere. Eta istorio mordo utzi zituen isilpean. Hainbat lekuko gidari hartuta, urtegia eraiki aurreko bizimoduak, jaiak, eskola kontuak eta beste hainbat pasadizo eta bizipen jaso dituzte *Hura zen Urkulu* dokumentalean, Loramendi Elkartek eta Goienak elkarlanean jardunda. Datorren eguaztenean, martxoaren 14an, aurkeztuko dute hori Arkupen (19:00). Dokumental horretan jasotako argazki zaharrek eta beste hainbatekin erakusketa jarriko dute egun horretan. Martxoaren 14tik Aste Santura bitartean izango dira ikusgai argazki horiek udaletxe zaharreko sarreran.

Toponimia taldea, sustatzaile

Loramendi elkarteko toponimia taldearen ekimena izan da dokumentala egitea: "Bertako leku izenak aurkitze eta pilatze lanetan genbiltzala konturatu ginen Urkuluko urtegiak izen mordo galarazi dituela. Izenak bakarrik ez, hango bizimodu, historia eta beste hainbat kontu ere ezkutatu zituen; eta hori nola jaso? Testigantzekin", dio taldeko kide Julen Abasolok, eta gaineratu du: "Baina hori ere gutxi irizita, dokumental baten jasotzea pentsatu dugu, aretxabaletarrei erakusteko. Azken baten, Urkulu hura zela erakutsi gura dugu". Goiena telebistarekin elkarlanean jardun dute Loramendiko kideek, eta Mondragon Assemblyren laguntza jaso dute horretarako.

Bost lekuko, hamaika istorio

Andoni Uribebebarriak, Puri Altubek, Mari Tere Uribebebarriak, Bizente Zubiak eta Esther



Urkulu urtegi ingurua eta urrunean Goroeta auzoa. JAGOBA DOMINGO

Goikoleak –batzuk Goroeta auzoan bizi direnak eta beste batzuk bizi izandakoak– jardun dute kontu-kontari kamera aurrean, eta gogora ekarri dituzte desagertutako baserrien eta parajeen izenak, Urkulu errotaren jarduna,

umetako kontuak, pasadizo xelebreak eta beste hainbeste kontu eta bizipen. Urtegiko eta Goroetako irudiekin osatu dituzte jasotako lekukotzak, eta argazki zaharrak ere erabili dituzte osagarri.



Bizilagunen testigantzak jasotzen Goroetako eskolan. MIRARI ALTUBE

Eguenean Goiena telebistan

Hainbat hilabetetan jardun du Goiena telebistak grabaketak egiten bost lekukorekin; zenbait baserriean, Goroeta auzoan bertan eta urtegi inguruan egin dituzte. Dokumentala eguenean, martxoaren 15ean, emango dute Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.



Joseba Beristain eta Gema Mancebo hitzarmena sinatzen. AMAIA TXINTXURRETA

Lankidetzaren hitzarmena ALEren eta Fagor Industrialen artean

Ikasleen praktikan oinarrituta dago eta elkarlan esparru egonkorra ezartzea da horren helburua

Amia Txintxurreta ARETXABALETA

Aretxabaletako Lanbide Eskolak eta Oñatin egoitza duen Fagor Industrialek lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Aurrera begira lankidetzaren esparru egonkorra ezartzeko helburuarekin elkartu ziren martitzenean bi erakundeetako ordezkariak, ALEko zuzendari Joseba Beristain eta kooperatibako pertsonaleko zuzendari Gema Mancebo.

Hitzarmenaren nondik norakoak berri eman zuen Beristainek: "Batez ere, ikasleen praktikan oinarrituko da hitzarmena; formazio duala landuko da, lan praktikak landuko dira. Baita ere ikasleen praktikan hain beharrezkoak diren baliabide eta ekipamenduak askotan ikastetxean eskura ez ditugunak, Fagor Industrialen bitartez eskuratu ahal izango dira, eta horiek ikasleen formazioan gehigarri bat ekarriko dute".

Esperientzia positiboa

Iazko ikasturtean, esaterako, Aretxabaletako Lanbide Eskolan erdi mailako zikloak ikasi zizuten bi ikasle izan ziren Fagor Industrialen lan praktikak egiten, eta beste bat dual trebakuntzaren bitartez. Aurten, berriz, erdi mailako ziklo bat egin duen ikasle bat izango da lan praktikatan, eta beste bi dual formazioan ibiliko dira.

Aurreko esperientzien gainean pozik agertu da Mancebo: "Gure esperientzia beti izan da ona. Guk, gutxi gorabehera, 80 pertsona dauzkagu soldadore lanpostuetan, eta urtero ikasleak praktikak egitera ekartzea oso baliagarria da. Askotan, gainera, praktikak bukatutakoan kontratuak izaten dira". Gaineratu du bailaran soldadore gutxi dardela, eta, horregatik, oso garrantzitsua dela ikastetxearekin harreman zuzena izatea.

'Una bolsa de canicas' eta 'Jumanji' filmak aste bukaeran

Helduek *Una bolsa de canicas* filma (Frantzia, 2017, 110 minutu) izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). II. Mundu Gerran Frantzia bizi diren bi anaia judutarren istorioa jaso du Christian Duguay zuzendariak. Umeek *Jumanji* (Ameriketako Estatu Batuak, 2017, 119 minutu) izango dute bihar eta etzi (17:00).

Telefono mugikorrek erabiltzen ikasteko saioa KZGunean

Markole auzoan egoitza duen KZGuneak hainbat ikastaro gertatu ditu martxorako; horien artean dago smartphoneak eta tabletak zelan erabili ikasteko trebakuntza saioa (14 ordu). Hilaren 19an, astelehenean, hasiko dute, eta izena aurrez eman beharra dago; hona hemen bidetako: tutor.aretxabaleta@kzgunea.net eta 943-02 36 14.

"Akuilu lana egitea dagokigu feministoi"

LURDES LLODIO ETA LARRAITZ ARANDO ARETXABALETAKO TALDE FEMINISTA
Pozik daude Martxoaren 8ak eman duenarekin, eta aurrera begira lanean jarraitzeko gertu; era berean, taldearen ateak zabalik dituztela esan dute

Mirari Altube ARETXABAETA

Emakumeok planto! leloa aldarri hartuta herrian ere ekitaldi asko egin dira egunotan. Aurten, gainera, Udalak eta Aretxabaletako Talde Feministak elkarlanean jardun dute, UDAREN laguntzarekin. Eta "pozik" daude egunaren bueltan sortutako giroarekin. **Martxoaren 8a pasatu da; zer dator orain?**

L. Llodio: Lanean jarraituko dugu ekainaren 28ari begira. Izan ere, LGTBI+ kolektiboaren sexu askatasunaren eskualdeko aldarrikapen eguna Aretxabaletan egingo da aurten.

L. Arando: Atzera begira ere jarri gurako nuke nik. Orain arteko Martxoaren 8ak sinbolikoak izan dira: agerraldietara joan izan gara, pegatina jarri paparrean, eta listo, etxera. Oraingo honetan eztabaida sakonagoak egin direla esango nuke, eta beste batzuetan iritsi ez garen esparruetara iritsi garelara: zaintza arlora, etxe barrura... Era berean, kontziente gara oraindik ez garelara iritsi lan baldintza okerreren dauden horien inguruan; emakume etorkinengana, esaterako. Halako greba bat egin den lehenengo urtea izanik, kosta egin da ulertzea arrakasta ez dela neurtzen itxi den lantoki kopuruarekin, ezkutuan dauden



Lurdes Llodio eta Larraitz Arando. MIRARI ALTUBE

lan horiek ikustera emanda baikizik: etxeko lanak, zaintzak... Eta eztabaida etxe barruan, kuadriletan, lantokietan sortu izana arrakasta itzela da.

Kontu honen antolaketak herriko talde feminista indartu egin du?

L.L.: Zortzi-hamarren bat lagun elkartu gara azken asteotan, eta indartsu jardun dugu lanean.


L.A.: Ekitaldi puntaletarako sare handia dago gurean eta asko elkartu izan gara. Baina egia da egunerokoari begira aktibatu egin gaituela Martxoaren 8ak. Gainera, debagoiend-

rion artean harremana estutu egin da, eta hori benetan polita izan da.

L.L.: Eskualdekoen artean egingo dako lehen bileran 44 bat emakume elkartu ginen; asko da! **Berdintasunari dagokionez, zelan dago Aretxabaleta?**

L.L.: Bikoteen artean egongo dira laguntzen duten gizonetakoak, seguru, baina ez dakit konturatzaren diren laguntza hori ez dela erdia egitea. Hor dago gakoa.

L.A.: Ez dago batere ondo kontua. Adibide batzuk: plazan mutikoak futboleko ibiltzen dira eta gai-



Borobiltzeko, bi hitzaldi gaur

Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak bukatzeko, bi hitzaldi izango dira gaur. Ainhoa Caberok aztertuko du emakumearen irudia artearen historian –Arkupe, 18:00– eta Edurne Epeldek maitasun erromantikoa –udaletxe zaharra, 18:00–.

nerakook, pasatzeko beldurrez; ikastetxeetako patioetako panoramak; lagunarteko zein familiarterako bazkarietan umeen arduradunak; edadetuen kargu egiten direnak –nahiz eta gero eta gehiago ikusi–; kirol arloan, lan munduan... Norberak daki etxe barruan zer duen, baina guztiok dugu zer egingo eta zer irabazia.

Eta zeinek eragin behar du?

L.L.: Nik uste dut nork bere etxean duela zeregina.

L.A.: Eta, mugimendu feministatik, akuilu lana egitea dagokigu, zirikatzeari. Hausnarketa-gune batzuk eta tresna batzuk eskaintzea ere badagokigu, gero etxean lantzeko, adibidez. Ernaik, esate baterako, maitasun erromantikoren gaineko tailerra antolatu du gaurko, erakusteko beste eredu batzuk posible direla.

L.L.: Eta indarkeria ere hor dago, derrigorrean heldu beharreko kontua.

Gazteak zelan datoz atzetik?

L.A.: Beste kontzientzia batekin datoz, eta eurekin lan egitea benetan atsegina eta pozgarria da. Esango nuke mugimendu feminista orain dela hamar urte baino askoz indartsuagoa dela gurean.

Zuen taldeko ateak zabalik dituzue?

L.L.: Bai, horixe. Ilargi plazan dugu egoitza, eta astean behin elkartu izan gara; baina gutako edozeinengana jo dezakete internetatik, eta proposamenak egin.

"MARTXOAREN 8AREN BUELTAKO KONTUEK AKTIBATU EGIN GAITUZTE EGUNEROKO LANARI BEGIRA"

Guraso Eskola antolatu dute, bidelagun izateko asmoarekin

Hainbat gairen gaineko lau saio egingo dituzte apirillean eta maiatzean, Ardatz Formazio Zentroak gidatuta

M.A. ARETXABAETA

Etxean nerabeak, hau da, 12 eta 17 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoen beharrak antzemanda, Guraso Eskola antolatu du Guraso Foroak – Arizmendi ikastolako gurasoak,

Gurabarri guraso elkarteak, Batera guraso elkarteak, Kukumiku elkarteak, Pausoka guraso elkarteak eta Udala–.

Zer egingo dut nik orain? izena jarri diote, ardura eta kezka askoko garaia izaten delako

nerabearoa askorendako: "Guraso izateak egoera eta esperientzia berrietara egokitzea eskatzen digu gure seme-alaben bizitza fase guztietan, eta, sarritan, nola jokatu asmatu ezinda ibiltzen gara", adierazi dute Guraso Foroak kideek, eta, hain zuzen, hori jakinik, hau gaineratu dute: "Guraso Eskolak eginkizun horretan bidelagun izan nahi du aretxabaletarrendako, eta, horretarako, hainbat baliabide jarri gura ditu gurasoen eskura".

Lau trebakuntza saio proposatu dituzte, eta, besteak beste, honako gai hauei helduko diete: familia sistema gisa lantzea; arauak, rolak, jarrerak, mugak, komunikazioa hobetzeko jarrabideak, gatazken ebazpenak... Eta saio horietan gidari lanak egingo dituzte Arrasateko Ardatz Formazio Zentroko adituek.

Izen-emate epea

Lau martitzenetan dira saioak –debalde–; hona hemen egunak: apirilaren 10a, 17a eta 24a eta

maiatzaren 8a. Guztiak udaletxeko ganbaran izango dira, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Izena emateko epea martxoaren 13an, martitzena, zabalduko dute, eta derrigorrean lau egunetarako eman behar dela iragarri dute antolatzaileek. Horretarako, Arkupe kultura etxeko harrerara joan behar da, edo Gazteria Zerbitzura: gazteria@aretxabaleta.eus helbidean eta 943-08 10 01 telefonoan. Azkeneko eguna martxoaren 27a da.



Brahim Salem, Euskadiko sahararren ordezkariak kidea, Sahara bidaliko dituzten arropa eta objektuekin. AMAIA TXINTXURRETA

Kiroldegian galdutako arropak, Sahara

Ibarra kiroldegian galdutako arropa eta bestelako objektuak Tindufeko kanpamentuetara bidaltzen hasi dira Aretxabaletan. Batutakoa sailkatu, eta errefuxiatuei bidaltzen diete; balio ez duena, berriz, edukiontzi zurira botatzen dute

Imanol Beloki ARETXABALETA

Kiroldegietan sarri uzten dituzte erabiltzaileek arropa edota bestelako objektuak, ahaztuta, eta Aretxabaletako Ibarren, esaterako, hilerok betetzen da poltsa handi bat halakoekin. Duela gutxi, baina, irtenbide bat eman diote arazoari: Saharako kanpamentuetara bidaltzen hasi dira errefuxiatuendako egokiak diren arropa eta objektuak.

Kiroldegiko erabiltzaileek ahaztutako edo galdutako arropa eta objektuak harreran uzten dituzte bertako langileek edo erabiltzaileek, saski ezberdinetan gordeta, eta, daturik ez egon arren, hilerok, pilatxo handia batzen dute. Ibarra kiroldegiko koordinatzaile Iñigo Murgiondoren esanetan, euren pertzepzioa da asko ez direla harrerara joaten galdutako objektuen

bila. "Maiztasun finkorik ez dugun arren, hilabetero zakarrontzi-poltsa handi bat betetzen da Ibarra kiroldegian galdutako objektuekin: oinetakoekin, kamisetekin, bainujantziekin, igeri egiteko betaurrekoekin, jertseekin, txamarrekin, eta abarrekin. Eta aparteko objektuak ere agertzen dira. Gure pertzepzioa da galdutako elementu asko agertzen direla ki-

roldegian, eta gutxi batzuk bila etorri arren, gertatzen zaigu askok ez dituztela hemen galdu, eta guk ez ditugula, edo, beste barik, ez direla etortzen guregana horien bila".

Prozedura berria martxan

Ibarra kiroldegiko langile guttien artean bilera orokorra egin zuten pasa den astean, eta, galdutako objektuekin gertatzen denari erantzun hobea emateko, taula bat betetzeko eskatuko diote objektua aurkitu duen erabiltzaileari edo kiroldegiko langileari; zein egunetan, zein ordutan eta zer aurkitu duen apuntatu dezan. "Modu horretan, norbaitek zerbait aurkitzen duenean edo zerbait galdu duela esaten duenean, dena ongi apuntatuta badaukagu, hobeto funtzionatuko dugu. Ez dadin gertatu 'nire txamarra da', eta gero 'ez da nirea, beste batena zen...".

Irtenbidea, Sahara bidaltzea

Arropa eta objektuak hilabeterik gora egoten badira kiroldegian, Brahim Salem-ek, Euskadiko sahararren ordezkariak kidea eta Ibarra kiroldegiko garbitzaileak, batu eta gorde egiten ditu bere garajeetan, Saharako kanpamentuetara bidaltzeko. Hauxe adierazi du Salemek: "Dohaintza bezala hartzen ditugu, sahararrei Tindufeko kanpamentuetara bidaltzeko. Sailkatu egiten ditugu, eta errefuxiatuei baliagarriak izan ahal zaizkien gauzak gorde egiten ditugu, sahararren ordezkarietatik deitzen diguten arte, gero hara bidaltzeko. Ondoren, balio ez duena poltsatan sartzen dugu berriro eta edukiontzi zurira eramaten dugu, arropendako edukiontzira".

Dantza afrogaraiakide ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak

Aretxabaletako Jaiki elkarteak kideek gorputz kontzientziaren lanketa bideratzen laguntzen duten dantza afrogaraiakide ikastaroa antolatu dute.

Lau saio izango dira, guztira, zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara bitartean, hilean behin: martxoaren 17an, apirilaren 28an, maiatzaren 26an eta ekainaren 16an, hain zuzen ere. Arantza Iglesias Arbizu koreografo, dantzari eta irakasleak emango ditu eskolak, eta izena emateko 659 35 92 21 telefono zenbakira deitu edo jaikielkarta@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da. Saio solteetara edo lau saioetara joateko aukera eskaintzen du Jaiki elkarteak.

Gaur izango da Basotxo elkarteak erretiratuen batzarra

Basotxo elkarteak batzar nagusia egingo dute gaur; 16:00etan lehen deialdia eta 17:00etan bigarrena. 2017ari gainbegiratu egingo diote lehenengo, eta gero, 2018ko kudeaketa plana aurkeztuko dute.

Martxoaren 21ean, ostera, osasuna izango dute berbetarako gai elkartean bertan, 17:00etan. Botikak hartzerakoan norberak dituen erantzukizunen gainean hainbat kontu azalduko dituzte Clemente Domingo eta Goizane Mendizabal Aretxabaletako erizainek. Hain zuzen, zuzendaritza batzordeko kideek bazkide guztiak gonbidatu gura dituzte; hitzaldi interesgarria izango dela esan dute.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12 www.zenbaki.eus

30
1986-2016

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Iaz, San Pedro jaietako txupinazoa botatzen. GOIENA

Denboraz hasi dira herriko jaiak prestatzen

Astelehenean kultura etxean batu ziren herriko hainbat elkartetako ordezkariak, norbanakoak eta Udaleko ordezkariak, San Pedro jaiak prestatzen hasteko. Lanketarekin hasi berri, interesa dutenei hartu-emanean jartzeko eskatu die Udalak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako jai batzordea hasi da ekainaren 28tik uztailearen 1era izango diren San Pedro jaiak antolatzeko bilerak egiten. Aurtun, prestaketa lanak inoiz baino lehenago egitea erabaki dute. Hala, lehenengo bilera irekia astelehenean izan zen, kultura etxean, eta herriko hainbat elkartetako ordezkariak, norbanakoak eta udal ordezkariak batu ziren bertan, jaiei forma ematen hasteko.

Herritar guztiei deia

Adin guztietako jendea bildu gura dute herriko festetako jaigiroan; eta, horretarako, guztientzako ekintzak batzen dituen egitaraua prestatzen saiatzen dira bilera horietan. Kultura eta aisialdiarekin lotutako ekintzak; besteak beste, kontzertuak, danborrada, herri bazkaria eta askotariko ikuskizunak egoki prestatu nahi dituzte. Horretarako, herriko elkarte, eragile eta norbanakoak batu nahi di-

tuzte, adin guztietakoak, guztientzako gustuko egitaraua antolatzeko.

Lanketarekin hasi berri

Batez ere, programaren eta kontratazioen lerro nagusiak aztertu zituzten astelehenean, eta aurkeztutako proposamenak aztertu eta erabakiak hartzen joango dira denen artean, bilerak aurrera joan ahala. Horregatik, garrantzitsua izango da herriarren iritzia ezagutzea, eta bertara joateko dei egin du Udalak. Bertara joan ezin duenak baina ikuskizunen bat proposatu nahi duenak edo komentarioaren bat edo iradokizunen bat egin, posta elektronikoz edo Whatsapppe egin dezake. Posta

BILERETAN PARTE HARTU EZIN DUENAK IRADOKIZUNAK BIDALTZEKO AUKERA IZANGO DU

elektronikoa honako hau da: kultura@eskoriatza.eus da. Eta Whatsapp zenbakia, berriz, 650 49 51 66.

Elkarteen eskariak

Esate baterako, Eskoriatzako txosna batzordeko Mikel Letona izan zen jaiak antolatzeko batzarrean. Eta, hark adierazi zuenez, lehenengo bileran, egunez egun zer egingo den bakarrrik aipatzen da, zehaztasunetan askorik sartu barik. "Txosnagunerako kontzertuak erabakitzeko dugu oinarri guk bilera horietan. Hala ere, jaietako hitzordu guztien gainean ere ematen dugu iritzia. Musika taldeei aurrekontu bat eskatu behar zaie, eta Udaletik iazko antzeko diru kantitatea jasoko dugulakoan gaude. Gero, horrekin jokatu beharko dugu, ahalik eta karteldegi onena eta denentzat gustukoa izango dena osatzeko. Gure asmoa da ekainaren 29ari begira musika talde handi bat ekartzea".



Emakumeak, eguaztenean, Fernando Eskoriatza plazan. I.B

Emakumeek planto egin dute, eta hainbat ekintza antolatu

Emakumeen Nazioarteko Egunarekin bat egin dute Eskoriatzan, ekintzak eguaztenean hasita

I.B ESKORIATZA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, hainbat ekintza egin dituzte Eskoriatzan. Eguaztenean, motorrak berotzen joateko, amantalak, bata, buzoak, erratzak, trapuak... eraman zituzten Fernando Eskoriatza plazara, eta eskegi egin zituzten plaza dekoratuz. Horrekin batera, lapiko jotzea egin zuten plazan batu ziren emakumeek.

Udaleko emakumeek, planto

Atzoko, Martxoaren 8rako, deituta zeuden mobilizazioekin bat egitea erabaki zuten Udaleko

emakumeek, eta 11:00etatik 15:00etara bitartean ez zuten lanik egin. Lanuztea bai, baina ekintzak antolatu zituzten, eta, emakume guztiei dei eginda, egitarau ederra izan zuten. Goizean, emakumeak plazan elkar-tu eta musikarekin girotuta, kolore morea nagusitu zen bertan. Ondoren, kalejiran Intxaurtxuetako zubiraino jaitsi ziren, eta han, *Balkoitik begira planto* egin zuten. Arratsaldean, bestalde, elkarretaratzea izan zen, eta ondoren, *Frida* antzerkia ikusteko aukera izan zen Zaldibar antzokian.

Xabier Rey presoaren heriotza salatzeako kontzentrazioa

Xabier Rey *Antxo* presoaren heriotza salatzeako elkarretaratzea egingo dute gaur, Eskoriatzako Presoen Lagunek taldeak antolatuta, 19:00etan, Fernando Eskoriatza plazan. Era berean, Euskal Herriko beste hainbat herritan ere izan dira mobilizazioak.

Iruñekoa zen euskal preso, eta Andaluziako Puerto III espetxean hil zen, martitzenean, 38 urte zituela, Etxerat-ek baieztatu duenez. Xabier Rey Urmeneta *Antxo* 2008an atxilotu zuten, ETako kide izatea egotzita. Lehen graduan zegoen Andaluziako espetxean, etxetik 1.050 kilometrorra, 26 urteko espetxe-zigorra betetzen.

Autobusa Donostiara, pentsio publiko duinak eskatzeko

Martxoaren 17an Donostian izango den manifestaziora joateko autobusa antolatu du Eskoriatzako Olazar Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak, mobilizazioekin bat egiteko.

Donostiara edozein herritar joan daiteke, ez dago elkarteko kide, pentsiodun edo erretiratu izan beharrik, eta joaten diren guztien artean ordainduko da autobusa. Izena emateko azken eguna martxoaren 15a da, eta, horretarako, Olazar elkartearen bulegora joan beharko da, martitzenetan eta eguenetan, 11:00etatik 12:30era bitartean. Hain zuzen ere, elkarteko kideek zehaztuko dute irteera ordua aurrerago.



Urrestilla tabernan, herritar bat zerbait hartzen. IMANOL BELOKI

Pintxo-potea eguenetara bueltatu da Eskoriatzan

Martxoan sartu berri, Eskoriatzako erdiguneko taberna guztietan eguenetan egiten hasi dira pintxo-potea. San Pedro, Intxaurtxueta eta Aingeru Guarda pasealekuko tabernetan, berriz, lehen moduan, egubakoitzetan egiten jarraituko dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako pintxo-poteak hasiera ederra izan zuen, eta arrakastatsuak izaten ziren eguenak. Izan ere, herritarrek ohitura moduan hartu zuten eguen arratsaldeetan kalera irten, eta tabernaz taberna asteroko bueltatxo ematea. Haiekin batera, unibertsitateko ikasleak ere irteten ziren, eta, askotan, goizaldera arteko giro paregabea izaten zen.

Urteen poderioz, baina, herriko tabernetako giroa jaisten joan zen, eta hainbat aldaketa izan ziren. Taberna batzuek pintxo-potea eguenetan mantendu zuten; beste batzuk, aldiz, martitzenetan egitera pasa ziren eta beste batzuk martitzenetan eta eguenetan egiten hasi ziren. Hauxe adierazi du Urrestilla tabernako Leire Errastik: "Pintxo-potearekin sei-zazpi urte inguru edo daramatzagu, eta formula honek ez du funtzionatzen gaur egun, jendeak ohitura galdu du edo ez dakit zer gerta-

tzen den. Nire kasuan, bi urtez martitzenetan eta eguenetan egiten aritu naiz, baina martitzenetakoa kentzea erabaki dut".

Martitzenetan egiteko arrazoiak 2016ko Aratuste-martitzena ezkerro, pintxo-potea Eskoriatzan martitzenetan egin izan da hainbat tabernetan, eguenetan beharrean. Tabernari talde batek pintxo-potearen beherakada aztertu zuen, eta egunez aldatzea erabaki zuen. Aldaketa egitearen arrazoiak hainbat izan ziren: egubakoitzetako poteo giroa jaitsi egin zela eta astean zehar giro gutxi zegoela, besteak beste. Hala ere, erdiguneko tabernetan eguenetan soilik egingo da pintxo-potea hemendik aurrera.

ESKORIATZAKO ERDIGUNEKO TABERNA GUZTIETAN EGUNETAN EGINGO DUTE PINTXO-POTEA

Erdigunean, eguenetan

"Inkernu eta Hotela tabernetan izan diren aldaketak direla eta, martxotik aurrera pintxo-potea eguenetan bakarrik egitea erabaki dute, eta nik ere hala egingo dut Urrestillan. Akeita, Benta Motz Berri, Toki Alai, Alcazar eta Mirentxu tabernetan, esaterako, eguenetan egiten jarraituko dute pintxo-potea hasi zenetik, eta tabernen artean ez badugu ezer adostu ere, pintxo-potea egun ofiziala eguna izango da erdiguneko taberna guztietan".

Egubakoitzetan egiten jarraitu

San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako Compostela eta O'Dogherty tabernetan, bestalde, pintxo-potea hasi zenetik egubakoitzetan egin izan dute, eta hala mantenduko dute hemendik aurrera ere.

Aingeru Guarda pasealekuko Kokots tabernan ere egubakoitzetan egin izan da pintxo-potea hasi zenetik, eta hala jarraituko dute egiten.

Mendi Tour Film Festival-eko proiektzioak Zaldibar antzokian

Martxoaren 13an eta 15ean, arratsaldeko zazpietan hasita, hainbat film ikusteko aukera izango da

I.B ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuta, datorren martitzenean, martxoaren 13an, eta egunean, martxoaren 15ean, Mendi Tour Film Festival-eko hainbat ikusentzunezko ikusteko aukera izango da Zaldibar antzokian, 19:00etan.

Bilbao Mendi Film Festival-eko azken edizioako film on eta arrakastatsuenak proiektatuko dituzte Eskoriatzan bi egunez. Mendia, abenturako kirolak, kultura eta ingurumena ardatz dituzten filmak. Martxoaren

13an, *The Last Honey Hunte, Aurrera, The Frozen Road* eta *Safety Third* filmak ikusi ahal izango dira. Eta martxoaren 15ean, aldiz, *Where the Wild Things Play* eta *Dirtbag: The Legend of Fred Beckey*.

Sarrerak, kiroldegian

Proiektzioak ikustera joateko sarrerak hiru euroko kostua dute saioko, eta bi egunerako erosi nahi dituenak, berriz, bost eurotan lortu ditzake, alde arretik, Manuel Muñoz kiroldegian.



RUBEN TESTA

Enaitz Testa, bigarren

Enaitz eta Aratz Testa anaia motorzaleak BECecko Super Enduro Euskadiko Txapelketan izan ziren pasa den zapatuan, eta emaitza bikainak lortu zituzten. Enaitzek bigarren postua lortu zuen, eta lehenarengandik gutxira geratu zen, lasterkeretako bueltarik onena berak eginda. Aratz, berriz, bederatzigarren postuan sailkatu zen, lan ona eginda.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, herriko plazan

Arabako Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko autobusa izango da gaur, odol ateratzeak egiten, Fernando Eskoriatza plazan, 16:30etik 20:15ak arte.

Nortasun agiria derrigorrez eraman beharko da, eta 18 eta 65 urte artean izan behar dira odola emateko, 50 kilo baino gehiago pisatu behar da; hain

zuzen ere, gizonezkoek hiru hilean behin eman dezakete odola eta emakumezkoek, berriz, lau hilabete behin. Odola ematera doanak test formatuko galdera batzuk bete beharko ditu, medikuarekin kontsulta motz bat izan, eta ondoren, odola ematera pasatzen da.

Eskoriatzako odol emaleen elkarteak bertaratzeko dei egiten diete herritarrei, ohiko odol emaleak direnek eman dezaten eta odol emale berriak anima daitezten.

'Zutuberrak' saioa, Eskoriatzako oholtzara

Eidabe antzerki taldearen 'Zutuberrak' antzezlanak ikusteko aukera izango da domeka honetan Eskoriatzako Zaldibar antzokian. Familian ikusteko saioa 17:30ean hasiko da, eta sarrerak hiru eurotan erosi ahalko dira, aurrez, Manuel Muñoz kiroldegian

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zutuberrak lana ikusteko aukera izango da domeka honetan Eskoriatzako Zaldibar antzokian, 17:00etan. Galder Perezek zuzenduta, eta Olatz Pagalday eskoriatzarrak eta Jon Zubiaga *Oso-ron* arrasatearrak antzeztuta, alor ezberdinak uztartzen dituen lana da.

Eidabe antzerki taldearen lanak ordubeteko iraupena izango du, dibertigarria da, umorez betea; familian ikusteko antzez-lana. Hauxe adierazi du Olatz Pagaldayk, *Zutuberrak* antzezlanean protagonista: "Gabonetan, Bilbon estreinatu genuenetik hona, bailaran, Oñatin soilik izan gara, eta domeka honetan, berriz, Eskoriatzan ikusteko aukera izango da. Jendea gustura ikusten dugu saio guztietan, eta gu ere horrelaxe gaude. Azkenaldian, egokitzapenak egin dizkiogu antzezlantari, eta, agenda beteta daukagunez, hori seinale ona da".

Hizkuntzaren balioa

Zutuberrak lanean, hizkuntzaren balioa teknologiaren bidez kontatuko da. "Fikziozko leku baten gertatzen den istorioa kontatuko dugu, gertuko etorkizun batean, *Black Mirror* izeneko telesailaren antzera,



Olatz Pagalday eta Jon Zubiaga oholtzan, *Zutuberrak* lana antzezten. IMANOL SORIANO

modu batean esanda. Bi gazte jolasten hasten dira txip aukuraketa egitera; hau da, edertasunaren txipa, abiadurarena, indarrarena... aukeratuko du protagonista bakoitzak, eta jolasak egoera ezberdinetara eramango ditu; betiere, hizkuntza oinarri hartuta".

Puntako teknologiaz beteta, gizakiaren eta naturaren hain urrun dagoen giro batean, hizkuntzaren gainean hitz egiten da, ama-hizkuntzaren, euskararen, gainean. "Kontraste hori oso polita da".

Baliabideak

Antzeztokian hainbat pantaila jarrita, argiak erabiliko dituzte, eta teknologia aurrerakoi kutsuarekin beteko dute oholtza. Horrez gain, kantu ezagunen bertsioak egingo dituzte, eta bideoklip bat ere izango da, Maixa Mc Bilboko rap kantariak egindakoa.

Bailarako hurrengo saioak

Domekako saioaren ostean, *Zutuberrak* Arrasaten eta Antzuolan ere ikusteko aukera izango dela aurreratu du Pagaldayk.

Jasan taldea izango da gaur, 22:30ean, Inkernu tabernan

Eskoriatzako Jasan taldeak rock-metal doinuak ekarriko ditu gaur Inkernu tabernara. Ixak Sarasua, Garikoitz Barandiaran, Asier Mongelos eta Jokin Uribe txebarrria musikariek osatzen dute taldea, eta ikuskizun paregabea eskaintzeko asmoz igoko dira oholtzara. Kontzertua 22:30ean hasiko da, eta, talde gaztea den arren, abilezia handiko musika-

riak direla erakutsi dute 2015ean Oñatiko gaztelekuan eman zuten lehenengo kontzertutik hona.

Soloik solo izeneko maketari azken ukituak ematen ari dira. Abestiak grabatuta eta argazkiak aterata dituzte, eta diseinu lanak egin bezain pronto kaleratuko dute maketa. Gari Barandiaran musikari eskoriatzarrak adierazi duenez: "Maketako hainbat kantu joko ditugu, eta baita bertsio batzuk ere: Hertzainak taldearen *Prophezia* edo Metallica-ren *Fade to black*...".

Olazar Jubilatuko Elkarteak batzar orokorra egingo dute

Martxoaren 14an, eguaztenean, egingo du Olazar Jubilatuko Elkarteak batzar orokorra. 17:00etan izango da, eta bertan, hainbat puntu tratatuko dituzte: aurreko aktak irakurri eta onartzea, 2018ko kudeaketa plana, 2018ko kuota, lehendakariordea eta zuzendaritzako bi kide aukeratzea, altak eta bajak, besteak beste.

LEINTZ GATZAGA | 19



Aitor Larrañaga eta Juanito Bengoa gatzaren standean. GATZ MUSEOA

Gatza nola egiten den erakutsi dute gatzagarrek, BECen

Euskadiko Enogastronomia Museo eta Guneen Sareak antolatutako ekimenean izan ziren egubakoitzean gatzagarrik

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagarrik herrian ekoiztutako gatza eraman zuten pasa den egubakoitzean BECeko *Gustuko azokara*, eta Juanito Bengoa eta Aitor Larrañaga izan ziren bertan jarritako standean Leintz Gatzagako gatzaren azalpenak ematen.

Gerturatu zirenei, gatza nola egiten den erakutsi zieten, eta euren produktuak ere eraman zituzten probatu eta ikusteko. Hala, Leintz Gatzagako gatza ezagutarazteko aukera izan zuten, eta jendearen arreta piztu zutela adierazi du Juanito Ben-

goak, Leintz Gatzagako mendi zinegotziak.

Gatza nola egiten den erakusten

"Produktu ezberdinak ekoizten ditugun hainbatek elkarre bat dugu, eta denok batu ginen Ordizian bilera bat egiteko. Hala, bertan jaso genuen BECera joateko gonbidapena. Hiru eguneko ia izan da gastronomiaren inguruko ekimen hau, baina soilik egubakoitzean izan ginen. Gatzik ezin genuen saldu, baina gatza egiteko erakustaldia arrakastatsua izan zen, jendeak interesa jarri baitzuen".

Ekintza ugari antolatu dituzte Sorginak Emakume Elkarteak

Egueneko aldarrikapenez gain, zapatuan bazkaria egingo dute Soran Etxean, omenaldi eta guzti

I.B GATZAGA

Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Elkarteak Emakumeen Nazioarteko Egunarekin bat egin zuten atzo, eguena, eta zapatuak beste hainbat ekintza antolatu dituzte.

Eguenean, herriko txoko ezberdinetan zehar emakumeen argazkiak esekita agertu ziren Leintz Gatzagan, eta Gatzagako emakume asko Gasteizko manifestazioan izan ziren. Zapatuan, berriz, bazkaria egingo dute Soran Etxean, eta ondoren, AZ Gaubelak taldeko Ibai Zangituk

eta Mikel Alberdik musikaz girotuko dute bazkalosteak.

Matilde Arresek, 100 urte

Matilde Arresek 100 urte beteko ditu martxoaren 14an, eta omenaldia jasoko du zapatuan. Izan ere, Sorginak taldekoen bazkarian, bertso bat abestuko diote, eta lore sorta bat eta erretratu bat oparitu.

Zapatuko ospakizunaz gain, erretiratuek ere ospatuko dute Arreserekin batera, 100 urteak betetzen dituen egunean, martxoaren 14an, hain zuzen ere.

Etxeko lanen zama, herriko plazan ikusgai

Bi elkarretaratze eta sortu berria den emakume taldearen aurkezpena egin zituzten atzo, Martxoak 8, Elgetan. Egun osoko aldarrikapena izan zen; izan ere, izarak, arropak eta askotariko etxeko tresnak zintzilikatu zituzten udaletxeko balkoitik

Larraitz Zeberio ELGETA

Martxan da Elgetako emakume taldea, eta Martxoaren 8a aukeratu dute herritarren aurrean sorrera ekitaldia egiteko. Atzo iluntzeko elkarretaratzearen ostean eman zuten taldearen nondik norakoen berri, eta *trena* martxan jartzeko eguna zela iragarri zuten. Gauza asko daude oraindik finkatzeko, baina espazio bat sortu da, eta hasiera batean, behintzat, adin askotariko emakumeak elkartu ditu.

Bi elkarretaratze plazan

Elgetan bi elkarretaratze izan ziren atzo: bata 11:00etan eta bestea 19:00etan. Hainbat aldarrikapen egin zituzten, batez ere, iluntzeko kontzentrazioan. Musikarekin, poesiarekin eta antzerkiarekin jantzi zuten ekitaldia.

Plazako ekintzak amaitutakoan, zeramika gelan prestatutako erakusketa ireki zuen Udalak. Elgetako hainbat emakumeren



Elgetako emakume taldea, etxeko lantresnak udaletxeko balkoitik zintzilikatzen. L.Z.

ESKOLAKO UMEEK EGINDAKO TXAPAK BANATU ZITUZTEN ILUNTZEKO ELKARRETARATZEAN

zaletasunak eta lanak erakutsiko dira bertan domeka eguerdira arte.

Martxoaren 8arekin lotuta atzo herrian egindako ekintzen gaineko kronika zabalagoa *Goiena.eus* atarian izango da gaur.

"Memoria ez da neutroa, generoa du"

Feminismoarekin lotutako hitzaldia izan zen astelehenean Elgetan. Diktadura frankistarekin lotutako makina bat testigantza jaso du Intxorta 1937 kultur elkarteko Julia Mongek. 1976ko martxoaren 3arekin lotutako testigantzetan zentratu da gehiago Zuriñe Rodriguez Lara gasteiztarra. Belaunaldi desberdinetako emakumeak elkarriketatu dituzte, eta ezaugarri konkretu batzuk daudela adierazi dute. "Oso barneratuta dugu historia gizonen espazio publikoan bizi izandako hori dela", azaldu du Mongek. "Memoria ez da neutroa. Posizionatuta dago eta politikoa da", gaineratu du Rodriguez Larak.



Julia Monge eta Zuriñe Rodriguez Lara hitzaldia egiten. L.Z.

Yolanda Gonzalez, Pilar Berrena, Maite Elizondo eta Mertxe Gutierrez egin zituzten bere hitzaldiko protagonista gasteiztarak. "Martxoaren 3ko gertaeretan hartu zuten parte,

eta urte hauetan guztietan ez du inork emakume horiek zein beste batzuek bizi izandakoa jaso", adierazi zuen. "Zergatik? Autokritika egitea dagokio gizarte honi".

Lubakietan barik, herrigunean izango da aurten errekreazioa

Apirilaren 22rako iragarri dute Intxortako erresistentziari eskainitako eguna eta boluntarioak eskatu dituzte

L.Z. ELGETA

Elgetarrek apirilako laugarren domekan egingo dituzte aurten Intxortako erresistentzia gogoratzeko eta aldarrikatzeko ekintzak. "Aurten zerbait berria eskaini nahi dugu. Helburua da lubakietako borroketatik at gertatu zena ere aditzera ematea. Hau da, frontean egon ez zirenen ikuspegia eskaintzea, emakumeek bizi izandakoa kontatzea...", esan du Turismo teknikari Ainhoa Bernabek. Hala, herriko plaza eta Salvador kalera eroango dute errekreazioa. Sei pasarte motz antzeztuko dituzte. "Besteak beste, gudariaren ihesa, herria matxinatuaren esku geratu izana, eta herritarrek jasandako sarrikiak dira pasarte horietan antzeztuko direnak", esan du.

Boluntarioak eskatu dituzte aurten ere antzezlanetarako. "Iazko boluntario kopuru bera



Gerra garaiko pasarte antzeztua. L.Z.

behar dugu: 70-80 bat boluntario figurante egiteko —gudariak, falangistak, erreketek...— eta beste 20-25 bat lagun antzezlanetan parte hartzeko". Harremanetarako, turismoa@elgeta.eus helbidea eta 943 76 80 22 telefonoa eman dituzte.

Mendi irteera eta bazkaria domekako ibiltarien Jaian

Aurten ere Elgetan egingo du Ibiltarien Jaia Euskal Mendizale Federazioak. Urtero moduan, 25 kilometroko mendi irteera, sari banaketa eta bazkaria daude iragarrita. Mendizaleak 08:00etan abiatuko dira, kiroldegitik. Lerrook idazterakoan, 126 lagun zeuden izena emanda. Ibilbidea izango da: Elgeta, Intxorta, Erdella, Aixola, Egoar-

bitza, Azkonabitza eta Elgeta. Posible izango da egunean bertan izena ematea eta amaitutakoan dutxatzeko aukera izango da. Aurretik jakinarazten dutenendako, berriz, lo-lekua egongo da herrian. Bazkaria 14:30ean izango da eta Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien 16. zirkuituaren sari banaketa egingo dute aurretik. Bazkari-rako izen-ematea gaur amaitzen da. Argibideetarako, www.zirkuitua.com, turismoa@elgeta.eus edo 943 76 80 22.

Xalbadorpe elkarteko erretiratuek urteko batzarra dute gaur

Ozkarbi elkartean elkartuko dira, 17:30ean. "Ertortzeko eskatzen dizuegu, zuen parte hartzea garrantzitsua delako", esan die bazkideei zuzendaritzak. Bukar-ran pintxoak egongo direla gaineratu dute. Martxoko podologia zerbitzua, berriz, hilaren 15ean izango da. Txanda hartzeko, 943 76 80 77 telefono zenbakira deitu behar da.

OHARRAK

Tailerra liburutegian

Gaur, 17:00etatik 19:00etara, 5 urtetik gorakoendako ipuin kontalari tailerra. Familian egiteko saioa izango da.

Gaztetxeko bazkaria

Gazte Asanbladak jai berezia egingo du hilaren 17an; bazkari bat ere izango da. Prezioa hamar euro da. Izen-emateak, Haizea tabernan, hilaren 14a aurretik.

UDALEKUAK 2018



- Hizkuntza udalekuak
- Udaleku itxiak eta irekiak
- Udalekuen onurak
- Ikasi eta jolas egin



- Uztailean ikastaro berriak neska-mutilendako **astero (1, 2, 3 edo 4 aste)**.
- Gazte eta helduentzako ikastaroak: azterketen prestakuntza (Cambridge, Hizkuntza Eskola)...
- Goizez eta arratsaldez.
- Udako ikastaroak Edinburgon (Eskozian)

Jatorrizko irakasleak!



IDIOMASTER

**Informa
zaitez!**

Udalekuak, umeen gozagarri

Udaleku aukera zabala eskaintzen dute uda partean. Asko dira horrelako batean esku hartzeko ohitura barneratua duten neska-mutikoak. Eta, oro har, "pozik" joaten dira saioetara, lagunekin "gozaten" segitzeko gogoz

Ikasturtean zehar eginikoa atzean utzita, atsedenerako tartea hartzen dute neska-mutikoek udako oporretan. Eta ez nolana: euren begira erakitako udalekuak dituzte gozagarri. "Ondo pasatu" guran ematen dute izena umeek, baina udalekuak badute horrez aparte helbururik: heziketa. Hori lortu nahirik, nork bere erara finkatzen ditu ekintzak, nork bere lortu gurak ditu. Besteak beste, esan daitezke batzuek ingelesa irakatsi guran

diharduten bitartean, euskaraz gozarazteko ahaleginean dihardutela beste batzuek.

Horretarako, betiere, neska-mutikoek ondo pasa dezaten bitartekoak jartzen dituzte udalekuek. Eta umeen bertsioetan nabari da hori. Oro har, "oso pozik" joaten dira halako saioetara: "Ederra da lagunekin ondo pasatzeko tartea izatea. Ekintza asko egiten ditugu". Eta lagun berriak egiteko tarterik ere izaten dute, gainera.

Hain zuzen ere, Idiomaster, Parlance, Play & Say, Kids&Us, Mondragon Lingua eta Txatxilipurdi daude udalekuak antolatzen dituztenen artean. Eta horietan egon direnek bizitakoak ezagutu ditu GOIE-NAK. Bakoitzak, zelan ez, bere erara bizi izan du esperientzia; eta horretan zeresana du udalekuegan egindako ekintza motak. Esate baterako, egun osoko irteerak, gaubeilak eta tailerrak izaten dituzte umeek.



Uxue Atxa, pirata jantziarekin.

"Lagun berriak egin nituen"

Bergarako Play & Say-ren udaleku itxietan esku hartu zuen Uxue Atxak. Ez du erraz ahaztuko bertan bizitakoak: "Esperientzia polita izan zen. Lagun berriak egin nituen; eta oso ondo pasa genuen irakasleekin". Ekintza asko egiten zituzten egunean zehar, baina argi du zeintzuk izan zituen gustukoak: "Irteerak eta gaubeilak izan ziren ederrenak".

"Esperientzia aberasgarria da"

Urtean zehar hainbat jardunaldi antolatzen ditu Kids&Us-ek. Eta horietako batean esku hartu zuen Mhairi Ajuriak: Fun Week deiturikoan –Gabonetako oporretan egiten dute–. Ingelesa lantzeko aukera izan zuen bertan, hizkuntzarekin jolas egitekoa, alegia.

Eta akorduan gorderik ditu gustukoak izan zituen ekintzak: eskulanak, gosari propioa

erosteko eginiko azoka eta kurtsu bukaerako antzezlanak.

"Aberasgarria izan zen", dio.

Gainera, esperientzia ez zen jardun orduetara mugatu: "Oso pozik nabilen; eta, etxera helduan, egunean zehar izandako ekintzak eta jolasak azaltzen nizkien familiakoei". Gainera, gurasoek ere izan zuten ekintzaren batean parte hartzeko aukerarik.



Umeak esku lanetan, Kids & Us-ek antolatutako jardunaldietan.

txatxilipurdiko **udalEkuak** 2018 izen ematea: martxoaren 19tik maiatzaren 18ra.

udalEku REKIK UZTAILAK 2-20 2-12 urte Asteka edo hiru aste	Kosta da Kosta UZTAILAK 3-14 DBH 3-4 30 plaza	GOZUETA sailerria 450 plaza UZTAILAK 8-15 LH 4-5-6 25 plaza	ZINGRA ORJO UZTAILAK 1-10 DBH 1-2 30 plaza	ozaita UZTAILAK 1-10 DBH 1-2 30 plaza
--	---	---	--	---

NAFARROA ETORBIDEA 23 1 SOLAIRUA 20500 ARRASATE. TLF. 943 79 5446. www.txatxilipurdi.eus txatxilipurdi



Xabat Irizar.

"Oso jende jatorra dago"

Parlance ingeles akademiaren udalekuetan izan zen Xabat Irizar, eta adierazi du oso esperientzia polita izan zela. "Gustura aritu nintzen. Oso jende jatorra dago, eta lagun berriak egiteko ere balio dute udaleku hauek, ingelesa ikasteaz gain".

"Aurten ere joango gara"

Ugaitz eta Amets Korta anaiak Txatxilipurdiren udalekuetan izan ziren iaz. Ugaitzek 4 urte ditu eta iaz lehen aldia izan zen berarentzat. "Oso gustura aritu nintzen, pozik". Hori dela eta, aurten esperientzia errepikatuko duela aitortu du. "Uda iristeko gogoz nago, udalekuetara joateko", adierazi du.

Ametsek, berriz, 7 urte ditu eta hark ere onartu du "pozik" ibiltzen direla lagunartean. "Igerilekuetan eta erreketan bainatzen gara. Bero egiten duenean, gustura aritzen naiz uretan. Iaz, adibidez, Osintxura egin genuen irteera eta gaua pasatu genuen han. Esperientzia polita izan zen, errepikatzeko modukoa".



Ugaitz Korta –ezkerraldean– akademiako lagunekin.

"Modu errazean irakasten digute"

Irantzu eta Oxel Souto neba-arrebek Kids&Us akademiaren udalekuetan hartu zuten parte iaz. Irantzuk 7 urte ditu, eta "oso gustura" aritu zela dio. "Asko ikasten dugu, irakasleak onak dira eta lagunak egiten ditugu. Jolas ezberdinen bitartez, ingelesa ikasten dugu. Ingeleseko abestiak kantatzen eta dantzatzen ditugu".

Aurtengo udara begira, berriro izena emango duela aitortu du.

Oxelek 5 urte ditu. "Koloreak eta zenbakiak ikasten ditugu eta oso modu errazean irakasten dizkigute, jolasen bitartez", adierazi du. Oxelek ere onartu du "gogotsu" dagoela aurten berriro ere udalekuetan izena emateko.



Oxel eta Irantzu neba-arrebak.



Ikasleak lanean, Idiomaster akademian.

"Ikasteko modu erakargarria da"

Idiomaster akademiako ikasleak oso gustura daude Jai Skool udalekuek eskaintzen dietenarekin. "Ingelesa ikasteko modu erakargarria da. Arrasateko gauza interesgarriak ikasten ditugu jolas ezberdinen bidez. Kirol ezberdinak ere praktikatzeko ditugu".



PARLANCE
LANGUAGE SCHOOL

- Irakasle irlandarrak
- 4-10 urte bitarteko umeentzat
- Uztailaren 2tik 27ra
- Aste kopurua aukeran
- 08:00-10:00 Harrera zerbitzua (Aukeran)
- 10:00-13:00 Ingelesa eta jolasak

Informazio gehiago: Ferrerías kalea 26, behea • Tel.: 943 77 06 83
parlanceidiomas@gmail.com • www.parlance-idiomas.com





Haurrak jolasean.

Ingelesa modu dibertigarrian lantzeko

Bergaran dauden Play & Say hezkuntza zerbitzuek udaleku irekiak eta itxiak eta murgilketa programak antolatuko dituzte aurten ere. Ekintza dibertigarrien bidez, adinaren arabera, ingeleseko ahozko komunikazioa lantzea da helburu nagusia

Azkeneko urteotan egin duen moduan, udaleku irekiak, udaleku itxiak eta murgilketa programak eskainiko ditu Bergarako Play & Say enpresak udako hilabeteei begira.

Hain zuzen ere, 2 eta 12 urte arteko umeendako dira udaleku irekiak, eta aurtengo leloa izango da *Zatoz gurekin denboraren misterioari irtenbidea ematera!* Ekainean eta uztailean egingo dira, eta, Gipuzkoan, Bergaran, Legazpin eta Eibarren izango dira. Zaintza zerbitzua, gainera, barne izango dute, eta taldeak adinaren arabera eratuiko dituzte.

Programaren helburuak dira parte hartuko duten haurrendako ekintza dibertigarriak egitea eta ingeleseko ahozko komunikazioa lantzea. Besteak beste, jolas kooperatiboak, irteerak, tailerrak, psikomotrizitatea, abestiak, barre-terapia antzerkia, *master chef* edo sukaldaritza, eta abar izango dira. Programa osoa ingelesez izango da eta motibazio estrategiak erabiliko dituzte hizkuntzaren erabilera suspertzeko.

Udaleku itxiak, bestalde, Errioxan –Santo Domingo de La Calzada– eta Burgosen –Ezcaraytik oso gertu, Pradoluengon– izango dira. Errioxako udalekuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleendako dira eta Pradoluengokoak, berriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoendako (DBH).

Udaleku itxi horiei begira, adinaren arabera programak garatu dituzte, eta bertan, esperimentuak, jolasak, irteerak, tailerrak, kirolak, antzerkia, igerilekuko aktibitateak, gaubeilak, eta abar egin ahal izango dituzte gazteek. Irakasleen ama-hizkuntza, gainera, ingelese da.

Udalekuetan izena emateko eta informazio zabalagoa jasotzeko, www.playandsay.org webgunera jo behar da.

Harremanetan jartzeko

- Simon Arrieta plaza 2A (Bergara)
- 943 76 26 29
- www.playandsay.org

play & say

English Summer Camp Bergara

UDALEKU IREKIAK

- Ekainean eta uztailean.
- 2 eta 12 urte arteko umeendako -taldeak, adinaren arabera-.
- Goizez -zaintza zerbitzua barne-.
- Programa osoa ingelesez.

Ekintza dibertigarriak eginda ingelesezko ahozko komunikazioa landuko da -jolas kooperatiboak, irteerak, tailerrak, psikomotrizitatea, abestiak, barre-terapia...-.

UDALEKU ITXIAK

- Errioxan (Santo Domingo de la Calzada) LH6 ikasleendako.
 - Burgosen (Pradoluengon) DBHko ikasleendako.
 - Ama-hizkuntza ingelesa duten irakasleekin.
- Jolasak, tailerrak, kirolak, antzerkia, igerilekua, gaubeilak...

www.playandsay.org

Informazio gehiago: BERGARA Simon Arrieta enparantza 2A • Tel/Faxa: 943 76 26 29 • bergara@playandsay.org



Ikastea dibertigarria da Kids&Us-en eskutik

Ingelesa ikasteko eta ondo pasatzeko aukera paregabea eskaintzen du Kids&Us hezkuntza zerbitzuetako 'FunWeeks' ekimenak. Udaz gain, Aste Santuko eta Gabonetako oporraldietan ere eskaintzen dituzte hiri kanpaleku zerbitzuak

Ekintzaz betetako hiri-kanpalekuak eskainiko dituzte, beste behin, oporraldiei begira, Arrasaten egoitza duten Kids&Us hezkuntza zerbitzuek. Hain zuzen, *FunWeeks* ekimenarekin, ondo pasatzeko eta ingelesa behar bezala ikasteko, astero, tailerrak, dantzak, kantak eta bestelako ekintzak prestatu dituzte udara begira, eta baita Aste Santuko eta Gabonetako oporrei begira ere.

Aste bakoitzean, hizkuntza hobeto barneratzeko eta ikasteko, askotariko istorioez osatutako munduan murgilduko dira umeak. Horretarako, ingeles hutsez sortutako ekintzak

garatu dituzte Kids&Us-en. Horrela, jolasen, antzerkiaren, psikomotrizitate ariketen eta eskulanean bidez barneratzen dute ingelesa umeek.

Talde txikietan

3 eta 10 urte arteko haurrei bideratuta daude *FunWeeks* ekintzak, eta, gehienez, adinaren

arabera, hamarreko taldeetan banatzen dira, hezkuntza ahalik eta zuzenena izan dadin. Adin taldearen arabera egokitzen dira aktibitateak. Zehazki, 09:00etatik 13:00etara izaten dira, baina 08:30etik 13:30era laga eta hartu daitezke umeak, harrera zerbitzua dago eta.

Horrez gainera, ikaste prozesua ahalik eta naturalena izan dadin, Kids&Us-ek aktibitate gehiago eskaintzen ditu. Helburua da umeek era naturalean izatea kontaktua ingelesarekin, eta, horretarako, askotariko baliabideez jositako unibertso bat eskaintzen dute hezkuntza zerbitzuek.

Harremanetan jartzeko

- Euskal Herria plaza 13 (Arrasate).
- 943 05 15 46 / 656 74 05 78
- arrasate@kidsandus.es.



Umeak, Kids&Us-ek antolatutako tailer batean.



FUN WEEKS

HIRI-KANPAMENTUAK INGELESEZ

FROM 3 TO 10 YEARS OLD

Kids&Us Arrasate
Euskal Herria plaza 13 (Gelma eraikina)
20500 Arrasate
Tel.: 943 051 546 / 656 740 578
arrasate@kidsandus.es
www.kidsandus.es



Berrikuntzekin datoz Arrasateko udalekuak, 30. urteurrenean

Txatxilipurdik udaleku irekiak eta itxiak antolatuko ditu aurten ere, aisialdia eta autonomia oinarri hartuta

Uztailaren 2tik 20ra antolatuko ditu aurten udaleku irekiak Arrasaten Txatxilipurdik. 2 eta 12 urte bitartekoek hartu ahal izango dute parte eta hiru aste osorik edo asteka aukeratu daitezke horiek. Udaleku irekiek 30 urte beteko dituzte aurten, eta, urteurren hori ospatzeko, biserak eta kamisetak aterako ditu Txatxilipurdik. Gainera, ekintza berezi bat egingo da horrekin lotuta. Hori bakarrik

ez, *Txatxijaia* eta azken jaia ere egingo dituzte, beste urte batzuetan moduan.

Aurten, bestetik, 9 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako eskaintza berezia prestatu dute. Haiei egokitutako udalekuak prestatu dituzte, eta, astean bi egunez, egun osoko ekintza bat izango dute.

Udaleku itxiei dagokienez, 9-12 urte artekoendako astebeteko egonaldia egiteko aukera eskai-

niko du elkarteak Goizuetan uztailaren 8tik 15era. Adinez apur bat nagusiagoendako, 13-15 urte artekoendako, beste bi aukera eskainiko dituzte. Ozaetara joateko aukera uztailaren 1etik 10era eta Orioko Zingirako udalekuez gozatzekoa. Azkenik, 14-16 urtekoendako *Kosta ala kosta* -Ozaetan hasi eta Zarautzera- udaleku ibiltaria antolatuko du Txatxilipurdik.

Txatxilipurdi

- Nafarroa etorbidea 23
- 943 79 54 46
- www.txatxilipurdi.com



Urarekin jolasten, iaz, Txatxilipurdiren udalekuetan.

Taldean edo bakarka, ingeles udalekuak Idiomasterren

Udaleku irekien eran egiten den Jai Skool programa eta ikastaro gehiago ere eskaintzen ditu akademiak

Uda sasoi hizkuntzak ikasi edo praktikatzeko garai ona izan ohi da eta geroz eta gehiago dira horren aldeko apustua egiten dutenak. Arrasateko Idiomaster akademian ume zein nagusien-dako eskaintza dute eta astebe- tez, bi astez edo hiruz ingelesa ikasteko aukera ezin hobea eskaintzen dute.

Alde batetik, ikastaro trinkoak dituzte, akademian bertan ematen dituztenak, azterketak pres-

tatzeko, norik bere maila hobetzeko edo bestelako helburuetarako prestatzeko zuzenduak.

Bestetik, duela bi urte ipini zuten martxan Jai Skool izeneko programa, eta, izandako arrakasta ikusita, hirugarrenoz eskainiko dute aurten. Ingelesa oinarri hartuta, udaleku irekien eran egiten den ikastaroa da Jai Skool, 14 urtera arteko haur eta gaztetxoei zuzenduta. Bakarkako eskolak ere eskainiko ditu

akademiak, *One to One* programaren bitartez.

Bestalde, Edinburgo (Eskozia), 17 urtetik gorakoendako ikastaroak ere antolatzen ditu Idiomasterrek udarako. Hiriaren erdigunean kokatutako eskola baten izaten da eta han hainbat ekintza egiten dituzte. Uztailean, abuztuan eta irailean zehar egiteko eskaintzen ditu akademiak ikastaroak.

Idiomaster

- Otalora Lizentziaduna 29
- 943 79 07 84
- www.idiomaster-arrasate.com



Idiomasterreko lantaldea, akademiaren kanpoaldean.

Irakasle irlandarren eskutik, ingelesa ikasi eta disfrutatu

Arrasateko Parlance akademian ahoskerari eta ahozko ulermenari sekulako garrantzia ematen diote

Uztailaren 2an hasi 27an bukatuko dira ingelesa ikasteko Arrasateko Parlance akademiak antolatutako udalekuak. "Ahoskera eta ahozko ulermena lantzeari umetan ekitea garrantzitsua dela deritzogu, eta, horregatik, jatorri irlandarra duten irakasleak dira udalekuetan lanean arituko direnak", diote akademiako arduradunek. Eta gaineratu dute: "Irlanda magia, arte eta sorkuntza maila itzeleko

herrialdea da, eta, hain zuzen ere, magia eta kreatibitate hori da gure irakasleek uztailean zehar egingo diren jolasetan garatu eta islatuko dutena". Ama-hizkuntza ingelesa duten irakasleei entzuteko aukerak balio erantsia ematen die udalekuei, "ulermenena eta ahoskera garatzen" lagunduko baitie neska-mutikoei.

Esan moduan, uztailaren 2an hasi eta 27ra arte iraungo dute ingelesko udalekuek Parlance

akademian. Ez dago hilabete osoa aukeratu beharrik. Asteka egin daiteke hori. 10:00etan hasi eta ordubeteko eskola teoriko baten ondoren, irudimenari, dibertsioari eta aktibitate desberdinei utziko zaie tokia. "Egunero esperientzia berri bat izango da", diote arduradunek. Gainera, berrikuntza gisa, 08:30etik 10:00ak bitartean haurtzaindegi zerbitzua ipiniko dute aurten.

Parlance

- Ferrerías 26
- 943 77 06 83.
- www.parlance-idiomas.com



Parlance akademiako udalekuetan parte hartu zuen talde bat.

Ingeleseko udalekuak Mondragon Linguarekin

Jolasaren bidez ingelesa ikasteko aukera izango da Mondragon Lingua hizkuntza akademiak eskaintzen dituen udalekuetan. Ingelesa, ikasgai bat izateaz gain, elkar komunikatzeko eta ondo pasatzeko tresna bat ere badela erakustea da helburua

Mondragon Lingua hizkuntza akademiak udaleku itxiak eta irekiak antolatu ditu udarako. Ekainaren 25etik uztailearen 27ra bitartean izango dira irekiak, eta, hain zuzen ere, udaleku horiek aukera paregabea eskaintzen diete haurrei, jolas-tuz eta ongi pasatuz ingelesa ikasteko.

Udaleku irekiak Arrasaten eta Oñatin egiten dituzte, eta 5 eta 11 urte bitarteko haurrendako dira. Orduetgia honako hau izango da: 09:00etatik 13:00etara bitartera. Ekintza pila bat egingo dituzte ordu horietan: eskulan-tailerrak, kirolak –igerilekua, futbola,

olinpiadak...-, mozorro-festak eta jokoak, besteak beste, egunero izango duten *morning snack* gosariatz gainera. Zaintza zerbitzua ere eskainiko dute aurren, 08:30etik 09:00etara.

Udaleku itxiak, berriz, Errioxako Santo Domingo de la Calzada herrian egingo dituzte, uztailearen 2tik 13ra, uztailearen

16tik 27ra eta uztailearen 2tik 17ra, eta 8 eta 14 urte arteko haurrendako dira. Han egingo dituzten jolasez, jokoez, eta abarrez gainera, atal akademikoa ere uztartuko dute; izan ere, egunero, bost eskola-ordu izango dituzte.

Jolastu eta ingelesa ikasi

Taldeak hizkuntza mailaren arabera banatuko dituzte, eta, gehienez, hamabiko taldeak izango dira. Irakasleak titulu-dunak izango dira, ingelesa amahizkuntza dutenak, eta esperientzia handikoak, irakaste prozesuan metodo berritzaileak erabiltzen dituztenak. Talde bako-



Umeak, Santo Domingo de la Calzadan egindako udalekuetan.

tza tutore batek gidatuko du; haur bakoitzaren ingeles maila aztertuko du, eta hobekuntza behar duen atalean laguntza eskaini.

Eskaintza handia

Udalekuetako programaren barruan, askotariko ekintzak egingo dituzte: tailerrak, bideoak, abestiak, festak, gaubeilak, eta abar. Eta kirol ekintzak ere

egingo dituzte: *paintball*-a, arku tiroketa, igeriketa, arrauna eta eskalada, besteak beste. Horrez gainera, bi irteera egingo dituzte, bata Logroñora eta bestea ur parke batera.

Hain zuzen ere, *Mondragonlingua.com* webgunean eman daiteke izena Mondragon Lingua udalekuetan, eta atari horretan bertan jaso daiteke informazio zabalagoa.

Mondragon Lingua

- Arrasaten: Araba etorbidea 4.
- Oñatin: Motxon kalea 7
- Mondragonlingua.com

Udalekuak

30 urte baino gehiagoko esperientzia dugu. Zure seme-alabek ezin hobeto pasako dute, ingelesa ikasten duten bitartean.

• Udaleku irekiak

Arrasate eta Oñatiko zentroetan. Lanegunetako goizetan, ingelesa erabiliko dute ekimen dibertigarrien bitartez.

• Udaleku itxiak (Ingeleseko Murgilketak)

Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa). Ingelesa modu oso naturalean barneratuko dute, egonaldi ahaztezin batean.

• eta askoz gehiago...

Udaleku asko dauzkagu, orduetegi eta data eskaintza zabalarekin.

Informa zaituzte zure MONDRAGONLINGUA zentroan:

ARRASATE

Araba etorbidea, 4.
Tel. 943 71 20 55

OÑATI

Motxon, 7
943 71 60 00



Aukera asko

2-4 aste
uztailean

On line bidez
izena emateko aukera badago:
www.mondragonlingua.com

mondragonLingua

Zein onura dituzte udalekuek, oro har?

Elkarbizitzan murgilduz, nor bere gaitasunekin eta zailtasunekin topo egiteko aukera aproposa da; gainera, ikasturtean zehar izandako betebeharren aurrean, ondo pasatuz eta jolasean, beste ardura barik ibiltzeko aukera ematen dute. Beste batzuek, berriz, ekintza, kirol edota hizkuntza ezberdinak ikasteko aukera ematen dute. Izan ere, aukerak askotarikoak dira.

Aukera zabal horren aurrean, zer hartu beharko genuke kontuan bata edo bestea aukeratzeko orduan?

Geure buruari egin behar diogun lehen galdera zera da: zein da udalekuetara joatearen edo bidaltzearen helburua? Hau da, gurasoek egindako aukera den, umeak berak erabakitakoa den edo elkarrekin landutako gaia den. Ikasteko, ondo pasatzeko, opor egun batzuk probetxuzko zerbait egiten pasatzeko... Hori guztiori garbi edukitzea komeni da. Helburuak argiak diren heinean, hartuko den erabakia askoz errealagoa izango da.

Kirol udalekuak, udal udalekuak, atzerrira joatekoak, erakunde publikoenak, hizkuntzak lantzekoak... Azken horiek geroz eta gehiago dira.

Guztiak ematen dute aukera egunerokotasunetik aldentzeko. Bereziki, hizkuntza udalekuen kasuetan, atzerriko hizkuntza beste modu batean ikasteko eta lantzeko aukera ematen dute.

Ikasturtean zehar eta eguneroko ingurunearen zurruntasun barik, esperientziak beste hizkuntza baten bizitzeko aukera ematen dute. Hor ere, norberaren gaitasunen araberako garapena lortuko da.

Umearen iritzia kontuan izatea garrantzitsua da? Hau da, udalekuek umearen edo gurasoen gustuen araberakoa izan behar dute?

Berriro ere mahai gainean jarri beharko dira udalekuekin lortu gura diren helburuak. Gure seme-alabek ondo pasatzea eta gustura ibil daitezen nahi bada, euren iritzia kontuan hartzea ezinbestekoa da. Hori horrela, kontuan hartu beharreko lehen gauza zera da: udalekuak norendako eta zertarako diren.

Gurasoek hartzen badute erabakia, umearen iritzia kontuan hartu barik, helburuak lortzea

"Umearen iritzia ezinbestekoa da, eskaintza oso zabala da eta"

ENARA AGIRRE PSIKOLOGOA

Udalekuak aukeratzeko orduan kontuan hartu beharrekoak eta zaindu beharrekoak egin du berba antzuolarrak. Umearen eta gurasoen arteko erabakia dela esan du



Enara Agirre psikologoa, Antzuolako kontsultan.

askoz zailagoa izango da. Kontsentsu bat izatea ezinbestekoa da. Berba egin, negoziatu, adostu, proposamen bakoitzaren aldekoak eta kontrakoak zehaztu... Halako aukeraketa batek aurretiko lana eskatzen du. Izen-emate orria bete eta ordainketa egitea baino askoz

"SENTIMENDU ZURRUNBILOARI AURRE EGITEN LAGUNDU BEHARKO DUGU UMEA"

konfliktuagoa da aukera zuzena egitea.

Zein aholku emango zenizkioke udalekuetara lehen aldiz joango den ume bati?

Esperientzia berri baten aurrean dagoen heinean, emozio eta sentimendu ezberdin asko bizi izango dituela jakin behar

du. Gauza positiboak eta gozoak izango dituela. Zalantzak ere izango dituela, seguru. Puntu horretan, bere barrura begiratzeko da onena: bere buruarekin zintzoa izan eta besteekin jarrerara berbera eduki. Modu naturalean jokatzeko badu, lagun asko egingo ditu. Eta, trukean, beste ume batzuen zintzotasuna jasoko du.

Eta semea edo alaba lehen aldiz udalekuetara bidaltzen duen guraso batek nolako jarrera izan beharko luke?

Umeak sentimendu asko bizi izango ditu, aurreko egunetan eta udalekuetan bertan: ziurtasunik ezak, zailtasunak, beldurrak, zirrarak, urduritasuna, ilusioak eta egokitzeko askotariko erak. Sentimenduen zurrumbilo horretara nola egokitu behar duen jakiteko, gurasoen laguntza ezinbestekoa izango da. Ume bakoitzak egokitzeko modu bat dauka eta gurasoek badakite zein den. Batzuei gehiago kostako zaie, eta horren araberakoa izango da etxera itzultzen direnean kontatuko dutena. Batzuek, esperientzia positiboa izango da eta itzultzeko gogoz egongo dira. Aldiz, beste batzuk ez dira udalekuetara itzuliko.

Hori bai, umeek eta gurasoek, guztiak ikasiko dute asko.

Umeak eta gurasoak banandurik egongo diren epe hori ona izango da askorendako. Baina, beste hainbatendako, egoera zaila izango da. Egunerokotasunekin oso aldentuta dagoen egoera horri nola egin aurre?

Gurasoek jakin beharko lukete ezer gertatuz gero zeintzuk diren umearekin kontaktuan ipintzeko aukera errealak.

Askok uste dute umearekin gai horri buruz berba egiteak beldurrak aktibatzen dituela. Ez da egia. Gure seme-alabek oso garbi jakin behar dute etxetik kanpo egonda ere kontaktuan egoteko aukera badagoela. Lasaitasuna emango die horrek.

Bestalde, halako urduritasun momentuan, oso garrantzitsua da gurasoek umearen gaitasunak aldarrikatzea eta goraipatzea. Eurengan dugun konfiantza handia dela esan, eta, egiten dutena egiten dutela eta aukeratzeko dutena aukeratzeko dutela, euren ondoan egongo gara. Kilometro askora egonda ere, eurengandik gertu egongo gara.



Martitzeneko ohiko osoko bilkuraren une bat. MAIDER ARREGI

Gueñes-Itsaso linearen aurka egingo du Udalak

Gueñes-Itsaso goi tentsioko linea proiektuak baimen administratiboa dauka. Hala, hainbat udalek elkarrekin ekimen judiziala abiatuko dute baimen horren aurka. Antzuolako Udalak demanda bateratuan parte hartzea onartu dute osoko bilkuran

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aste honetan egin dute Antzuolako martxoko ohiko osoko bilkura. Gueñes-Itsaso goi tentsioko linea proiektuaren egoteaz jardun dute. Izan ere, goi tentsioko -400 kilovolt- linea proiektua onartu egin du administrazioak, eta, horri aurre egiteko, hainbat udalek elkarlanean errekurtsoa aurkeztuko dutela jakinarazi du Beñardo Kortabarría alkateak. Eta, osoko bilkuran, ekimen judizialarekin aurrera egitea onartu dute, EH Bilduren botoei esker. "Orain arte, jarrera sinbolikoa izan dugu; aurrez, osoko bilkuran guk aurkeztutako mozioa onartu zen eta proiektu honi aurre egiteko sortzen ziren ekimenetan parte hartuko genuela onartu zen. Izan ere, gure ingurua, mendiak, asko ukitzen ditu, eta babestu egin gura dugu eta linea proiektu hori zaildu. Hala, Gueñes-Itsaso proiektuari aurre egiteko ekinbide judizialaren bidea hartzea onartu

dugu osoko bilkuran. Oraingoz, sei udalerrri gara demandan parte hartuko dugunak, baina gizentzen joango den zerrenda izango dela uste dugu", argitu du Kortabarría alkateak.

Goi tentsioko linea proiektuaren arabera, Antzuolan Gueñes-Itsaso lineako dorreak Itsumenditik Deskarga gainerako bidea zeharkatuko dute eta handik Gabiriara joango dira.

Baserri bideak

Osoko bilkuran, baserri bideak arautzen dituen hasierako onepena ere onartu dute. Izan ere, baserrietan dauden pistak nola erabili behar diren eta zein eskubide eta betebeharrak edukitu behar dituzten erabiltzaileek arautu

EZTALAKO LURRAK EGONKORTZEKO LANAK HASIKO DITUZTE ASTELEHENEAN

gura du Udalak. Orain, araudia hilabetez egongo da jendaurrean, eta, ondoren, berriro eroango da osoko bilkurara behin betiko onepena emateko.

Eztalako obra

Gai zerrendatik kanpo, une honetan Eztala futbol zelaiari eragiten dion obra handi bat ere jarri zuen mahai gainean alkateak. Izan ere, astelehenean, martxoaren 12an, Eztalako lurra egonkortuko dituen obra hasiko da. "Lur mugimendua sei bider handiagoa da. Horregatik, Diputazioko ingeniariak obra handia egitea erabaki dute. 24 metro luzeko hamaika burdina sartuko dituzte lurra, mendiari eusteko eta lur mugimendua eragozteko".

Obra maiatzera arte iraungo du eta ezingo da epe horretan Eztalara autoz igo; ezta aparkatu ere. Orain, herriko kirol elkartearekin adostu gura ditu Udalak futbol zelaiaren erabilera-xehetasunak.



Eguen eguerdian plazan eginiko elkarretaratzea. LEIRE LARDIZABAL

Aldarrikapena eta festa izango dira nagusi asteburuan ere

Bihar, erakusketa eta hitzaldia izango dira, bestek beste; arratsaldean, berriz, Olatu Morea egingo dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martxoaren 8a aldarrikapenez jantzi da asteon. Emakumeen Nazioarteko Egunari babesa erakutsi diote antzuolarrek. Hala, eguenean egindako eguerdiko elkarretaratzean eta iluntzeko manifestazioan herritar ugari parte hartu zuten.

Eta aldarrikapenekin jarraituko dute asteburuan ere antzuolarrek. Bihar, martxoak 10, gosaria egingo dute Herriko Plazan. *Ezer ez egiteko* lelopean, gosarian parte hartzeko dei egin diete herritarrei. "Umeendako eta helduendako zaintza zerbitzua egongo da", gaineratu dute Andramanuelak emakume taldeko ordezkariak.

Emakume langileak

Martxoaren 10ean eta 11n, Erdialdeko Amerikako emakumeen lana azaleratzen duen erakusketa izango da ikusgai Olan

etxean. Hala, martxoaren 10ean, 12:00etan, *Mesoamericanas en resistencia por una vida digna* erakusketa azaltzeko hitzaldia egingo dute Olanaren bertan eta ikusgai izango da 14:00ak arte. Baita arratsaldean ere, 18:00etatik 20:00etara.

Erakusketa domekan ere ikusgai izango da, arratsaldeko seietatik zortzietara bitartean.

Olatu Morea

Eta zapatu arratsaldean, emakumeen eskubideen alde Olatu Morea lasterketa egingo da, 17:30ean hasita. Kirola eta aldarrikapena eskutik joango dira eta herritar ororendako prestatutako ibilbidea izango da, gainera. Oinez zein korrika egiteko aukera izango da eta bukaeran aldarrikapena irakurriko dute. Arratsaldea borobiltzeko, kalejira izango da, eta afaria, Trekutz elkartean, 21:00etan.

Siriako egoera gertutik ezagutzeko aukera eguaztenean

Aritz Saidi antzuolarrak Siriako egoeraz jardungo du martxoaren 14an, Olanaren, 18:30ean. Saidik oso gertutik ezagutzen du han bizi duten gatazka politikoa zein erlijio-gatazka. Hitzaldia beste herri batzuetara zabaldu gura duela dio, baina argitu du une honetan hitzaldiaren jarraipena bere osasun egoerak baldintzaturata dagoela.

'Alizia' musikalak bigarren emanaldia izango du Torresoroan

Lehen emanaldirako -19:30- sarrera guztiak agortu dira. Hala, *Alizia* musikalak bigarren emanaldia izango du martxoaren 17an: 16:30ean. Liburutegian eta Bergarako musika eskolan daude salgai sarrerak. Astelehenean, martxoaren 12an, Oihan Vega izango da musikalaren promozioa egiten, 16:30ean, eskola inguruan.



Polpoldarrak Aizkorri, 1943ko ekainaren 6an; elkartearen eratu eta urtebeterra egindako argazkia. I. OJANGUREN / I. MURUAMENDIARAZ FONDOA

Pol-Pol: urratsez urrats, orriz orri

Martxoaren 17an aurkeztuko dute Pol-Pol Mendizale Taldearen azken 75 urteotako erreposoa egitera datorren liburua; Miguel Angel Elkoroberezibar egileak asko gozatu du prozesuan: "Herriarekin eta herriarentzat egindako proiektu bat da; asko ikasi dut"

Jokin Bereziartua BERGARA

"Ederra izan da prozesua. Protagonisten begietako distira horregatik bakarrik merezi izan du ahaleginak". Miguel Angel Elkoroberezibar (Bergara, 1966) ikertzailearen hitzak dira, inprentara bidali berri duen *Pol-Pol M.T. Bergarako historia sozial bat. 1942-2017* liburuaz berbetan. Martxoaren 15ean 76 urte beteko dira Pol-Polen sorrera batzarra egin zenetik, eta bi egun geroago, hilaren 17an, aurkeztuko dute liburu berria, udaletxean (12:30): "Herriarekin eta herriarentzat egindako proiektua da".

Herri baten historiaren isla

Mendian hildako bergararrei dago eskainita liburua, eta egileak horiei aipamen berezia egin die hasierako orrietan. Hortik aurrera, mendi talde baten historia baino gehiago jasotzen du

liburuak: "Herriko gizatalde ezberdinek izan dituzten ekimenak eta jarduerak ere jasotzen dira. Horrez gain, Pol-Pol sortu aurretik mendizale taldeak ere bazeuden, eta horiei ere luzatu diegu begirada".

Liburua egiteko prozesua "ederra" izan dela dio egileak: "Horrenbeste jende pasatu da Pol-Poletik... Zorionez, asko bizirik daude oraindik; 90 urtetik gorako jendearekin ere egon naiz. Izugarria da, memoria historikoa dira. Hain justu, horregatik da soziala Pol-Polen historia, pertsonak direlako protagonista.

MENDIAN HILDAKO BERGARARREI DAGO ESKAINITA LIBURUA; EGILEAK AIPAMEN BEREZIA EGITEN DIE

Bergarako historiaren lekuko pribilegiatua izan naiz". Kontuan hartu behar da Pol-Polek askotariko alorretan jardun zuela; mendiarekin eta naturarekin zerikusia izan dezakeen edozein arlo jorratzeaz harago, sorospen ikastaroak antolatu ziren, argazkigintzan edo espeleologian ekimen ezberdinak gauzatu ziren, Euskal Herriko lehenetariko rokodromoa egiten lagundu zuen eta argitaratzaile lanak ere egin izan ditu—Estatu mailako eskalada arloko lehenetariko aldizkariak kaleratu zituen Pol-Polek—. Liburu horren editorea Pol-Pol Mendizale Taldea bera da.

Gehienak, oroitzapen ederrak

Adinekoek gaztaroan kokatzen dute Pol-Polekiko testigantza; horietako batzuk gogorrak dira frankismoaren hasierakoak direlako, baina gehienek oroitzapen



Emakume polpoldarren talde bat Aizkorri, 1943an. T. JAUREGI / I. MURUAMENDIARAZ FONDOA

ederrak gordetzen dituzte. "Oso garai aktiboak ziren, dena egiteko zegoen. Eta denborak frogatu duenez, taldean eta auzolanean gauza asko lortu daitezke herriarentzat", gaineratu du Elkoroberezibarrek. Izan ere, aintzat hartu behar da garai batean mendi elkarteetatik harago ezer gutxi zegoela aisialdirako esparruan; 36ko Gerraren osteko ezerezetik sortu zen Pol-Pol jaiotzeko ezinbestekoa izan zen kohe-

sioa. Hain zuzen, gerraostean bando ezberdinetako jendea batzeko gune bakarrenetakoa zen Pol-Pol. Emakumeak hasieratik izan ziren Pol-Poleko parte eta ohikoa zen irteeretan emakumeak eta gizonezkoak elkartzea.

Nola aldatu diren gauzak

Azken 75 urteotan izugarri aldatu dira gauzak, baita mendizale elkartearen bueltan ere; bitxikeria moduan, eta atzo Emakumeen

450 erretratutik gora 208 orrialdetan

Martxoaren 17an aurkeztuko dute liburua, udaletxean (12:30); Elkoroberezibarrek 100dik gora elkarrizketa egin ditu herritarrekin eta 208 orrialdetan zehar 450 erretratu baino gehiago aurkituko ditu irakurleak. Pertsonak dira kontakizuneko zein argazkietako protagonistak: "Pertsonak, pertsonalismoak gabe. Ahalegin berezia egin dugu jende hori guztia identifikatzen". Aurkezpenean erosteko aukera izateaz gain, hilaren 17tik aurrera Mizpildi okindegian, Subijai dendan, Onena tindategian, Depor tabernan, kultura etxean eta Pol-Polen egoitza berrian (San Pedro 10) egongo da salgai liburua, 15 eurotan. Liburuaren babesleak izan dira Bergarako Udala, Gipuzkoako Mendizale Federazioa eta herriko hamabi enpresa. "Eskerrik beroenak guztiei", dio egileak.



Pol-Poleko gaztetxoendako lehen sorospen ikastaroa, 1978an. POL-POL FONDOA



Pol-Poleko gazteak Pirinioetako Castillo D'Acher mendian, 1996an. POL-POL FONDOA

Eguna izan zela kontuan hartuta, egileak gogorarazi du nola emakumeak 1950eko hamarkadan gonaren azpian praktikak jantzita zituztela joaten ziren mendira, eta aldapan gora hasitakoan gonak kendu eta motxilan sartzen zituzten: "Gerra aurretik zein gerra ostean emakumeak eta gizonezkoak elkarrekin gozatzen zuten mendizaletasunaz. Kirol bakarrenetarikoa izango zen, eta, beraz, eredugarria".

"Oso aberasgarria izan da"

Kronologia irizpide moduan hartuta, hamarkadaka egituratu du liburua egileak. Duela urtebete, Pol-Polen 75. urteurreneko ospakizun ekitaldiei hasiera eman zitzaizkion, iragarri zuen Elkoroberezibarrek liburua egingo zuela, eta hasierako asmoa zen

**ELKOROBEREZIBAR:
"HAIEN BEGIETAKO
DISTIRA HORREGATIK
BAKARRIK MEREZI
IZAN DU AHALEGINAK"**

2017. urte bukaerarako amaituta egotea. Baina dokumentazio lana espero baino konplexuagoa –eta ederragoa– izan dela aitortu du egileak: "Ahoz aho jaso beharreko proiektu bat denean eta jende asko dagoenean inplikaturik, halakoak gertatzen dira. Protagonista batekin egon ostean haren lagun bat enteratu eta lagun horrek beste ekarpen bat egin gura izan du... Aukera aprobetxatu beharra zegoen, eta jendea oso eskuzabal portatu da". Esker on hitzak ditu ikertzaile bergararrak: "Asko ikasi dut, oso aberasgarria izan da prozesua".

Gaur egun, 700 bazkide inguru 1942 amaierarako 86 bazkide zituen Pol-Polek eta horietatik hamazortzi emakumezkoak ziren. Bazkideen kopurua gehitzen joan zen urtez urte: 1960ko hamarkada hasieran 370era igo zen, eta 1990ko hamarkada hasieran 1.600 bazkide izatera heldu ziren. Gaur egun, 700 bat bazkide ditu, eta 350 federatu. Urte hauetan hogeitahortzi lehendakari izan ditu elkarteak, guztiak gizonezkoak.



Seminario azpiko aparkalekuaren aurre-proiektua idazteko prozesua martxan jarri berri du Udal Gobernuak. B. U.

Lur azpiko aparkalekuak egiteko lehen pausoak

1.400.000 euroko aurrekontua duen seminario azpiko parkingaren aurreproiekturako pleguak onartu dituzte, eta ireki dute kontratazio epea; bestalde, herritarrendako arreta zerbitzu bateratua martxan jartzeko beste esperientzia batzuk ezagutzen ari da Gobernuak

J.B. BERGARA

Errege Seminarioko patio azpian aparkalekuak egiteko prozeduraren lehen pausoak eman ditu Udal Gobernuak. Aurreproiektua egiteko pleguak onartu dira eta kontratazio epea zabaldu da. Kontratazioa prozedura negoziatuaren bidez egiteko, 35.695 euroko lizitazio oinarria onartu da –BEZA barne–. Patioko lur azpian –oin batean– errotazioko aparkalekuak eraikitzeke proiektu teknikoaren idazketaren kontratazioarako baldintza administratiboen pleguak onartu dira.

Gobernuak: "Premia handia dago" Gobernuaren arabera, aparkaleku horiek egitea herritarrek

aspalditik duten nahia da: "Hala agindu genuen programan eta herritarrek behin eta berriro jakinarazi dute horren premia handia dutela. Uste dugu ekipamendu horrek bergararren bizi kalitatean eta Bergararen hazkuntzean eragin handia izango duela". Gogora ekarri behar da 2018ko udal aurrekontuan 1.400.000 euro bideratu direla proiektu horretara eta 1.120.000 euroko kreditua eskatu dela.

Arreta Zerbitzurako lanean

Bestalde, Udal Gobernuaren 2018rako beste proiektuen batzuen artean dago Herritarrendako Arreta Zerbitzua (HAZ) martxan jartzea. Oraindik ezin

da jakin aurten zerbitzu berri hori errealtate aurten bihurtuko denik, Gobernuak "epe ertainera" begirako erronka moduan ikusten du eta. Zerbitzu berriak bi helburu nagusi ditu: batetik, herritarrei begira horien Udalako sarbidea erraztea eta, ondorioz, herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa eta harremana erraztea. Eta, bestetik, udal barruko administrazio prozedurak berrikustea eta arintzea. Martxoko osoko bilkuran aho batez onartu zen zerbitzu hori martxan jartzea eta Gobernuak ordezkariek beste herri batzuetako esperientziak ezagutzen ibili dira; adibidez, Ermuko eta Legazpiko zerbitzuak.

Erramu Zapatuko herri bazkarirako txartelak, hilaren 15ean salgai

Martxoaren 24rako Txapa Irratiak eta Xaxau jai herrikoien konpartsak antolatutako herri bazkarirako txartelak egunean, martxoak 15, jarriko dira salgai, Irala kalean, 19:30etik aurrera. 12 eurotan salduko dira txartelak eta pertsona bakoitzeko gehienez lau txartel erosteko aukera egongo da. Bazkaria Udal Pilotalekuan izango da.

'Artxipielagoa' ikuskizunerako sarrerak salgai daude

Andoni Egaña bertsolaria, Belen Ibarrola artista, Ainhua Garmendia sopranoa eta Pello Ramirez, Garikoitz Mendizabal eta German Ormazabal musikariak *Artxipielagoa* ikuskizunarekin izango dira Udal Pilotalekuan apirilaren 21ean. Sarrerak atzo jarri zituzten salgai, zortzi eurotan. Aurreantzean, *Ticket.kutxabank.es* webgunean erosi ahalko dira.

HQ Quartett eta Susana Cordon gonbidatu dituzte Seminariora

Habemus Quartett hari lauokote taldeak eta Susana Cordon sopranoak kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Seminariora, arratsaldeko zazpitan. Sarrerak zortzi eurotan daude salgai www.ticket.kutxabank.es webgunean. Besteak beste, Grundman, Haendel eta Whitbourn musikagileen piezak entzun ahal izango dira.

"Gorputzen apropiazioa" salatzeke erakusketa

Martxanerek antolatuta, Bergarako 25 artistak 'Guk emakumeok' izeneko erakusketa inauguratuko dute gaur Aroztegi aretoan (19:00); arte-munduan bizi duten "gorputzen apropiazioa" salatu gura dute: "Nekatuta gaude musa eta dekorazio-objektu izateaz"

Jokin Bereziartua BERGARA

Atzoko greba feministaren (ikus 2. orria) biharamunean aurkeztuko dute Martxanerek eta herriko 25 emakumek *Guk emakumeok* izeneko erakusketa. Aroztegi aretoan izango da inaugurazio ekitaldia, gaur, 19:00etan hasita: "Aurten, emakume gorputzen inguruan jardungo dugu. Iaz bezala, proiektu honek emakume artisten lanak ikusaraztea du helburu, eta, horrez gain, aurten, bereziki, arte-munduan gertatzen den gure gorputzen apropiazioa salatu nahi dugu. Musa eta dekorazio-objektu izateaz nekatuta gaudelako, emakume-izena duen artea aldarrikatatu nahi dugu", adierazi dute.



lazko Emakumeen etxea erakusketako artista bergararrak, talde argazkian. I. S.

Aurkezpen ekitaldi "oso berezia"

Gaur inauguratuko duten erakusketan, askotariko teknikekin egindako lanak ikusi ahaliko dira: olioia, argazkilaritza, eskultura... "Eta aurten ere, aurkezpen-ekitaldi oso berezia eta artistikoa prestatu dugu!", gaineratu dute. Esandako moduan, herriko 25 artistaren lanez gozatzeko aukera egongo da: Aintzane Conde, Alicia Garcia, Amaia Santamaria, Ana Abajo Lazkano, Ana Madinabeitia, Ana Orgaz, Arantzazu Arregi, Edurne Eraña, Idoia Etxarri, Itziar

Murguizu, Jone Albeniz, Julia Otaegi Ugarte, Julia Pajares Gil, Justina Elexpuru Arregi, Kontxi Idigoras Ostolaza, Lierni Narbaiza, Mari Paz Alustiza, Maialen Lopez, Maite Eraña, Maite Arana Harbustan, Mari Carmen Laskurain, Mari Kruz Andueza, Martha Lucia Silva *Maluss*, Nerea Olaskoaga Balerdi eta Turtukiña Arte Taldea.

Kontseiluaren bilera hilaren 13an
Emakumeen Egunaren bueltan, besteak beste, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Kon-

tseiluaren lehen bilera egingo da martxoaren 13an, Irizarren (18:30). "Kontseilua eratzea arrerapauso handia da Bergararentzat; landuko diren gaiak Gobernuak aholkutzat hartuko ditu Udalean eta herrian lantzeko", dio Berdintasun zinegotzi Maite Agirrek. Bestalde, hilaren 14an bi saio egongo dira: batetik, Goienagusik antolatuta, *Dando luz a las mujeres de la ciencia* hitzaldia Seminarixuan (10:00); eta, bestetik, *Kabi biluziak* dokumentala eta mahai-ingurua Zabalotegin (20:00).



NIRE USTEZ

IGOR OIARBIDE

Euskal kontzertu ekonomikoaren mitoak

Zenbait alderdik gure kontzertu ekonomikoaren aurka diharduten garaiotan, aspektu batzuk azpimarratu behar dira. 140 urte bete dituen finantziario modelo batez ari gara, Euskadiren eta Estatuaren arteko zerga-harremanak erregulatzen dituen. Euskaldunek Estatuari ordaintzen ez diotela entzuten da, eta gezur galanta da. Eustaten arabera, 2001 eta 2013 artean, kupo gordinak Euskadiri 15.026 milioi euroko kitapen negatiboa egozten dio. Pribilegioa da? Ez. Aldebakarreko arrisku sistema bat da. Horrekin, Estatuari kupoa bildu eta ordaindu behar dio. %6,24an finkatuta dago, nazioeko ekonomiarena (%6,1) baino handiagoa. Presio fiskala Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan estatuko batez bestekoa baino handiagoa da. "Zerga paradisuz" hitz egiten dute, eta, errealitatekin urrun, gure presio fiskal eragilea beti izan da hobe.

Beraz, Riverak eta beste edozein politikarik, eskrupulurik gabe eta neurrigabeko hauteskunde interesarekin ekiten dutenek, aurrez aurre izango gaituzte gure ongizate-estatuaren funtsezko pilaretzat ulertzen duguna irmo defendatzen.

EH Bilduko eta Irabaziko ordezkariak 'Harira'-n, hilaren 13an (21:00)

Eneko Azkaratek aurkezten duen *Harira* saioan Udaleko oposizio ordezkariek izango dira martitzenean, hilak 13, Goiena telebistan (21:00). Bi gonbidatu direnez, ez da elkarrizketa soila izango: "Ikuspuntu ezberdinekin aztertuko dugu herrietako aktualitatea: proiektuak, asmoak, egindakoak...". Udalbatzan ordezkatuta dauden alderdi guztiei egin zaie gonbita, baina Udal Gobernuak (EAJ-PSE-EE) ordezkariek uko egin diote gonbidapenari. Bestalde, herritarrek aukera izango dute *Harira*-n galderak egiteko. Bi bide daude horretarako: posta elektronikoz (berriak@goiena.eus) eta Whatsapp bidez (688 69 00 07).

OHARRAK

Oparitu Zuhaitz Bat

Martxoaren 15ean liburutegian elkartuko dira (19:30). Gaiak: Fukushima, kooperatiba energetikoak, Fiare bankua eta Oparitu Zuhaitz Bat.

Defentsa pertsonala

Emakumeei zuzendutako defentsa pertsonalerako doako ikastaroa egingo dute Agorrosinen bihar, 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko: Agorrosingo harreran.

Jaien antolaketa

Pentekosteak antolatzeko batzarrak egiten ari da Udala. Gaur, hiru saio: San Joxepen (16:00), udaletxean (18:30) eta gaztelekuan (20:00). Hilaren 20an jai batzordea batuko da.

HARIRA

GOIENA TELEBISTA,
MARTXOAREN 13AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:30EAN
BERGARA AZTERGAI, UDAL ORDEZKARIEKIN
ENEO AZKARATEK AURKEZTUTA

LAGUNTZAILEAK:

Markiegi

goiena
Zu hemen zaude.



Etorkizuneko igerilarien lehiak Agorrosinen

Benjamin ligaren barruan jokatu dute saioa: bihar, zapatua, izango da, 16:00etan hasita. Bi ordu inguru iraungo dute probek. Oñatiko, Legazpiko, Eibarko, Azpeitiko eta Azkoitiko igerilariak parte hartuko dute biharko jardunaldian

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Igeriketa taldea lan ona egiten dabil denboraldian zehar. Horren adibide da azkeneko aste bukaran izan dituzten emaitzak; eta, lan on horrekin jarraitzeko asmoa izango dute bihar, zapatua. Elkarteko txikiaren txanda izango da: benjamin ligaren barruan jokatu den jardunaldia izango dute, 16:00etan, Agorrosinen.

34 neska-mutiko

Oñatiko, Legazpiko, Eibarko, Azkoitiko eta Azpeitiko igerilariak izango dira Agorrosinen. 8 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoak izango dira, eta aukeran izango dute hainbat lan egiteko. Benjamin txikiak aukeratu beharko dute 50 metro bular eran igeri egin, edo 100 metro egin; eta handiek lau aukera izango dute: 50 metro crawl, 50 metro libre, 100 metro bular eran edo 200 metro bular eran, hain zuzen.

Bergarako taldeak 34 neska-mutiko ditu benjamin mailan: "Taldea polita da, etorkizuna dagoela ikusten da", azaldu du Xabier Labaka entrenatzaileak. Labaka entrenatzaileak herri-tarrak animatu nahi ditu biharko proba ikus dezaten. 16:00etan hasiko da lehiaketa.



Azkarate, Labaka, Melendez, Morras, Gardoki, Ibaibarriaga eta Ibarguren. A. GARDOKI

Gipuzkoako saria

Otsailaren 24an eta 25ean hainbat domina lortu zituzten igerilari bergararrek. Legazpin Gipuzkoako saria jokatu zuten. Aurreikuspenak "samur" bete zituzten, Labakaren esanetan. Erreleboetan brontzezko domina lortu zuten Unai Belategik, Unai Egañak, Asier Reguerok eta Iker Pozak; eta, gainera, taldeka, hirugarren sailkatu ziren bergararrak.

Bestalde, Gipuzkoako neguko txapelketa jokatu zuten Irunen, zapatuan eta domekan. Besteak

beste, Josu Morrased zilarrezko domina lortu zuen, Nielka Ibargurennek bi brontzezko domina eta Ziortza Ibaibarriagak, Uxue Azkaratek eta Marta Melendezek brontzezko domina bana. Emaitza horiek guztiak kontuan hartuta, zazpi lagunek lortu dute Euskadiko txapelketan parte hartzeko txartela: Marta Melendezek, Uxue Azkaratek, Julen Gardokik, Josu Morrased, Xabier Labakak eta Leire Sainz eta Elene Imaz legazpiarrek. Egingako lan onaren emaitza jaso dute igerilariak.

Musikal ezagunetako abestiak kantatuko ditu Orfeoi Gazteak

Bergarako Orfeoi Gazteak emanaldia eskainiko du gaur, bariakua, 20:00etan, Seminarixoan. *Musikalak* izeneko saioa izango da, eta, izenak dioen moduan, azken hamarkadetako musikal ezagunenak eroango dituzte. *Cabaret* musikaleko *Willkommen* obrarekin hasiko dira; *All I ask for you*, *Miserableak*, *Over the Rainbow*, *Can you feel the love*

tonight, I will follow him, Hakuna Matata, Mamma Mia, Dancing Queen, Summer nights, You're the one that I want izango dira eskainiko dituzten gainerako lanak. Azkeneko obra Bergarako Orfeoiarekin batera egingo dute: *Olentzero & Co!* John Prietok perkusioa eta Amaia Urdangarinek pianoa joko dute emanaldian.

Emanaldia doan izango da, baina txartelak eskuratu behar dira, leihatilan bertan -ordubete lehenago-.

Musikoterapia tailerrak egingo dituzte apirilean

Musika Eskolak antolatuta, *Musika familiar* eta *Nagusientzako musikoterapia* tailerrak egingo dituzte apirilean.

Umeek musikaz gozatzeko helburuarekin egingo dute *Musika familiar*: Gordon metodoan oinarritutako ikastaroa izango da, 0 eta 3 urte bitarteko umei zuzendutakoa. Bi taldetan banatuko dituzte umeak: 0 eta 15

hilabete artekoek apirilaren 16an izango dute ikastaroa, 18:30etik 19:20ra; eta 15 hilabete eta 3 urte artekoak apirilaren 17an izango dute saioa, ordu berean.

Nagusientzako musikoterapia 60 urtetik gorakoendako da. Apirilaren 16an eta 17an izango da, 19:30etik 20:30era. Bi ikastaroen prezioa 10 euro da eta izena emateko azkeneko eguna martxoaren 22a izango da, eguena. Musika Eskolan eman behar da izena.

Ormaiztegi hartuko dute, etxean, lehen territorialeko mutilek

Soraluce BKEk Ormaiztegiaren aurka jokatu du zapatuan, 16:00etan, Labegaraietan. Ormaiztegi talde indartsua du, joko zuzena egiten duena. Etxekoek "defentsan egingo duten lanaren arabera egongo da partiduaren gakoa", Muniategiren esanetan. Bolada onari eutsi nahi izango diote bergararrek, kontrario zuzenaren aurka.

Gurpil aulkiko eslalom probak egingo dituzte bihar, Labegaraietan

Gurpil aulkiko kirolariak txapelketa izango dute bihar, zapatua, Labegaraietan kiroldegian. Hain zuzen, eslalom probak egingo dituzte, 09:30etik 13:30era. Gainera, Euskadiko txapelketarako puntuagarria izango da proba. Parte hartuko du, besteak beste, Aritz Bikuña bergararrak, hainbat aldiz Euskadiko txapel-dun izandakoa.



7 urteko garantia
auto berri guztietan

Debagoieneko kontzesionario ofiziala
Arrasate • San Andres Auzoa 6
943 79 07 44/54 • 670 82 71 86
www.mugarri.eus

ERREPORTAJE BEREZIAK



BIKI BIZI

GOIENA TELEBISTA

BIKIAK, GENETIKOKI BERDIN-BERDINAK,
ETA IZAERAZ? EGUBAKOITZEAN 19:30EAN
ZAPATUAN 14:30EAN/
DOMEKAN 18:30EAN ETA 20:30EAN

HURA ZEN URKULU

GOIENA TELEBISTA

UR AZPIAN GERATU ZIREN ISTORIOAK
GOGORATZEN. EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena

Zu hemen zaude.

Etkez etxeko zerbitzua 100 etxetara heltzen da

Zerbitzu hori lizitazioa ateratzea onartu zuen eguenean udalbatzak, aho batez, ezohiko osoko bilkuran. Bestalde, otsaileko osoko bilkurako irudiekin eta han esandakoekin sare sozialetan zabaldu den bideoa salatu zuen alderdi jeltzaleak

Oihana Elortza OÑATI

Etkez etxeko zerbitzua lizitazioa ateratzea onartu zuen, aho batez, udalbatzak eguzten arratsaldean egindako ezohiko osoko bilkuran. Maiatzean bukatzen da gaur egun indarrean dagoen kontratua, eta ordurako hurrengo esleipena prest egotea gura du Udalak.

Esleipena

Mendekotasunik ez duten adineko pertsonen zaintzara bideratutako zerbitzua da etkez etxekoa. "Herriko ehun etxetara heltzen da eta 22 lagunek dihardute. Etxearen garbiketa edo herritar horien garbiketa pertsonala egiten laguntzeko zerbitzua eskaintzen du, adibidez, 580.000 euro hartzen ditu urtean eta deialdi publikoa egitea eskatzen du horrek", adierazi zuen Mikel Biain alkateak bilkura amaitsu ostean.

Egun zerbitzua eskaintzen duen enpresaren esleipena maiatzean bukatzen da. "Garaiz gabiltza oraindik. Hala ere, esleipen berria eman barik gelditzen bada, egungo obligazioa du berria adostu arte zerbitzua eskaintzen jarraitzeko", gaineratu zuen Biainek.

Etkez etxeko zerbitzuaren lizitazioa zen osoko bilkura be-



Eguazten arratsaldean egin zen ezohiko osoko bilkura. O.E.

reziaren puntu bakarra. Horren aurretik, baina, aurreko osoko bilkuraren aktaren onespeneran harira, hitza hartu zuen Lourdes Idoigak, EAJko udal taldearen bozeramaileak. Otsaileko osoko bilkurako irudiekin eta han esandakoekin *Irainak eta mehatxak* izenburuarekin sare sozialetan zabaldu den bideoa salatu zuen. "Manipulatuta dago bideo hori. Gure erantzuna bakarrik ikusten da, alkateak guri esandakoari buruz. Erantzun gogorak dira, guri esandakoak ere gogorak izan zirelako", esan

zuen. Eta gaineratu: "Honek herrigintza osoari egiten dio kalte. Osoko bilkura herritarren erabakiak hartzen diren foroa da eta hori manipulatuzea etika falta ere bada. Guk ez diogu inori eskatu salaketarekin bat egiteko, baina guk lanean jarraituko dugu herritarren interesak defenditzen".

EH Bilduk ez zuen ezer erantzun. "Ez dakigu nork egin duen eta ez dagokigu guri baloratzea. Ezer ez esatea erabaki dugu, eztabaida handiagotu ez dadin", adierazi zuen alkateak.

"Estrategia nazional ikuspegitik, 40 urteotan atzera egin dugu"

ASISKO URMENETA KOMIKILARIA

'Eusklabo Alaiak' liburuarekin izango da gaztetxean

O.E. OÑATI

Eusklabo Alaiak eleberrigrafiako argitaratu zuen Asisko Urmenetak 2017 amaieran. Orain, lan hori aitzakia gisa hartuz, aurkezpenak egiten ari da Euskal Herriko hainbat txokotan. Hurrengo asteartean, martxoak 13, arratsaldeko sei eta erdietan, Oñatiko Antixena gaztetxean egongo da.

Satira politiko gisa aurkeztu zenuen *Eusklabo Alaiak* lana. Baina hori baino gehiago, saiakera politiko ere bada.

Bai, zergatik ez? Askok esan didate, eta ados nago. Azken batean, politika egin nahi izan dut. Garai nebuloso hauetan ikusten nuena islatu dut, eta, zentzu horretan, oso ariketa terapeutikoa izan da. Eta, gainera, amaiera positiboa eman diot.

Zertaz ari zara "garai nebulosoak" diozuean?

Ni kezkatuta nago Euskal Herriaren egoeraz. Franco hil ondoren uste genuen demokrazia-ekin gure herriaren bideak modu askean eraiki ahalko genituela. Baina monarkia honen 40 urteetan, aurreko urteen berdina eduki dugu. Eta nik galdeztzen dut: azken lau hamarkada hauetan zertan egin dugu aurrera? Nik argi daukat estrategia nazional baten ikuspegitik, atzera egin dugula. Behin eta berriz zapaltzen gaituenaren amua irensten aritu gara. Orain, Espainia hondoa jotzen ari da, eta guk berdina egingo dugu?



Asisko Urmeneta. BLOGSEITB

Saiakera politiko, bizi-bizi.

Gehiago da eztabaidarako materiala, dogmak zalantzan jarri eta eztabaidatuz aurrera jarraitzeko.

Dena den, eleberria baikor amaitzen da. Eta askatasuna lortu duten beste hainbat herri aipatzen dituzu.

Bai; zapalkuntzak aurrera jarraitzen badu ere, antolatzen bagara lortu dezakegu, ez gara kondenatuak, eta munduan hainbat herrik lortu dute independentzia.

Aipatzen diren beste kasuak, baina, ez dira oso gertukoak.

Nik eman nahi izan ditudan adibideak garaitu dutenenak dira. Geure burua ezin dugu alderatu frakasatu duten proiektuekin, garaitu dutenekin baizik. Ortuzarrek aipatzen du euren eredia Quebec eta Eskozia direla, baina nola? Galdu egin dute, baina!

Berdintasunaren aldeko "neurri eraginkorren" alde egin du EAJk

Lan esparruan berdintasuna lortzeko behar diren ekimenek lehentasuna izan behar dutela uste du

O.E. OÑATI

Martxoaren 8aren harira, Oñatiko gizonak eta emakumeak arlo guztietan –ekonomia, politika, familia, lana, hezkuntza...– aukera berdintasuna izateko ekintza eta akzio eraginkorrak

ezartzeko eskaera berretsi du EAJko udal taldeak prentsa ohar bidez. 2017ko eta 2018ko aurrekontuetan EH Bilduren Udala Gobernuari aurkeztutako *Oñatiko enpresetan sustatzeko erantzunkidetasun plana*-ren propo-

samena berresten dute jeltzaleek oharrean. "EH Bilduren Gobernuarentzat, lan-esparruan berdintasunaren aldeko akzio eta ekimenak proposatzen dituzten planak lehentasunezkoak izan behar direla uste dugu".

Alderdi jeltzaleak prentsa oharrean dioenez, kontziliazio neurriak zaintza ardurak erraztera bideratu dira orain arte eta ia beti emakumeak hartu dituzte ardura horiek. Hori aldatu beharra dagoela uste du eta "ezinbestekoa" ikusten du enpresetan

"kontziliazio erantzunkidea hobetzeko bide berriak ezartzea". Hala, "enpresetan genero ikuspegia txertatuta izango duten kudeaketa aurreratu ereduak" bultzatzeko proposamena ere egin du. "Horrela, kontziliazio eta erantzunkidetasun neurriak sustatuta, genero desberdintasunak amaitzeko –soldata, lan promozioa, sarrera...–". Bestalde, Jaurlaritzak "guraso-baimenak parekatzeko egindako proposamen berritzailea" txalotu egin du udal talde jeltzaleak.

Ekaineko giza katea antolatzen hasiko dira martitzenean

Ekainaren 10ean Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea antolatzeke bilera egingo du Gure Esku Dago ekimeneko taldeak datorren astean. "Datorren ziklo berriko pausoetako bat" da giza katea, eta hori antolatzen hasiko dira. Martxoaren 13an, martitzena, egingo dute bilera irekia, 19:00etan, kultura etxean.



Oñatiarrak, Lourdesera egindako irteera batean. JOSE IGNAZIO BALZATEGI==

Arantzazun batuko da Lourdesko Ospitalitatea

Duela hamalau urte egin zuen moduan, domekan Arantzazun egingo du urteko ohiko batzarra Gipuzkoako Lourdesko Ospitalitatea Elkarteak. Meza eta bazkaria ere egingo dute; 100 lagun baino gehiago elkartuko dira bazkarirako

Oihana Elortza OÑATI

Urteko ohiko bilera egingo du Gipuzkoako Lourdes Ospitalitatea Elkarteak domekan Arantzazun. Gipuzkoan dauden beste elkarteetako kideak etorriko dira eta batzarra, meza eta bazkaria egingo dituzte.

Lourdesera

Gipuzkoako herri ezberdinetan egin ohi izan ditu urteko batzarrak elkarte horrek. Aurten, Oñatin egingo dute, Arantzazun. Duela hamalau urte ere hemen egin zuten. Orduan bezala, aurten ere oñatiarrak ari dira domekako ekitaldia antolatzen. "Lurraldeko herri askotatik etorriko dira; dagoeneko 100 lagunek esan dute bazkaltzera etorriko direla", dio antolaketa lanetan buru-belarri ari den Mari Tere Maiztegik.

Aspalditik du harremana Maiztegik elkarte horrekin. Baita Jose Ignazio Baltzategik ere. Duela hiru urte, urrezko orratza jaso zuen Baltzategik elkartean

egin duen ibilbideagatik. "Honezkero 30 bat urte izango dira elkarte honetan sartu nintzela. Gaixoekin Lourdesera egiten dugun irteera antolatzea izaten da, egia esan, gure eginbehar nagusia. Gaixoen bidaia eta egonaldia ordaintzeko diru-biltzea egiten dugu eta hor batutako diruarekin ordaintzen dizkiegu gastu gehienak. Laguntzera joaten direnei dagokienez, nork bere gastuak ordaintzen ditu", dio Maiztegik.

Aurtengo diru-batzea apirilean egingo dute eta irteera, berriz, maiatzaren amaieran. "Apirilaren 7an eta 8an egingo dugu diru-biltzea, Oñatin eta Arantzazun egingo diren meza ordutan. Irteera maiatzaren 25etik

APIRILEAN EGINGO DUTE DIRU-BILTZEA ETA MAIATZAREN AMAIERAN LOURDESERA IRTEERA

28ra izango da. Bidaia hori Oñatiko, Arrasateko eta Bergarako gaixoekin egiten dugu, normalean. Oñatitik irten eta Bergaran azken gaixoak jaso ondoren, zuzenean joaten gara Lourdesera. Hango ospitale baten egoten gara, hotel batek dituen zerbitzuak dituen ospitale baten", azaldu du Maiztegik.

Domekan

Domekan egingo duten batzarraren, urteko balantzearen, urte berriko asmoen eta zuzendari-tzako kideen berri emango dute, besteak beste. Frantziskotarrek gogo-jardunak egiten dituzten aretoan egingo dute batzarra, 10:00etan. Meza nagusia ohiko orduan izango da, 12:00etan. Bazkaria 14:00etan egingo dute, Arantzazu hotelean. Oñatiko eta bailarako herritarrek ez ezik, Lourdesko Ospitalitateak Gipuzkoan dituen beste elkarteetako kideak ere izango dira etzi Arantzazun. Udal ordezkariak gonbidatuta daude.



David Pereira, Aida Dacosta, Imanol Agirretxe eta Maddi Altzelai. GOIENA

Imanol Agirretxerekin izan dira Zuazola institutuko ikasleak

Realeko jokalaria egindako elkarrizketa hilaren 14an (21:30) eta 16an (23:00) emango dute Goiena telebistan

O.E. OÑATI

Zuazola institutuko Aida Dacosta, Maddi Altzelai eta David Pereira ikasleek Realeko jokalaria Imanol Agirretxe usurbildarra elkarrizketatu dute Goiena telebistako *Galdegazte* saioan. "Galdera ezberdinak eskertzen dira, egunerokotasunetik ateratzeko aukera ematen dute. Oso gustura egon naiz", adierazi zuen futbolari txuri-urdinak elkarrizketaren amaieran.

Zaleen jokalaririk kutunenetakoa da Agirretxe eta maitasun hori sentitzen duela aitortu zuen: "Realean beti sentitu izan

naiz maitatua, baita lesionatuta egon naizenean ere. Bultzada handia sentitu dut une txarretan, Anoetaren harrera izugarria da. Ulertzekoa da haserre ere egotea azken bolada ikusita, baina zaleendako esker on hitzak bakarrik dauzkatzat". Izandako lesioak "lezio asko" eman dizkiola aitortu zuen Agirretxek, eta gaineratu: "Mundua gainera erorita ere, betiko bizimoduarekin segitzeak eramangarriago egin du dena".

Saioa martxoaren 14an (21:30) eta 16an (23:00) emango dute Goiena telebistan.



NIRE USTEZ

JOSUNE ODRIOZOLA

Pertsona arrunt ezberdinak

Ezgaitasunen inguruko artikulu batek jokoz kanpo utzi ninduen arratsalde baten. Mexikon, kultura eta hezkuntzako idazkaria den emakume batek "pertsona arruntak" gainjarri eta urritasuna dutenak zeharo iraintzen eta gutxien zituen bertan. Baina, zer da "pertsona arrunta" izatea? Ideia ezberdinez osatutako pertsona arruntak gara guztiok. Bakoitzak bere esentzia du eta horrek egiten gaitu besteengandik desberdin. Pentsatzen jarri eta neure burua definitzen hasi nintzen. Lehenik, hankak. Motzak, baina kilometroak korrika egiteko gai direnak. Gorenean, burua. Ideia xelebretz beteta, baina ingurukoak baloratzeko gai dena. Azkenik, bizitza eman eta definitzen nauten besoak. Umetatik, besteengandik desberdinak izanda, momentu zailak erraz bihurtuz, arrunt bilakatzen joan eta nire gaitasun egin dira. Ezgaitasuna, norberak hartzen duen jarrera da, ez zailtasun fisiko zein psikikoa. Beraz, emakume honek bere burua salatu duela esango nuke. Gaur korrika egin ordez, bizikletan ibili naiz eta irakurri beharrean, idatzi. Ekintza desberdinez osaturiko arratsalde arrunta izan da.

Emakumeen musika piezak eta eskulanak

Hiru euskal emakume konpositorek egindako kantuak abestuko dituzte gaur, egubakoitza, Ganbara Faktoriako abesbatzek udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango den kontzertu berezian. Bihar, emakume artisauen azoka egingo dute plazan

Oihana Elortza OÑATI

Kontzertu berezia eskainiko dute gaur, egubakoitza, Ganbara Faktoriako taldeek. Emakumeek sortutako piezak abestuko dituzte. Hiru emakume euskaldun konposatzaileen piezak, hain zuzen ere: Eva Ugalde, Idoia Azurmendi eta Junkal Guerrero. Euretako bi, gainera, bertan izango dira.

Konpositoreak

Euskal emakumeen doinuak izenburua du gaurko emanaldi berezi horrek eta emakume aho-tesez osatutako Hots abesbatzak emango dio hasiera. Lau zati edo bloke izango ditu kontzertuak eta gainerako hiruretan abesbatza hauek kantatuko dute: Ganbara Txikitxok, Ganbarak eta Ganbara Txikik. Emanaldia-ri amaiera emateko, elkarrekin abestuko dute guztiak Eva Ugalderekin *Tximeletak* abestia.

Entzungo diren beste piezen artean badira bi lehenengo aldiz

Oñatiko kontzertu honetan abestuko dituztenak: Eva Ugalderekin *Mari* eta Junkal Guerrerorekin *Galtzagorri*. Donostiarra eta andoaindarra, gainera, emanaldian izango dira, eta euren lanari buruz berba egiteko aukera izango dute. Idoia Azurmendi ez da han egongo, lan kontuengatik.

Aitor Biain eta Mirengu Plazaola izango dira zuzendariak, eta piano jotzaileak, berriz, Eli Mendiarez eta Anabel Henao.

Kontzertu berezi hori 19:00etan izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Doan izango da, baina gonbidapenak hartu behar dira. Txokolateixian daude eskuragai.

Azoka

Emakume konpositoreen piezak entzun ahaliko dira, beraz, gaur, eta bihar, zapatua, emakume artisauak egindako lanak ikusi eta erosi ahal izango dira. "Emakumeak beraien lanekin plazan

herriaren aurrean agertzea du helburu azokak. Artistak, artisauak, eskulangileak... emakumeak", dio Andraitzeko Edurne Ugartek.

Guztira, hemeretzi emakume egongo dira hamabost postutan, gehienak oñatiarrak. Askotariko materialak erabilia egindako xaboiak, kremak, ogiak,



Joan den urteko martxoan egindako emakume artisauen azoka. GOIENA

pastelak, mokadutxoak, kamisetak, poltsak, motxilak, apaingarriak, bitxiak, figurak, apaingarriak eta era askotako osagaiak eramango dituzte azokara, bes-

teak beste. Foruen plazan izango da azoka, 10:00etan.

Arratsaldean, Liher taldeak joko du gaztetxean, emakumeen bazkariaren ostean.

Herri barruan egingo dute duatloi txikia, martxoaren 17an

Duatloi txikia antolatu du lehenbiziko aldiz Oñatiko Antxintxiketaren taldeak. Martxoaren 17an izango da. Hiru kategoriatan lehiatuko dira gaztetxoak: benjamin, alebin eta infantil mailatan. Nagusien proban bezala, horiek ere korrika eta bizikletan ibili beharko dute; distantziak kategoriaren arabera izango dira. "Korrika egin behar dituzten metroak plaza inguruan eta plazatik gora egingo dituzte eta bizikleta gainean, berriz, Kale Zaharrean behera joanda, baina herritik atera gabe", argitu du Andoni Correasek.

Izen-ematea hilaren 12ra arte dago zabalik, www.triatloi.org helbidean.

Udalekuetarako begiraleak behar dituzte, uztaileko

Udaleku irekiak eta arte udalekuak antolatu ditu aurten ere Oñatiko Udalak gaztetxoendako. Biak izango dira uztailean, 2tik 27ra, biak barne, eta baterako zein besterako begiraleak kontratatuko ditu Udalak. Arte udalekuak LH-3 eta DBH-3 bitarteko adina duten haurrei zuzenduak izango dira, eta marrazketa, margotzea eta eskultura landuko dituzte. Udaleku irekietan, talde jolasak, ur jolasak, irteerak eta eskulanak egingo dituzte, besteak beste.

Baterako zein besterako, udal bulegoetan eman behar da izena, 09:00etatik 14:00etara, martxoaren 16a aurretik. Udal webgunean daude eskabideak.



YERAY ALVAREZ CARMONA
ARETXABALETA LANBIDE
ESKOLAKO ikasle aretxabaletarra

DEBAGOIENKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

IKASKETAK:
Soldadura eta Galdaragintza erdi-mailako heziketa zikloa bukatuta.

GAUR EGUN:
Eraikuntza Metalikoak goi-mailako zikloa ikasten (2. mailan) eta Talleres Zubikuan Dual sistemaren bitartez lanean.



GOIAZ! 2018
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 17an eta 18an
Kulturaren, Arrasaten

goiazdebagoiena



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzariaren Lanbide Heziketaren
Lanbide Heziketa Zuzendaritza

Nola heldu zinen Lanbide Heziketara?
Dibitik zuzenean joan nintzen erdi-mailako Soldadura eta Galdaragintza ikastera. Tallerreko zerbaite ikasi nahi nuen, praktikoa, hori gustatzen zait. Babilergoa zaila ikusten nuen orduan.

Nolatan askeratu zenuen Soldadura eta Galdaragintza?
Lagunekin bapuzak eta egiten nituen, eta fabrikazio mekanikoaren arloan hori gustatzen zitzaidan.

Erdi-mailako zikloa bukatuta, goi-mailako zikloarekin jarraitzea erabaki zenuen ondoren.
Bai. Familia berekoa den Metal Eraikuntzak goi-mailako zikloa bukatzen ari naiz orain. Dual sistemaren bitartez egin dut, eta horregatik daramat bigarren kurtso hasieratik Zubikua teilarean lanean. Bigarren mailan, astean bi egunetan lanera etorri naiz, eta orain, praktikaldian, egunero enpresan.

Zer modaz erregresako esperientzia?
Gustura nabil, lankideekin ondo

moldatu naiz. Makina handientzako estrukturalak eta piezak egiten dituzte; planoak hartu eta materiala neurria ebaki, plegatu, soldatu...

Ze onura ditu Dual sistemak?
Lantegian gehiago ikasten da, eginez ikasten delako. Hori ez da eskolatan ikasten. Gainera, soldatu bat ere jasotzen dugu, eta hori ondo etortzen da beti.

Eta hori bukatutakoan, ze asmo daukazu?
Unibertsitatean Ingeniaritza Meatronika ikasten hasteko asmoa daukat. Lehenengo urtea gogorra izango da, baina ahelegina egingia lortu daitekeela esan didate. Gainera, nik ditudan ikasketekin, hiru arte izango dira; urte bat korbalidatzen didate eta azken bi urteak Dual sistemarekin egingo ditut.

Lanarekin bateratuko duzu?
Ez dut uste. Aukera eman didate Zubikuan lanean jarraitzeko, baina ikasketetan zentratuko naiz.

Maila gorenari eusteko azken aukeraren aurrean

XAKEA Arrasate-Arlutz xake taldeko ordezkariak Ohorezko Mailan jarraitzeko beharrezko dituzten puntuak batzera joango dira bihar Mirandara (Burgos); eurek lan ona egin eta beste talde batzuen emaitzen zain egon beharko dute mailari eusteko

Xabier Urzelai ARRASATE

Ohorezko Mailan jokatzeko Arrasate-Arlutz xake taldeak. Hor, oso maila oneko jokalariek eta Estatuko puntako xakelariak batzen dira; alegia, nazioarteko maisuak. Eta Arrasate-Arlutzek hor jarraitu gura du, elitean: "Ez da erraza izango, karanbola batzuk gertatu beharko direlako asteburuan. Ohorezko Mailako azken jardunaldia denez, klub guztiak Mirandan batuko gara zapatuan, eta ordu berean jokatuko ditugu partidak", adierazi du taldeko ordezkari Josu Tornayk.

Bi puntu batzea helburu

Joan den astean, debagoienarrekin emaitza ona lortu zuten, Santa Anari 2,5-1,5 irabazi zioten eta: "Baina atzealdeko postuetan ditugun kontrario zuzenek ere lan ona egin zuten, eta biharko jardunaldia erabakigarria izango da. Irungo Batalla izango dugu aurrean, eta, berdintzeko -2 puntu- kapaz bagara, aurre-rapauso handia egingo dugu mailari eusteko bidean, gure aurretik dagoen Leioako Altzagak nekez lortuko du eta puntu erdi; izan ere, liderraren kontra jokatuko dute. Baina guk bada-kigu bi puntu horiek batzeko oso ondo egin beharko dugula



Arrasate-Arlutzeakoak, Ohorezko Mailan lehiatzen. ARRASATE-ARLUTZ

**"URTE GOGORRA
IZATEN DABIL, BAINA,
ALDI BEREAN,
IZUGARRI GABILTZA
IKASTEN"**

lan. Edozer gertatuta ere, zapatuan afari batekin ospatuko dugu egindako lana".

"Gozatzen gabiltza"

Tornayk onartu du aurten gogorra egiten ari zaiola txapel-

keta, baina izugarri gozatzen dabilela: "Aretxabaletako Miguel anaiek merezitako atsedena hartzea erabaki dute aurten, eta igarri egiten da euren hutsunea, batez ere, Fran oso-oso jokalaria ona delako. Asier Etxagibel eta biok gabiltza hutsune hori betetzen, eta lehenengo bi tauletan puntako xakelarien kontra gabiltza jokatzeko. Kontrarioen maila izugarria da, partidak oso ondo prestatu behar ditugu, eta, hala ere, puntu gutxi batzen gabiltza. Baina, neurri berean, izugarri gabiltza ikasten".

Eskola arteko ibarreko txapelketa

Maila federatua lau talde izatearekin batera, Arrasate-Arlutz taldeko ordezkariak harrobian ere jartzen dute indarra. Hala, domekarako, Debagoieneko banakako eskolarteko txapelketa antolatuta zuten, eta ibarreko 36 gaztetxok hartu zuten esku: "Partaideek oso maila ona erakutsi zuten eta oso norgehiagoka interesgarriak jokatu zituzten".



Gazteak txapelketan lehiatzen. IZASKUN BOLINAGA

Haurren Eskolarteko Txapelketa izango da etzi, domekan

KROSA Arruena parkean egongo den zirkuituan bi lasterketa egingo dituzte, guztira, 11:00etan hasita

X.U. ARRASATE

Euskadiko 35. Eskolarteko Kirol Jokoen barruan, kros lasterketak egingo dituzte domekan Arrasaten -Arruena parkean egongo da zirkuitua, Eroskiko parkingaren ondoan-. Txapelketan esku hartuko dute 2004an eta 2005ean jaiotako gazteek; alegia, infantil mailakoek, bai EAeko lurraldeetako selekzioak ordezkatzeko, eta baita eskolarteko kirolen kanpainetan izena emanda dauden ikastetxeak ordezkatzeko.



Gazteak kros batean korrika. GOIENA

4.200 metroko lasterketa

Arruena parkean jarriko duten zirkuituan, 2004an jaiotakoek 4.200 metroko lasterketa izango dute aurrean -11:00etan hasiko dira- eta urtebete gaztegoek 3.200 metroko lasterketa izango dute -11:20an-. Eta, antolatzaileen esanetan, kategoria bakoitzean

100 atleta inguruk hartuko dute esku, gizonen eta emakumezkoen kategorietan.

Hala, gazteek egunean bertan jasoko dituzte lasterketan parte hartzeko dortsalak, zirkuituan bertan jarriko duten idazkaritza postuan.

Hirurehun mendizale gazte espero dituzte Aretxabaletan

MENDIA Domekan, Murruxok antolatuta, Aretxabaletan egingo dute Eskolarteko 31. Mendi Ibilaldi Neurtua

X.U. ARETXABALETA

Domekarako (08:30-09:00), Debarroko 300 gazte inguru espero dituzte Murruxokoko lagunek. Gipuzkoako bost tokitan izango dira aurtengo Eskolarteko Mendi Ibilaldiak, eta horietako irteera bat Aretxabaletan egingo dute: "8 eta 12 urte bitarteko gazteendako ibilbide motza prestatu dugu, eta 12 eta 16 urte bitartekoendako ibilbide luzea. Hor, bost laguneko taldeak osatzen dituzte, eta helburua da kontrolguneetatik pasata ibilbidea egitea. Baina ez du izaera lehiakorrik".



Aretxabaletan egindako irteera bat.

Mendiola eta Peñakulo aldera

Murruxokoko ordezkari Oier Etxebarriak aste barruan Goiena telebistan azaldu duenez, ibilbideak ez dira gogorak izango: "Motzak bederatzi kilometro inguru izango ditu. Urkulura

joango gara bidegorritik, handik Areantza gainean dagoen elurzulo batera joango gara, eta gero Mendiolara jaitsi. Luzekoak, berriz, elurzulotik Peñakulo gainera igoko dira". Atzo, egue-na, izan zen martxan izena emateko azken eguna.



Aizpuru, baloia gidatzen, taldekideen begiradapean, Mutrikuko kontrarioa aurrean duela. I.SORIANO

Mondrak bakarrik lortu du txakalalditik ihes egitea

FUTBOLA Ohorezko Erregionalean Bergarak eta Aretxabaletak partidu bakarra irabazi dute azken hamar jardunaldietan; Mondra da ligako txanpa honetan horrenbeste sufritzen ez dabilena. Asteburuan etxean jokatu dute hiru ordezkariak

Xabier Urzelai ARRASATE
Txakalaldiak jota daude bailarako talde nagusiak. Bergarak, lehen itzuli ikusgarria egin ondoren, azken hamar jardunaldietan partidu bakarra irabazi du, eta abenduaren 10a ezkerro zazpi puntu batu ditu. Antzeko egoeran dago Aretxabaleta. Velez de Mendizabalen mutilek ere partidu bakarra irabazi dute

abenduaren 10a ezkerro, eta tar-te horretan sei puntu batu dituzte. Emaizta horien ondorioa da bi taldeek atzerapauso nabarmena egin dutela sailkapenean; Aretxabaletak, batez ere. UDak sailkapenean erdian dagoen Mutrikuren kontra (Ibarra, 16:30) izango du egoerari buelta emateko aukera eta Bergarak puntu bat gutxiago duen

Amaikak Baten bisita izango du bihar Agorrosinen (16:30).

Mondra, bosgarren
Arrasateko taldea, berriz, ez dabil horrenbeste sufritzen ligako txanpa honetan. Asteburuan 0-1 irabazi zuten Oiartzunen, eta bihar, sailkapenean erdian dagoen Real Unionen bisita izango dute Mojategin (16:30).

Hilabete gogorra dute aurretik

Leintz Arizmendiko neskek hilabete gogorra dute aurretik, aurrealdean dauden lau taldeen kontra jokatu dute eta Aste Santura bitartean: "Bai, mailako talde indartsuenak datoz jarraian, baina liga ez da hor amaitzen", adierazi zuen Esti Loitik, Pauldarrak taldearen kontrako 0-0ekoaren ostean: "Gainera, horie ezusteko bat emateko kapaz garela uste dut".



Etxeandia, domekan, Pauldarrak taldearen kontra. IMANOL SORIANO

ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUM.

Tolosa-Leintz Arizmen.
Domeka. 11:30. Tolosa.

OHOREZKO ERREGIONA.

Aretxabaleta-Mutriku

Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra-Real Union

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Bergara-Amaikak Bat

Zapatua. 16:30. Bergara.

ERREGIONAL PREFERE.

Eibar-Antzuola

Zapatua. 18:45. Eibar.

Aretxabaleta-Beasain

Domeka. 18:30. Ibarra.

Mondra-Zumaiako

Zapatua. 18:30. Mojategi.

Bergara-Ikasberri

Domeka 16:30. Ipintza.

Aloña Mendi-Tolosa

Domeka. 16:30. Azkoagai.

EMAKUMEZK. IGOERA.

Beti Gazte-Bergara

Domeka. 17:00. Lesaka.

EMAKU. KOPA.

Aloña Mendi-Goierri

Zapatua. 10:00. Azkoagai.

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL MAILA

Aretx.UDA-Goierri

Domeka. 12:00. Ibarra.

EUSKADIKO TXAPELK.

Gora Bilbao-Mondrate

Zapatua. 20:30. Bilbo.

Gernikako-Eskoriatza

Zapatua. 16:45. Gernika.

SASKIBALOA

EBA

Valle Egues-MU

Domeka. 12:00. Sarrigur.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

Erroibide-Aloña Mendi

Zapatua. 20:00. Irun.

Alkide. Ointxe-Dolphins

Domeka 17:30. Musakola.

GIP. BIGARREN MAILA

Soraluce BKE-Ormaizt.

Zapatua. 16:00. Labegara.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Cafes Aiton.

Gaur. 20:15. Manuel Mu.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Txikipolit-Fagor Indus.

Zapatua. 17:45. Zarautz.

Ford Mugarri-Basauri

Zapatua. 17:30. Iturripe.

EUSKADI. TXAP. EMAK.

Aloña Mendi-Berango

Domeka. 12:00. Zubikoa.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKET.

ART-Ordizia B

Zapatua. 17:30. Mojategi.

PILOTA

PILOTA FEDERATUA

Oñati:

Gaur. 18:30. Zubikoa.

Aretxabaleta:

Gaur. 19:00. Hiru partidu.

ATLETISMOA

KROSA

Euskadiko Eskola

Arteko Kros Txapelketa

Domeka. 11:00. Mojategi.

PILOTA Beñat Rezusta: "Ondo etorri zait atsedean hartzea"

Aspeko pilotari bergararrak zapatuan hasiko du Elezkano II. arekin batera finalerdietako ligaxka, eta Labriten Ezkurdia eta Zabaleta izango dituzte aurrean: "Beti esan izan dut Zabaleta dela pilotari abiadura handiena ematen dion pilotarietako bat, baina onenen kontra jokatzea motibagarria da", adierazi du pilota aukeraketan.

PILOTA Martitzenean jokatu dituzte Soraluceko finalak

Soraluce lau t'erdiko txapelketako finalak jokatu dituzte datorren martitzenean Bergaran. Aste barruan jokatu dituzte azken finalerdiak, eta promesetan Exposito (22-16) eta nagusietan Zubiria (15-22) sailkatu ziren finalerako. Hala, finalean, Expositok Uribe izango du aurrean eta Zubiriak Zubizarretaren kontra neurtuko ditu indarrak.

ERRUGBIA Puntu premia duen ARTk Ordizia hartuko du

Arrasate Rugbi Taldeak partidu garrantzitsua jokatu du zapatuan (17:30), Mojategin. Ordizia B taldea izango dute aurrean -sailkapenean bigarren daude- eta etxekeok puntu premia dute atzealdeko postuetatik gora egiteko. Hala ere, ondoren etorriko diren bi partiduak izango dira *finalak*, kontrario zuzenen kontra jokatu dute eta.

SASKIBALOA Ointxe!-k jaurtiketa campusa antolatu du

Apirilaren 2tik 6ra (Pazko astea) egingo du Ointxe! klubak jaurtiketa campusa (10:00-14:00). LH-5, LH-6, DBH-1 eta DBH-2 mailako neska mutilendako da, eta izena emateko 25 euro ordaindu beharko dira. Martxoaren 15a da izena emateko azken eguna (688 63 44 86), eta Eneko Matak izango du campusa zuzentzeko ardura.

"Gizartearen egoera bera bizi dugu aktoreok ere"

VEÑE HERRERO AKTOREA

Garcia Lorcak idatzi zuen 'La casa de Bernarda Alba' antzezlanaren Arrasateko Amaia antzokian eskainiko dute bihar, zapatua, eta domekan Oñatiko Santa Ana aretoan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Bilboko Zorrotzaurre auzoan dagoen Pabiloi 6 sormen-guneak iaz urtarrilean abiarazi zuen helduentzako antzezlan ezaguna. Emakumeen aurkako indarkeria eta generoen arteko ezberdintasuna azaleratu zituen Garcia Lorcak 1936an idatzi zuen azken lanean. Taularen gainean, zortzi emakume; horien artean, Arrasateko aktore Vene Herrero dago, Bernardaren paperean sartuta. Leihatiletan eta *on line* ere eskura daitezke sarrerak: *Arrasate.eus* eta *Bibe-me* atarietan. **Orain arte, Pabiloi 6 gunean eskaintzen egon zarete, eta kanpoko lehenengo emanaldiak asteburuan Debagoienean egingo dituzue.**

Urduri samar gaude, egia esan. Orain arte, oso harrera ona izan dugu gure etxean eta Euskalduna Jauregian. Izan ere, publikoaren iritzia eta erantzuna oso ona izan da. Hunkituta atera dira ikusle asko.

Zeri buruzkoa da?

Lorcak gai batzuk kontrajartzen ditu antzezlan horretan, batez ere, askatasuna ankerkeriarekin. Oso autoritarioa den ama batek bost alaba dauzka, eta, halako baten, alaba gaztea amaren aurka altxatzen da.

Bernarda zara. Nolako da?

Rol maskulinoa hartzen du. Kontuan izan behar da garai hartan ereduak oso maskulinoak zirela; dituen ereduak bere aita eta aitona dira. Bost alabez gain, amarekin eta Poncia neskamearekin bizi da. Herrian aberatsak ziren, baina handik kanpo ez horrenbeste.

Obra originaletik gertu dago eskaintzen duzuen?

Testuari leiala da. Esentzia hartu dugu; Garcia Lorcak oso ondo idatzi zuen eta ez dauka aldaketarik beharrik. Pertsonaiak ere oso ondo eraikita daude. Etxe barruan gertatzen da dena, kartzela moduko bat da pertsonaiendako etxea.



Arrasateko Vene Herrero aktorea *La casa de Bernarda Alba* antzezlanean. V. H.

"GENEROEN ARTEKO EZBERDINTASUNEN SUSTRAIAK IKUSTEKO APROPOSA DA ANTZEZLANA"

Zortzi emakume taularen gainean. Zeintzuk dira?

Oso onak dira denak, ibilbide luzeak. Zuzendaria, eta aldi berean aktorea, Itziar Lazkano da -antzerkian, zinemari eta telebistan egin du lan, adibidez, *Vaya Semanita* saioan-. Pabiloi 6 sormen-guneak Itziarri deitu zioten lana zuzentzea proposatuz, eta hark osatu zuen gero taldea. Honako hauek daude agertokian nirekin batera: Olatz Ganboa (Adela); Idoia Merodio, (Poncia); Nagore Navarro (Angustias); Carmen Pardo (Maria Josefa eta neskamea); Aiora Sedano (Amelia); eta Leire Orbe (Magdalena).

Nori gomendatuko zenioke?

Helduentzako da, eta gazteenetzako ere aproposa da. Egia da urteetan zehar generoen arteko berdintasunaren inguruan egotera batzuk aldatu egin direla,

baina nondik gatozen ikusteko baliagarria da. Hala ere, berdintasuna lortzeko, oraindik ere, bide luzea dugulakoan nago.

Zelan ikusten duzu emakume aktoreen egoera?

Antzerkia edo zinema ez dira gizartearekiko ezberdinak, gizartea islatzen dute eta; hortaz, gizartean dagoena, horrelakoa da aktoreen egoera.

Bitxia da, institutuan egin zuten *La casa de Bernarda Alba*-ren irakurketaren ondoren erabaki zenuen aktore izan nahi zenuela.

Bai; hala, da. Gasteizko antzerki talde batekin jardun nuen gero urtebetez, eta ondoren, Madrilera joan nintzen, RESA-Dra -Arte Dramatikoko Errege Goi Eskola-. Ikasketak bukatu eta segituan hasi nintzen lanean antzerkian, telebistan, zinemari eta askotariko taldeekin ere bai. Geroago, doktoretza egin nuen eta 30 urte Arrasatetik kanpo bizi ondoren etxera itzuli nintzen. Gaur egun, Doke antzerki taldean jarduten dut, oso gustura; sekulako oparia da talde horren parte izatea. Horrez gainera, Bilbon dagoen Dantzerti Euskal Antzerki Eskolan eskolak ematen ditut.



La Basu rap kantariak parte hartuko du Beratu jaialdian. BERATU JAIALDIA

Euskal musikagintzak bizi duen paradigma berriaz hitz egiteko

Martxoaren 24an, zapatua, musika esparru anitzetako profesionalak bildu gura dituzte Beratu jaialdian

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Autogestioak, digitalizazioak, belaunaldi aldaketak... euskal musikaren eszena aldatu egin dute, eta, ondorioz, zalantzak eta kezak sortu ditu sektorean; horiei erantzuna bilatzeko, *Ahotsenean elkarteko gara* jardunaldiak egingo dituzte Oñatin egingo duten Beratu jaialdian.

Martxoaren 18tik 24ra bitartean egingo du Oñatiko Udalak, Ahotsenearekin eta herriko askotariko eragileekin elkarlanean, eta herriko azpiegitura ezberdinak agertoki bihurtuko dituzte. Hitzaldiak, mahai-inguruak, kontzertuak, tailerra eta disko azoka izango dira. Informazio gehiago *Beratu.eus* atarian dago.

Profesionalendako topagunea

Euskal Herriko musika eszenako profesionalak batu gura dituzte martxoaren 24an goizean Eltzian. "Programatzaileak,

musikariak, kazetariak eta bestelako eragileak gonbidatu gura ditugu. *Speed meeting* formatuko dinamika izango da; hau da, profesional bakoitza eztabaida mahai batean egongo da, eta musikariekin osatutako talde bakoitzak hamabost minutuko bilerak egingo ditu. Musikariak mahai guztietatik igaro ondoren, antolatzaileak mahaietan jasotako ondorioak aurkeztuko ditugu. Ondoren, hiru hitzaldi labur izango dira. Parte hartzea doakoa da, baina martxoaren 18a baino lehen egin behar da eskaera, *Ahotsenea@durangoazoka.eus* helbidera idatzita", azaldu du Arkaitz Villarrek, antolatzaile taldeko kidea.

Arratsaldean, guztientzako

16:00etatik 20:30era bitartean ordu erdiko kontzertu akustikoak eta disko azoka izango dira, publiko guztientzako, Eltzian.

Eskolarteko idatzizko bertso txapelketa Arrasaten egingo da

Martxoaren 13an, martitzena, Debagoieneko bertso eskoletako bertsolari gazteak eta ikasle txeeetako Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleak batuko ditu Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, Ikastolen Elkartearrekin elkarlanean, Arrasateko Amaia antzokian egingo duten eskolarteko idatzizko kanporaketan.

09:30ean hasita, ordubete izango dute bertsoak idatzeko. "Bertso saio didaktikoa egingo dugu gero, eta 11:30ean, sari-banaketa. Aurten, maila bakoitzeko bina sari izango dira. Saio itxia da, baina etorri gura dutenek badute aukera", azaldu du Bertsozale Elkartearen Jokin Labaienek.

